


# Euskararen B1 maila Lehen Hezkuntzan

TXOSTEN OROKORRA

2007ko otsaila



**ISEI·IVEI**

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU  
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN  
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

[www.isei-ivei.net](http://www.isei-ivei.net)


EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN



**ISEI•IVEI**

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU  
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN  
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

---

**Argitaraldia: 2007ko maiatza**

© ISEI•IVEI

**ISEI•IVEIren EDIZIOA**

Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea  
Asturias, 9 - 3. 48015 Bilbo  
Tel.: 94 476 06 04 - Faxe: 94 476 37 84  
info@isei-ivei.net - www.isei-ivei.net

**KOORDINATZAILEA:**

Arrate Egaña

**PROBAREN DISEINUA:**

Arrate Egaña  
Nerea Iriondo  
Gloria Rey  
Ibon Olaziregi

**TXOSTENGILEAK:**

Arrate Egaña  
Francisco Luna  
Trini Rubio  
Cristina Elorza  
Alfonso Caño

**AHOLKULARITZA ETA GAINBEGIRATZE TEKNIKOA:**

Eduardo Ubieta  
José Luis Tranche

**DISEINUA:**

Onoff Imagen y Comunicación / [www.eonoff.com](http://www.eonoff.com)

<b>1. SARRERA</b> .....	<b>7</b>
1.1. Probaren deskripzioa .....	7
1.1.1. Helburuak .....	7
1.1.2. Probaren iturburua eta ezaugarri orokorrak .....	7
1.1.3. Beste eredu batzuk .....	9
1.2. Probaren diseinua .....	10
1.2.1. Irakurmena .....	11
1.2.2. Idazmena .....	11
1.2.3. Entzumena .....	13
1.2.4. Mintzamena .....	14
1.2.5. Galdera-sortak .....	16
1.2.6. Ebaluazioa .....	16
1.3. Aplikazioa .....	17
1.3.1. Proba pilotua .....	17
1.3.2. Behin betiko aplikazioa .....	17
1.3.3. Lagina .....	17
1.3.4. Datak eta prozedura .....	21
<b>2. EMAITZA OROKORRAK</b> .....	<b>23</b>
2.1. Ikasleen emaitza orokorrak mintzamena barne .....	25
2.1.1. Emaitza orokorrak, mintzamena barne eta hizkuntza ereduaren arabera .....	26
2.2. Ikasleen emaitza orokorrak mintzamena gabe .....	28
2.2.1. Emaitza orokorrak mintzamena gabe eta hizkuntza ereduaren arabera .....	29
2.2.2. Emaitza orokorrak mintzamena gabe B1 eta B2 probetan .....	30
2.3. Geruzen arabeko emaitza orokorrak (sareak eta hizkuntza ereduak) .....	32
2.4. Ikasleen emaitzen sakabanaketa .....	33
<b>3. ALDAGAI ERAGINGARRIAK</b> .....	<b>41</b>
3.1. Familiaren aldagaiak .....	49
3.1.1. Familiaren hizkuntza .....	49
3.1.2. Datu orokorrak: emaitzak familiaren hizkuntzaren arabera .....	50
3.1.3. Datuak hizkuntza ereduaren arabera .....	51
3.1.4. Datuak geruzen arabera .....	52
3.1.5. Familiaren hizkuntza gaztelania denean .....	53

3.2. Zonalde soziolinguistikoaren arabera emaitzak .....	55
3.2.1. Ikasleen banaketa hizkuntza eremuetan .....	55
3.2.2. Zonalde soziolinguistikoa eta geruzen arabera emaitzak .....	57
3.2.3. Zonalde soziolinguistikoa eta ikasleen familiaren hizkuntzaren arabera emaitzak .....	59
3.2.4. Hizkuntza eremuen eta hizkuntza ereduaren arabera emaitzak .....	60
3.3. Familiaren aldagaiak .....	62
3.3.1. Familiaren indize sozioekonomiko eta kulturala (ISE1 indizea) .....	62
3.3.2. Emaitzak ISE1 indizearen mailen arabera .....	64
3.3.3. Emaitzak ISE1 indize eta hizkuntza ereduaren arabera .....	67
3.3.4. Emaitzak ISE1 indize eta geruzen arabera .....	68
3.3.5. Emaitzak ISE1 indize eta familiaren hizkuntzaren arabera .....	
3.4. Ikasleen aldagaiak .....	70
3.4.1. Ikasleen sexuaren arabera emaitzak .....	70
3.4.2. Ikasle errepikatzaileak .....	74
3.4.3. Euskara arloko noten eta B1 probako emaitzen arteko erlazioa .....	78
3.5. Ikastetxearen aldagaiak .....	82
3.5.1. Ikastetxeetan jarraitzen diren hizkuntza-irakasbideak .....	82
3.5.2. Ikastetxearen indize sozioekonomiko eta kulturala (ISE1-c) .....	89
<b>4. HIZKUNTZA TREBETASUNEN PUNTUAZIOAK .....</b>	<b>103</b>
4.1. Trebetasunen puntuazioak hizkuntza ereduaren arabera .....	103
4.2. Trebetasunen puntuazioak geruzen arabera .....	104
4.3. Trebetasunen puntuazioak ikasleen familiaren hizkuntzaren arabera .....	106
4.4. Trebetasunen puntuazioak ikasleen sexuaren arabera .....	107
<b>5. AZALPEN ERDUAK .....</b>	<b>111</b>
5.1. A ereduak .....	111
5.2. B ereduak .....	112
5.3. D ereduak .....	113

SARRERA

1



## 1. SARRERA

### 1.1. Probaren deskripzioa

#### 1.1.1. Helburuak

Euskara proba honen helburu nagusia hau da: hizkuntza maila zehatza ezarrita, Lehen Hezkuntzako 6. kurtsoko ikasleen euskara maila neurtzea.

Maila zein eduki horiek *Europako Kontseiluaren Hizkuntzen Erreferentzia Markotik*<sup>1</sup> bildu dira, hain zuzen ere, Marko horretan deskribatzen den B1 mailatik. Proba honetan erabili diren jarduerak ez dira kasu guztietan ikastetxeetan lantzen direnak, nahiz eta askotan bat etor daitezkeen.

Euskara proban, *Erreferentzi Markoaren* irizpideak jarraituz, ikaslearen komunikaziorako konpetentzia ebaluatu da. Horretarako komunikaziorako behar diren lau trebetasunak ebaluatu dira: irakurmena, idazmena, entzumena eta mintzamina. Hortaz, probaren xedea honako hau izan da: LHko 6. kurtsoko ikasleen euskara maila erreferentziako B1 mailara iristen den ala ez aztertzea.

#### 1.1.2. Probaren iturburua eta ezaugarri orokorrak

*Europa Erreferentzi Marko Bateratua* Europako hizkuntzak irakasteko eta ebaluatzeko irizpide komunak ematen dituen txostena da; *Markoaren* irizpideak ez dira nahitaezkoak, orientatzekoak baizik.

*Markoak* oinarri bateratuak ematen ditu hizkuntzen ikaskuntza eta irakaskuntzarako Europa osoan: hizkuntza programak, curriculum-argibideak, ebaluazioak, testuliburuak eta abarrekoak egiteko. Halaber, txosten honek argi azaltzen du ikasleek komunikazioan hizkuntza egoki erabiltzeko egin behar dutena eta zein ezagutza eta gaitasun garatu behar dituzten eraginkortasunez jarduteko.

Europa osorako erreferente den *Markoak* baliabideak eskaintzen dizkie, ikastaro-antolatzaileei, irakasle-hezitzaileei eta ebaluazio erakundeei ere, hizkuntzen probetako diseinuan komunikazio trebetasunak Europako beste hizkuntz ebaluazioetan egiten den bezala balora ditzaten.

*Txostenean* agertzen diren oinarriak ikuspuntu komunikatiboaren ildoan kokatzen dira; hizkuntzaren erabilera bere testuinguruan hartzen du, hots, komunitate zein kulturarekin lotuta. Hortaz, komunikaziorako konpetentziaren garrantziak garrantzi handia hartzen du: testuingurua, arlo linguistikoa, testua, testuen esparruak, etab. barne direlarik.


Hizkuntza, ikaskuntza prozesuaren mailak eta hauen deskriptore zehatzak era bateratua eskaintzean, *Erreferentzia Markoak* ikastaroak, programak eta emaitzak gardenago azaltzen laguntzen du, eta hizkuntza modernoan alorrean nazioarteko lankidetzaren areagotzen. Hizkuntzaren konpetentzia maila neurtzeko irizpide objektiboak jartzeak asko errazten ditu hizkuntzen irakaskuntza zein ebaluazioa.

Datorren koadroan B1 maila edo *Atalase maila* agertzen da *Erreferentzia Markoak* markatutako mailen artean; honela zehazten dira hizkuntzaren erabiltzailearen konpetentziak:

---

(1) Council of Europe (2001): Common European Framework of Reference for languages: Learning, Teaching, Assessment. Strasbourg, 2001. Europako erreferentzia markoa, HABE, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Eusko Jaurlaritza, (2005). Dokumentu hau gaztelaniaz: Instituto Cervantes (2002): Marco común europeo de referencia para las lenguas: aprendizaje, enseñanza, evaluación. Consejo de Europa, Ministerio de Educación y Deporte, (Anaya), Madrid.

## 1. KOADROA. ERREFERENTZIA MAILA BATERATUAK: ESKALA GLOBALA

	<b>Erabiltzaile gaitua</b>	<b>C2</b>	Erraz ulertzen du entzuten edo irakurtzen duen ia guztia. Iturri desberdinetako, ahozko eta idatzizko, informazioa laburtzeko gauza da, argudioak eta txostenak berreraikitzen ditu, aurkezpen koherentea eginez. Zailtasunik gabe eta berez hitz egiten du, jarioetasun handiz eta zuzentasunez, ñabardurak bereiziz egoera konplexuetan ere.
		<b>C1</b>	Ulertzen ditu testu luzeagoak eta konplexuagoak, eta atzematen du adierazpenen zentzu inplizitua. Jarioetasunez eta zailtasunik gabe hitz egiten du, adierazpenen bila ibili gabe. Hizkuntza malgutasunez eta eraginkortasunez erabiltzen du helburu akademikoetarako, profesioletarako eta sozialetarako. Testu argiak, ondo antolatutako eta zehaztuak ekoizten ditu gai konplexuei buruz, erabilera kontrolatua erakutsiz egituretan, lokailuetan eta kohesio-mekanismoetan.
	<b>Erabiltzaile bere kabuzkoa</b>	<b>B2</b>	Ulertzen ditu gai zehatzei eta abstraktuei buruzko testu konplexuetako ideia nagusiak, bere espezialitateko eztabaida teknikoak barne. Gai da solasean jarioetasun aski onez eta zailtasun handirik gabe parte hartzeko; horrek ahalbidetzen du jatorrizko hitzuneekin tentsiorik sortu gabe hitz egiteko. Testu argiak eta zehatzak ekoizten ditu gai askori buruz eta gauza da gai baten inguruan bere ikuspuntua azaltzeko, beste aukeren alde onak eta txarrak azalduz.
		<b>B1</b>	<b>Ulertzen ditu jasotzen duen informazio normal eta argi baten ideia nagusiak honako alorrei buruzkoak: lana, eskola, aisialdia, eta abar. Gai da erabiltzen duen hizkuntza mintzatzen den lekuan sor daitezkeen egoerei aurre egiteko. Testu errazak eta egituratuak ekoizten ditu bere interesguneari edo gai arruntei buruz. Gai da esperientziak deskribatzeko, ametsak, itxaropenak eta gurariak, eta azalpen laburrak adierazten ditu planak eta motiboak argitzeko.</b>
	<b>Oinarrizko erabiltzailea</b>	<b>A2</b>	Ulertzen ditu maiz erabiltzen diren esaldiak eta adierazpenak hurbileko gai garrantzitsuetan (adibidez, oinarrizko informazio pertsonala eta familiakoa, erosketak, bertako geografia, lana). Gai da jarduera errazetan eta ohikoetan jarduteko, trukaketa erraza eta zuzena eskatzen denean, egunero gai arruntetan. Gauza da hitz errazekin zenbait gai adierazteko: jatorri kulturala, bere testuinguruko gauzak, eta berehalako premiekin zerikusia duten gaiak.
		<b>A1</b>	Ulertu eta erabiltzen ditu eguneroko esapideak, eta oso oinarrizko esaldiak, eguneroko beharrak asetzeko. Gai da bere burua eta besteak aurkezteko; eta gai da galderak egiteko eta erantzuteko zenbait datu pertsonalei buruz: non bizi den, ezagutzen dituen pertsonak eta egiten dituen gauzak. Era errazean hartzen du parte solasetan, solaskideak mantso hitz egiten badu eta argi, eta laguntzeko prest badago.

B1 mailako ikasleak gai dira argi eta hizkuntza estandarrean idatzitako testuen puntu nagusiak ulertzeko, gai ezagunei buruzkoak badira, ikasketen esparruan eta aisialdian. Gai ezagun edo interes pertsonalei buruzko testu soilak eta koherenteak osa ditzakete. Esperientzien, gertaeren, nahien eta asmoen berri emateko gai dira, beren iritziak labur-labur arrazoitze edota bere asmoak azaltzeko.

Hizkuntza trebetasun bakoitzean maila honetako eskakizuna ulertzeko Erreferentzia Markoko auto-ebaluazioa atalean ageri den bezala, ikaslea hurrengoak, besteak beste, egiteko gai da:



<i>Irakurmena</i>	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Bere espezialitatearekin zerikusia duten gaiei buruzko testu errazak irakurtzeko, ulermen-maila onarekin.</li> <li>– Emandako arauak ulertzeko.</li> <li>– Tresna bati buruz garbi idatzitako argibide errazak ulertzeko.</li> </ul>
<i>Idazmena</i>	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Bere interes arloan, eguneko gaiei buruzko testu errazak eta koherenteak idazteko, elementu laburrekin jarraitasun lineala osatuz.</li> <li>– Esperientziak kontatzeko, sentimenak eta erreakzioak adieraziz testu erraz eta ongi egitaratuetan.</li> <li>– Informazioa eskatzeko, eta arauak azaltzeko mezuak idazteko.</li> </ul>
<i>Entzumena</i>	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Eguneroko gaiei buruzko informazio zehatza eta mezu orokorrak ulertzeko, nahiz eta xehetasun espezifikoak ez ulertu, baldin eta diskurtsoak egitura argia badu eta ahoskera argiz egina bada.</li> <li>– Eskolari edo aisiari buruzko eguneroko gaien gaineko diskurtso argien eta hizkuntza estandarrekoen ideia nagusiak ulertzeko, baita kontakizun laburretakoak ere.</li> <li>– Irratiko albistegietako eta beste material grabatu errazagoetako ideia nagusiak ulertzeko, eguneroko gaiei buruzkoak eta mantso eta argi samar ahoskatuak badira.</li> </ul>
<i>Mintzamena</i>	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Nolabaiteko jarotasunez bere intereseko gaien deskribapen errazak osatzeko eta jarraitasun lineal moduan aurkezten ditu elementuak.</li> <li>– Deskribapen errazak egiteko bere espezialitatearen loturiko gaiei buruz.</li> <li>– Gai arruntei buruz bat-bateko elkarrizketak egiteko.</li> </ul>

Trebetasunen deskripzio horrek *Markoan* agertzen direnen arteko zehaztapen batzuk biltzen ditu.

### 1.1.3. Beste eredu batzuk

*Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren* oinarri teorikoaz gain, maila horretako zenbait ebaluazio hartu ditugu eredutzat:

- **ALTE<sup>2</sup>**. *Erreferentzia Markoarekin* uztartuta dago eta erakunde horrek dituen mailak eta ebaluatzekeo hizkuntza trebetasunak ditu. Ebaluazio diseinuak baino, ebaluaziorako irizpideak kaleratu ditu.

ALTE erakundeak 5 zailtasun maila ditu; markotik hartu dugun B1 maila ALTEko 2. mailari dagokio. Maila horretan (Atalase maila), erabiltzailea gai da era mugatu batean hitz egiteko, eguneroko egoeran bada; halaber, gai da ez-eguneroko informazioa jasotzeko.

Honela laburtzen ditu trebetasun bakoitzerako behar diren gaitasunak:

- **Irakurmena**: ikaslea gai da eguneroko informazioa ulertzeko, baita informazioa ez-ohikoa, arlo ezagun batean kokatzen bada.
  - **Idazmena**: ikaslea gai da gutunak edo oharrak idazteko, gaia ezaguna edo alde zuzenetik aipatua bada.
  - **Entzumena eta mintzamena**: ikaslea gauza da gai ezagun bati buruzko aburuak espresatzeko era mugatu batean, eta gai da ahozko instrukzioak zein adierazpen publikoak ulertzeko.
- **Preliminary English Test (PET<sup>3</sup>)** ingeles proba Cambridgeko Unibertsitateak prestatzen du. Probak kontuan hartzen ditu bai *Europako Markoa*, bai eta ALTE erakundea ere. *PET* proba B1 mailan kokatzen da, hain zuzen ere.

(2) **ALTE**: *Association of Language Testers in Europe*. [www.alte.org](http://www.alte.org) Europako Hizkuntza Ebaluatzaileen Elkarteak.

(3) **PET**: *Preliminary English Test*. Handbook, University of Cambridge, ESOL Examinations, Cambridge, 2003.

Proba hau, First (First Certificate in English) proba bezala, ospe handiko proba da, eta jarduerak oso maiz berriztatzen dituzte, bai eta ebaluazio irizpideak ere. Oso proba sendoa eta berme handikoa da. Hori dela eta, PET probaren egitura eta jarduerak eredutzat hartu ditugu euskarako proba egitean.

Trebetasun bakoitzerako horrelako jarduerak ageri dira:

- **Irakurmena:** Erabiltzen diren testuak errealak edo moldatuak izaten dira, mota desberdinetakoak eta luzeak zein laburrak. Jardueretan ulermen zehatza zein orokorra ebaluatzen da, eskatzen den informazioa lortu behar dute eta informazio hutsala alde batera utzi; ikasleak gai izan behar dira informaziotik ondorioak ateratzeko. Bost jarduera mota dituzte: erantzun anitzeko galderak (testu laburretan), erantzun anitzeko galderak (testu luzeetan), testuak elkartu (testu laburren informazio zehatza lortuz), testu baten gaineko esaldi batzuk egitiak ala faltsuak diren adierazi eta testu gaineko itemak, gramatika zein hiztegiaren erabilera ebaluatzeko (“cloze”).
- **Idazmena:** ikasleak gai izan behar dira informazioa idatziz emateko: beraien asmoak zein sentimenduez idazteko eta testu mota desberdinak erraz ekoizteko. Hiru jarduera dituzte: esaldiak berridatzi, mezu laburrak idatzi eta testu luze bat idatzi (narrazio bat edo gutun bat).
- **Entzumena:** Hiru jarduera dira; hiruetan ahozko testuak entzun behar izan dituzte. Ahozko testu batzuk oso laburrak dira eta beste batzuk, ordea, luzeagoak. Testu horiek azalpenezkoak dira gehienbat. Jarduerak hauexek izan dira: testuen edukia marrazkiekin identifikatu, hutsuneak bete eta erantzun anitzeko galderak.
- **Mintzamena:** Probaren atal honetan, ikaslearen hitz egiteko kompetentzia ebaluatzen da. Hiru atal daude: lehenengo elkarrizketa bat da; ikasleak aztertzailearen galderari erantzuten die. Bigarrenean, ikasleak marrazki bat input bezala erabilia, ikusten duena azaldu behar du. Azkenik, gai bat jarrita, ikasleek beraien arteko elkarrizketa sortu behar dute. Gaiak errazak dira, beraien esperientziatik oso urrun ez direnak.

Proba horretan erabiltzen diren testuak errealak edo moldatuta dira. Zenbait bizitza esparrutatik atera dira: komunikabideetatik, literaturatik, hezkuntzatik eta abarretatik. PET proban ere esparru anitzetatik atera edo sortutako testuak erabiltzen dituzte.

- Maila horretako beste proba batzuk ere aztertu dira, esate baterako:
  - Euskara Zerbitzuak prestatutako ebaluazio probak: HE1, HE2 eta EGA<sup>4</sup>, baita ebaluazio hauetan erabiltzen dituzten proba motak eta zuzentzeko irizpideak ere, beti ere maila kontuan izanda.
  - Beste B1 mailako ebaluazio proba batzuk:
    - **Frantsesekoa:** *Diplôme de Langue Française, niveau 2 (Lecteur de niveau seuil)*. Ebaluazio proba hori gainditzeko ikaslea gai izan behar da frantses hizkuntzaren egitura nagusiak erabiltzeko, hiztegiaren ezagutza ona azaltzeko eta eguneroko bizitzaren zenbait egoera errazetan komunikazioaren estrategiak erabiltzeko.
    - **Espainiarekoa:** *Diplomas de Español como Lengua Extranjera (DELE)*, Instituto Cervantes. Nivel B1 (edo *Nivel Intermedio 1*). Maila honetan, ikasleak gai dira informazio ezaguna edo gertua ulertzeko, ahal dute hitz egin orain aldi zein lehen aldi beren egoeraz, asmoak eta esperientziak azalduz.
    - **Katalanekoa:** *Certificat de Nivell Intermedi de Català (B1)*, Generalitat de Catalunya. Departament de Culturak antolatzen du.

## 1.2. Probaren diseinua

Galdera asko egin nahi izan dira, ezagupenak zehatz aztertzeko. Bi eredu desberdinetan banatu ditugu galderak (A eta B koadernoak). Bi koadernoetako galderak desberdinak izan dira.

Proba honek hurrengo atalak izan ditu: irakurmena, entzumena, idazmena, eta mintzamena (azken hau azpi-lagin

(4) Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia (2005): *Irakasleen hizkuntza eskakizunak. 2002 eta 2003ko azterketak*, Vitoria-Gasteiz. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia (2007): *EGA. 2005-2006ko azterketak*, Vitoria-Gasteiz.

batez). Probaren jarduerak mota askotakoak izan dira (erantzun anitzeko galderak, testu bat idaztekoak, hutsuneak betetzekoak, etab.).

Cambridgeko PET proba eredutzat hartu izan denez, horretan bezala barneratu dira Hizkuntzaren Ezagutza arloari dagozkion edukiak (gramatikakoak, sintaktikoak, etab.) First proban “Use of English” izenburupean horrelako kontzeptu gramatikalak eta sintaktikoak aztertzen dira, horregatik Euskara B2 proban ebaluatu da Hizkuntza Ezagutza atala ere, aparteko alderdi bat non neurtzen eta baloratzen diren aspektu linguistiko horiek. PETen, ordea, ez dago horretaz berariazko atal bat eta B1 proban ere ez dugu egin. Hala ere, atal horiek irakurmenarekin eta idazmenarekin batera baloratu izan dira, aurrerago ikusiko den bezala.

Irakurmenaren eta entzumenaren jarduerak testuetatik abiatuta egin ditugu. Erabilitako testu gehienak errealak dira, alegia, eguneroko bizitzan erabiltzen diren esparruetatik hartuta: irrati saioak, testu entziklopedikoak, komunikabideetatik ateratako testuak... Hori dela eta, testuen itxura eta edukiak desberdinak izan dira. Aipatu beharrekoa da testuek zailtasun maila antzekoa izan arren, ulermen mota desberdinak ebaluatu ditugula.

Idazmena eta mintzamena ebaluatzeko zenbait testuinguru hautatu izan dira eta horien inguruan —jarraibide zehatzak emanda— ikasleek testuak ekoiztu behar izan dituzte, idatzizkoak zein ahozkoak ere. Jarduera horien bidez, ikasleek hitz egiteko eta idazteko duten gaitasuna ebaluatu dugu.

Ikasleek egindako probez aparte, beste datu batzuk biltzeko asmoz bi galdera-sorta prestatu ditugu: bat ikasleentzat eta bestea zuzendarientzat (azken honetan, zehaztu behar izan dute ikastetxean zein arlo ematen duten euskaraz).

### 1.2.1. Irakurmena

Irakurmena ebaluatzeko sei jarduera desberdin erabili dira, nahiz eta ikasle bakoitzak hiru baino ez dituen egin behar izan. Jardueretako testu gehienak errealak dira; gainontzekoak, moldatuak edo berariaz sortutakoak.

Testu guztiak azalpenezkoak zein instrukziozkoak dira. Hala ere, bai forman bai eta edukian ere desberdinak dira oso.

Hona hemen jarduerak:

- *Erantzun anitzeko galderak*: honetarako bi testu luze erabili dira. Biak azalpenezkoak eta gai errazekoak, nahiz eta maiztasun gutxiko hitzen bat edo teknizismoren bat azaldu. Galdera hauen bidez, informazio zehatza zein orokorraren ulermena ebaluatu da. Ikasle bakoitzak horrelako jarduera bat baino ez du egin behar izan. Bien zailtasun maila oso antzekoa da.
- *Testu laburren elkarketa*: kasu honetan ere, bi eredu desberdin egon arren, ikasleek bakar bat egin behar izan dute. Jardueran, bi testu laburrez osatutako multzoak agertzen dira eta, irakurketa sakona eginez eta ondorioak atereaz, testuak elkartu behar izan dituzte. Hortaz, irakurketa zehatza zein orokorra eskatzen da eta irakurketaren ondorioak ateratzeko gaitasuna ere.
- *Testu laburren inguruko galderak*: testu labur hauek oharrak eta mezuak dira, gehienak errealak. Ikasle bakoitzak hiru egin behar izan ditu. Jarduera honetan, testuaren mezu orokorra ulertu behar dute, nahiz eta hitz gutxitan adierazita egon. Kasuren batean, ulermen zehatza aztertzen da, hots, mezua testuaren datu zehatz baten inguruan antolatua dago. Erabilitako jarduera mota, erantzun anitzeko galderarena izan da.
- Ulermena ebaluatzeaz gain, hizkuntzari buruzko bost galdera ere egin dira; horietan honelako edukiak sartu dira: gramatika, lexikoa, sintaxia, esamoldeak eta semantika. Hizkuntzari buruzko galdera hauek testu luzeetan txertatu dira.

### 1.2.2. Idazmena

Trebetasun hau ebaluatzeko ikasle bakoitzak hiru ariketa desberdin egin behar izan ditu: testu luze bat idatzi, beste bat laburra eta esaldiak berridatzi. Ariketa bakoitzerako, egoera zehatz bat azaldu izan da, baita idazteko orduan idazkiak bete beharreko baldintzak ere.

Idazlan hauek izan dira jarduerak:

- *1. idatzizko proposamena: testu luzea.* Bi eredu egon dira: proba batean gutun bat idatzi behar izan dute eta beste narrazio bat. Gutunean, lagun bati idatzi behar izan diote, udalekuetara joateko animatuz. Aukera ugari eskaintzen zaizkie zerbait idatzi ahal izateko (noiz izango diren udalekuak, non, zein aktibitate ahalko diren egin, etab.).

Testu luzearen beste proposamenean, narrazio bat idatzi behar izan dute. Gida moduan, esaldi bat eskaini zaie, eta horren inguruan antolatu behar izan dute kontaketa.

Idazlanak izan beharreko luzera arautzeko 100 hitz eskatu zaizkie, nahiz eta 80 izanda ere ontzat hartu den.

Erregistroari dagokionez, idazki hauek biak eremu ez-formalean kokatzen dira, pertsonen arteko komunikazioan, hain zuzen. Gutuna idazteko jarraibideetan, lagun bati idazteko eskatzen zaie espreski, eta narrazioan iradoki ametsa zein gertakizuna, edota ikusitako pelikula baten berri emateko.

Idazmenaren jarduerak irekiak dira, hau da, erantzuna ez da beste batzuen artean hautatu behar, baizik eta testu bat sortu behar da. Horregatik, zuzentzeko orduan, irizpide zehatzak beharrezkoak dira, testu guztiei aplikatzeko eta hor-tik emaitzak eta puntuazioak ateratzeko.

Testu luzeak zuzentzeko, lau irizpide erabili dira: Edukia eta Koherentzia, Zuzentasuna, Kohesioa eta Lexikoa.

Zuzentasuna, kohesioa eta lexikoa baloratzeko irizpide komunak erabili ditugu. Edukia eta Koherentzia aztertzeko, ordea, berariazko irizpideak erabili ditugu testu bakoitzerako, jarraibideetan ikasleei emandako datuen arabera, hain zuzen.

Irizpide horiek bost bandetan edo kategorietan banatzen dira: oso gutxi, gutxi, nahikoa, ondo eta oso ondo.

Hona hemen testu luzeak baloratzeko irizpideak:

<i>Azterketa-maila</i>		<i>Aztertzen den testuaren alderdia</i>
<i>Berariazko irizpideak</i>	<b>1. Edukia eta koherentzia</b>	Honetan adierazia kalifikatzen da, hots, garatzeko eskaintako gaia zein neurritan osatu den. <ul style="list-style-type: none"> <li>• Eskatzen den informazioa agertzea, ondo antolatuta eta egokia.</li> <li>• Testuaren ideien kohesioa.</li> <li>• Testuaren helburua betetzea.</li> <li>• Eskatzen den testu mota neurri batean betetzea.</li> </ul>
<i>Irizpide komunak</i>	<b>2. Zuzentasuna</b>	Hizkuntza ren erabilera zuzenaren balorazioa: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Arau morfosintaktikoen erabilera zuzena.</li> <li>• Ortografiaren erabilera zuzena.</li> </ul>
	<b>3. Kohesioa</b>	Testuaren loturak eta juntagailuak kontuan hartu dira. <ul style="list-style-type: none"> <li>• Testuaren artikulazioa.</li> <li>• Paragrafoak (puntuazioa).</li> <li>• Esaldien arteko loturak.</li> </ul>
	<b>4. Lexikoa</b>	Erabiltzen den hiztegia neurtu da: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Lexikoaren aberastasuna, zehaztasuna eta egokitasuna.</li> </ul>

- *2. idatzizko proposamena: testu laburra.* Kasu honetan ere, testuinguru zehatz bat eman zaie: Bi jarduera daude. Lehenengo eredu (koadernoan), ikasleak lagun baten urtebetetzeko gonbidapenari uko egin behar dio, berak asmatutako arrazoiren bat aitzakiatzat ipiniz. Eredu horretarako posta elektronikoko edo mezu arrunt bat idaztea eskatu zaie.

Bigarren ereduan (koadernoan), ikasleak gurasoei idatzi behar dizkie instrukzio batzuk. Ikaslea lagun baten etxera joan da eta gurasoek joan beharko dute bere bila; hortaz, idazkian, adierazi behar die lagun hori non bizi den, nola joan bere etxeraino eta zein ordutan agertu behar duten.

Ohar edo mezu labur hauek 45 hitz eduki behar dute, nahiz eta ontzat eman 35 hitzetakoak.

Testu laburrak baloratzeko, bi irizpide erabili dira:

<i>Azterketa-maila</i>		<i>Aztertzen den testuaren alderdia</i>
<i>Berriazko irizpideak</i>	<b>1. Edukia eta koherentzia</b>	<p>Irizpide honen bidez ideien antolamendua eta garatzeko eskainitako gaia zein neurritan osatu den kalifikatzen dira.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Eskatzen den informazioa agertzea, antolamendu logikoarekin.</li> <li>• Testuaren ideien koherentzia.</li> <li>• Testuaren helburua betetzea. Eskatzen den testu mota neurri batean betetzea.</li> </ul>
<i>Irizpide komunak</i>	<b>2. Zuzentasuna</b>	<p>Oinarrian, irizpide honekin testuaren akatsek komunikazioa ez eragozteko eskatzen da. Horretarako, kontuan hartzen da:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Arau morfosintaktikoen erabilera zuzena.</li> <li>• Ortografiaren erabilera zuzena.</li> </ul>

- *3. idatzizko proposamena: berridazketak.* Egitura morfosintaktikoei buruzko ezagutza idazmenaren barruan ebaluatu da, berridazketen bitartez. Hamabi berridazketa daude koaderno bietan, beraz, ikasle bakoitzak sei egin behar izan ditu. Berridazketan, loturen aldaketak edo esaldien beste era batean ipintzearen ondorioz suertatu da egitura idatzi behar izan dituzte.

Jarduera itxia denez, berridazketa bakoitzak bere erantzun zehatza bazuen.

### 1.2.3. Entzumena

Trebetasun hau ebaluatzeko hiru jarduera desberdin erabili ditugu. Testuak errealak zein moldatuta izan dira, hortaz, grabazio bereziak osatu dira kasu batzuetan eta beste batzuetan, irratitik atera dira. Hiru jarduerak B1 mailakoak badiara ere, zailtasun maila zehatzak izan dituzte, lehenengoa errazena, bigarrena apur bat zailagoa eta hirugarrena zailena.

- *1. jarduera: bineta zuzena hautatu.* Ikasleek aztertu behar izan dituzte proban dauden sei binetak; ondoren, testua entzuten eta bineta zuzena hautatu behar izan dute. Ahozko testuak oso errazak izan dira eta egoerak beraien ingurukoak eta egunerokoak.
- *2. jarduera: hutsuneak bete.* Ikasleek, hutsunez dagoen testua irakurri ondoren, entzun behar izan dute ahozko testua eta hutsuneak bete. Ulermena ez da hitzez-hitzezkoa, hau da, idatzita duten testua eta entzuten dutena ez datoz bat hitzez hitz, beraz oso adi egon behar dira hutsuneak ondo betetzeko. Bi eredu egin dira, biak irratitik hartuta. Bata, zuhaitz mota bati buruzkoa eta bestea "zaratak" gaiari buruzko azalpena. Bi kasuetan ez dira testu espezialduak edo teknikoak izan baizik eta arruntak.
- *3. jarduera: erantzun anitzeko galderak.* Galderak irakurri ondoren, testua entzuten dute eta erantzun egokia hautatu behar dute. Kasu honetan ere, testuak errealak izan dira, irratitik hartutakoak. Gazta egiteko eraz bata eta eguraldiaren iragarpenaz bestea. Azken hau aurrekoa baino zailagoa izan arren, ez dira izan kasu honetan ere, testu teknikoak.

Testu guztiak bi aldiz entzun izan dituzte.

### 1.2.4. Mintzamena

Trebetasun hori ebaluatzeko hiru jarduera desberdin erabili ditugu: aztertzailearekin elkarrizketa, azalpena eta ikasle-en arteko elkarrizketa.

- *Elkarrizketa.* Aztertzaileak ikasleen gertuko gaiet buruzko galdera zuzenak egin izan dizkie: euren bizimodua, ikas-tetxeko esperientziak, oporrak, txikitako kontuak...  
Jarduera honetan ziurtatzen da aztertzailearen galderak ulertzen dituztela eta gai direla zuzen eta erraztasunez erantzuteko. Bestalde, neurtzen da ikasleak gai diren oraingoaz eta lehen aldiaz mintzatzeko (aditzaren denborak eta denbora sailkatzeko tresna linguistikoak ondo erabilia), informazio orokorra zein zehatza emateko, gerorako planak adierazteko, etab.
- *Azalpena.* Aurrez zio bat ipinita (marrazki bat) deskribatu egin behar izan dute. Hau da, oinarrian, eskatzen zaiena, gai izatea ikusten dutena deskribatzeko. Ondoren, gai badira, ahal dute hori lotu beraien esperientziekin eta, marrazkiaren gaia abiapuntua hartuta, horretaz mintzo, informazio gehiago emanez.
- *Ikasleen arteko elkarrizketa.* Aldez aurretik gai bat emanda, ikasle-bikoteak elkarrizketa garatu behar izan du. Ikasle bakoitzak erakutsi behar izan du elkarrizketa sinple bat aurrera eramateko gai dela, komunikazioaren oso oinarritzko aspektuak kontuan izanda (hitza ematea, hitza hartzea, besteak esaten duena norberaren diskurtsoan sartzea, etab.). Bestalde, atal horretan ikasleak bere iritzi eta aburuen alde argudiatu behar izan du edota beste iritzi edo ikuspuntu batzuen kontrako argudioak eman, adostasun batera iristea eskatzen ez zaien arren.

Ebaluatzeko irizpideak lau multzotan adierazten dira, hauexek:

- **AUTONOMIA:** irizpide honek ikaslearen mintzamenaren independentzia neurtzen du, esate baterako, galderei ea "bai" ala "ez" bakarrik erantzuten dien edo, ostera, ea luzatzen den erantzunetan; ea laguntzarik gabe hitz egi-ten duen ala laguntza behar duen mintzatzeko, etab.
- **INTERAKZIOA:** entzundakoari jarraipena ematen dion, parte hartzen duen eta noizik eta behin parte hartzen konbidatzen duen, elkarrizketa hasi eta hitza ondo hartzen duen...
- **HITZ JARIOA ETA AHOSKERA:** irizpide honek hitz egiteko erraztasunaz informatzen digu: diskurtsoaren abiadura eta luzera, zalantzak, geldioneak, etab. Hortaz, ikaslea mintzaldia jarraian egiteko gai den aztertzen da. Ahoskeran, hitzen ebakera eta doinua neurtzen dira irizpide honen bidez eta ahoskera dela medio, ondo ulertzen zaion.
- **ADIERAZPEN MAILA:** testuinguruan egoki kokatzen den eta gaiari ondo heltzen dion neurtzen da, bai eta ideiak nola azaltzen dituen, era ordenatu batean edo burura etortzen zaizkion bezala. Diskurtsoaren antolamendua azter-tzen da (koherentzia). Eraginkortasun orokorra jardueran.
- **GRAMATIKA ETA LEXIKOA:** irizpide honek kategoria gramatikalak, lexikoa zein egitura sintaktikoak neurtzen ditu. Deklinabideak, aditz laguntzaileak, aditzaren denborak... kontuan hartu dira. Sintaxiari begira, ea gai den esal-di luzeak osatzeko edo, aldiz, estilo telegrafikoa daukan...(koherentzia). Lexikoa aberatsa, egokia eta zehatza den ebaluatzen da.

Irizpide bakoitzak bost maila ditu: oso ondo, ondo, nahikoa, gutxi eta oso gutxi.

Hona hemen aipatu dugun trebetasunen koadro orokorra:

	Trebetasunak	Testuak	Item kopuruak, jarduera motak eta zuzentzeko irizpideak
Idatzia	IRAKURMENA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Dibulgaziozko azalpen testua.</li> <li>• Dibulgaziozko azalpen testua.</li> <li>• Komunikabideetako iragarkiak: testu laburrak.</li> <li>• Iragarkiak: testu laburrak.</li> <li>• Mota desberdinetako 3 testu labur.</li> <li>• Mota desberdinetako 3 testu labur.</li> <li>• Hizkuntza ezagutza orokorra esaldiaren mailan.</li> </ul>	8 (erantzun anitzekoak) 8 (erantzun anitzekoak) 4 testu elkartzeko 4 testu elkartzeko 3 (erantzun anitzekoak) 3 (erantzun anitzekoak) 5 (aukera anitzekoak) 5 (aukera anitzekoak) Zenbait galdera testuetan (aukera anitzekoak)
	IDAZMENA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Mezu labur bat.</li> <li>• Instrukzio laburrak.</li> <li>• Gutun bat.</li> <li>• Narrazio bat.</li> <li>• Egitura morfosintaktikoak (berridazketak).</li> </ul>	2 zuzentzeko irizpide 2 zuzentzeko irizpide 5 irizpide 5 irizpide 6 (zuzentasun mugatua)
Ahozkoa	ENTZUMENA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Testu laburrak.</li> <li>• Testu laburrak.</li> <li>• Testua hutsuneak betetzeko.</li> <li>• Testua hutsuneak betetzeko.</li> <li>• Testu luzea.</li> <li>• Azalpen eta argudiozko testua: elkarrizketa.</li> </ul>	6 (aukera anitzekoak) 6 (zuzentasun mugatua) 7 (aukera anitzekoak) 6 (aukera anitzekoak) 5 (aukera anitzekoak) 6 (aukera anitzekoak)
	MINTZAMENA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Elkarrizketa.</li> <li>• Deskribapena/Azalpena.</li> <li>• Ikasleen arteko elkarrizketa.</li> </ul>	7 irizpide

Jarduera horiek guztiak 2 koadernoetan banatuta daude: A eta B, beraz, bi proba eredu egon dira. Bi eruedetan, proba motak berdinak dira, ez ordea, proba horien edukia.

Koaderno bakoitzak hiru zati izan ditu: Lehenengoa entzumenarena; bigarrena idatzizko lehenengo atalarena eta hirugarrena, idatzizko bigarren atalarena.

	A AUKERA	B AUKERA
Entzumena	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Testu laburrak. 6 item</li> <li>• Azalpenezko testua: hutsuneak bete. 7 item</li> <li>• Azalpenezko testua (erantzun anitzeko galderak). 5 item</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Testu laburrak. 6 item</li> <li>• Azalpenezko testua: hutsuneak bete. 6 item</li> <li>• Azalpenezko testua: erantzun anitzeko galderak. 6 item</li> </ul>

Ikasleei A eta B koadernoak banatu zaizkie, hurrenez hurren; beraz, ikastalde bakoitzeko ikasleen erdiak egin du A koaderno eta beste erdiak B koaderno. Entzumenaren ariketak berdinak izan dira bi koadernoetan, ahoko testuak talde osoak aldi berean entzun baitituzte.

Nahiz eta jarduerak oso antzekoak izan, kasu batzuetan galdera kopurua aldatu da, galderen edo testuaren zailtasuna direla medio.

	A AUKERA	B AUKERA
<b>Idatzizko 1. koaderno</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Irakurmena: testu luzea (EAG). 8 item</li> <li>• Idazmena: testu laburra (mezua). Testu 1</li> <li>• Irakurmena: Testuak lotu. 4 item (komunikabideetako testua)</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Irakurmena: testu luzea (EAG). 6 item</li> <li>• Idazmena: testu laburra (instrukzioak). Testu 1</li> <li>• Irakurmena: Testuak lotu. 3 item (iragarriak)</li> </ul>
<b>Idatzizko 2. koaderno</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Idazmen luzea: narrazioa. Testu 1</li> <li>• Hizkuntza ezagutza. 5 item (irakurmenaren barruan)</li> <li>• Irakurmena: 3 testu labur</li> <li>• Esaldiak berridatzi. 6 item (idazmenaren barruan)</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Idazmen luzea: gutuna. Testu 1</li> <li>• Hizkuntza ezagutza. 5 item (irakurmenaren barruan)</li> <li>• Irakurmena: 3 testu labur.</li> <li>• Esaldiak berridatzi. 6 item (idazmenaren barruan)</li> </ul>

### 1.2.5. Galdera-sortak

Euskarari buruzko edukiaz gain, bi galdera-sorta egin genituen, ikasleen intereseko datuak lortzeko asmoz. Galdera-sorta bat proba amaitzean egiten zitzaien ikasleei; bestea ikastetxeko zuzendaritzako taldekideek bete behar izan dute.

- *Ikaslearen galdera-sortak* 30 galdera ditu. Itaunduak hiru esparru desberdinei buruzkoak dira. Lehengo esparrua ikaslearen familia da, bigarrena zenbait ikasketen eta ikastetxearen ezaugarriak, eta hirugarren esparruan ikasgelan euskara arloa nola lantzen duten aztertzen da.
- *Ikastetxeko arduradunek* zenbait galdera bete behar zituzten: euskara eta beste hizkuntzen ordu kopuruei buruzkoak.

### 1.2.6. Ebaluazioa

Proba ebaluatzeko, diseinuan bezalaxe, *Europako Erreferentzi Markoa* eta Cambridgeko PET proba hartu dira eredu. Horregatik, probaren jardueren balioa era oso antzekoaz neurtzen da.

Jarduerak honako balioak dituzte:

- *Ikasleek probaren %70 gainditu behar izan dute proba osoa gainditzeko.* Langa horrek maila altua markatzen du, baina bat dator probaren diseinu orokorrarekin eta bertan garatutako jarduerekin.
- *Lau trebetasunek (entzumena, irakurmena, idazmena eta mintzamena) balio berbera dute,* prozesu komunikati-boaren lau oinarriko zutabeak baitira.

Zehatz dezagun trebetasun bakoitzaren balioa, kontuan edukiz bakoitzaren jarduerak eta galderak:

- **Entzumena:** *Balioa berdin banatzen da hiru galdera multzoen galderen artean. Atal honetan, 36 galdera topatzen ditugu hiru jardueratan banatuta, aurretik ikusi den legez; ikasle bakoitzak 18 galdera egin behar izan ditu. Galdera guztiek dute balio berbera eta denen artean entzumena atalaren nota osatzen dute.*
- **Irakurmena:** *Balioa berdin banatzen da galderen artean. Atal honetan 39 galdera daude guztira; proba ereduaren arabera, ikasle batzuek 18 galdera egin behar dituzte eta besteek 21 (zailtasunaren arabera antolatuta dago). Kasu honetan ere, galdera guztiek balio berbera izan dute.*
- **Idazmena:** *Testu laburren ekoizpenaren balioa testu luzeen erdia da; bestalde, esaldien berridazketak testu laburren ekoizpenaren erdia balio du. Sailkapen honek adierazten ditu jardueren arteko desberdintasunak, ez bakarrik idazketaren kantitatean baizik eta zailtasun mailan ere.*
- **Mintzamena:** *Atal honetarako bost irizpide hartu dira kontuan eta balio berbera dute bostek.*



## 1.3. Aplikazioa

### 1.3.1. Proba pilotua

Euskara probaren aplikazioa egin aurretik, proba pilotu bat gauzatu genuen. Proba horretan hizkuntzaren lau trebetasunak ebaluatu dira, hots, probak abildade guztiak neurtzen zituen, mintzamenarena barne. Pilotua egin izan duten ikasleak A, B eta D ereduak dira. Proba horren egitasmo nagusia proba beraren jardueren funtzionamendua bermatzea izan da.

Pilotua aplikatu eta horren emaitzak estatistikoki aztertu ondoren, probaren zenbait atal moldatu egin genuen, behin betiko proba egokitzeko.

### 1.3.2. Behin betiko aplikazioa

Proba Lehen Hezkuntzako 6. mailako 103 ikastaldetan egin da, 2006. urteko urri eta azaro bitartean, proba pilotuaren berrikuntzak ezarri ostean. Aplikazioa aurrera eramateko, ISEI erakundeak koordinatutako lantalde bat osatu zuen: ISEI bertako langileez gain, kanpoko laguntzaileen kolaborazioa izan genuen.

Proba idatzia pasatzeko, 14 langile kontratatu dira, 7 Bizkaian, 4 Gipuzkoan eta 3 Araban. Probaren Mintzamina atala egiteko Berritzeguneetako 12 aholkulariren laguntzaz baliatu ginen, bai eta proba hori zuzentzeko ere, lagintze horretan adituak behar dira eta. Halaber, eta aurrerago zehaztuko den legez, Idazmena proba zuzentzeko aditu horien laguntza erabili da. Laguntzaile guztiek egitekoari buruzko formazioa jaso izan dute.

Aplikatzaileez aparte, zenbait kontrolatzaile egon dira aplikazioan, prozesuaren garapena aztertzen.

Ikastetxeetara joan aurretik, zuzendariei gutun ofizial bat bidali zitzaion irailan, prozesuaren berri emanez (hori izan da lehenengo kontaktua ikastetxeekin). Ondoren, dei baten bidez, informazioa egiaztatu eta bilera bat egiteko data adostu dira. Bilera horretan aplikazioaren zehaztasun guztiak eman zitzaizkien (probaren helburuak, probaren ezauzgarriak, ordutegiak, erabilitako baliabideak...).

Proba guztiak egindakoan, zuzenketari ekion zitzaion. Behin datuak lortu eta gero, horien analisi zein azterketaren prozesuari hasiera eman zitzaion.

### 1.3.3. Lagina

#### Esparrua

Laginari begira, Euskal Autonomia Erkidegoa izan da ebaluazio honi zegokion geografia esparrua. Kontuan hartu da populazioa: 2006-2007 ikasturteko Lehen Hezkuntzako 6. mailan matrikulatutako ikasle guztiak.

Erreferentziako populazioa	A eredia		B eredia		D eredia		Guztira	
	K	%	K	%	K	%	K	%
<b>Publikoa</b>	688	4,4	1.304	8,3	5.403	34,4	7.394	47,1
<b>Itunpekoa</b>	1.575	10,0	3.541	22,5	3.206	20,4	8.322	52,9
<b>Guztira</b>	2.263	14,4	4.845	30,8	8.609	54,8	15.716	100,0

#### Lagin mota

Lagina Eustat erakundeak egin zuen zoriz, eta kontuan hartu dira honako irizpideak:

- Ikastetxeen geruzak: A, B eta D hizkuntza ereduak eta bi hezkuntza sareak (publikoa eta itunpekoa).
- Ikastetxe bakoitzean hizkuntza eredu bat baino ez da aukeratu —beti zoriz—, esaterako, ikastetxe batek Lehen Hezkuntzako B ereduko talde bat edo gehiago baldin bazituen, proba egiteko bakar bat aleatorioki aukeratu izan da.
- Lagina bi une desberdinetan aukeratu genuen. Hasiera batean, ikastetxeak aleatorioki aukeratu dira, geruzen araberak. Ondoren, aukeraturako ikastetxe bakoitzean Lehen Hezkuntzako seigarren mailako gela bakar bat aukeratu da, zozketa bidez.
- Euskara proba Lehen Hezkuntza 6. mailako 103 taldetan aplikatu genuen.

Ikastetxeen lagina	A ereduak		B ereduak		D ereduak		Guztira	
	K	%	K	%	K	%	K	%
<b>Publikoa</b>	17	16,5	21	20,4	16	15,5	54	52,4
<b>Itunpekoa</b>	14	13,6	18	17,5	17	16,5	49	47,6
<b>Guztira</b>	31	29,1	39	37,8	33	32,0	103	100,0

## Ikasleak

Aukeraturako ikasgeletako ikasle guztiek lagina osatzen izan dute. Hala ere, zenbait ikasleren emaitzak ez dira kontuan hartu, esaterako:

- Curriculum Egokitzapen Indibidualdua (CEI edo ACI deitutakoak) esanguratsua duten ikasleak.
- Hizkuntza ezagutzen ez duten etorkinek edota Hezkuntza Sistemari urte bete baino gutxiago daramatenak.
- Euskara gabeko ikasle "salbuetsiak" ("exentoak").
- Bestelako arrazoiak: proba egin ezin izan dute ikasleak (ikastetxeko lekualdaketa...).

Datorren koadroan zera agertzen da: bakarrik proba egin duten ikasleak eta hortaz, B1 probaren emaitzak aztertzean kontuan hartu ditugunak. Alboratuta izan direnak, aipaturako arrazoiengatik eta probaren egunean egon ez direnak, ez dira jada agertzen.

Lortutako ikasleen lagina	A ereduak		B ereduak		D ereduak		Guztira	
	K	%	K	%	K	%	K	%
<b>Publikoa</b>	133	8,3	246	15,4	255	15,9	634	39,6
<b>Itunpekoa</b>	302	18,9	334	20,9	329	20,6	965	60,4
<b>Guztira</b>	435	27,2	580	36,3	584	36,5	1.599	100,0

Datorren koadroan datuak ponderatuak agertzen dira:

Datu haztatuak <sup>5</sup>	A ereduak		B ereduak		D ereduak		Guztira	
	K	%	K	%	K	%	K	%
<b>Publikoa</b>	70	4,4	133	8,3	550	34,4	752	47,1
<b>Itunpekoa</b>	160	10,0	360	22,5	326	20,4	847	52,9
<b>Guztira</b>	230	14,4	493	30,8	876	54,8	1.599	100,0

Esan den bezala, probaren atal guztiak burutu dituzten ikasleak (mintzamina salbu) bakarrik hartu dira kontuan.

(5) Kalkulu guztiak datu haztatuekin egin dira, ikasleen datuak aurkezten direnean zenbaki osoak agertzen dira zenbaki hamartarrik gabe. Hori dela eta taula batzuetan batuketak ez dira zuzenak kontu garbiketarik.

## Probatik kanpo geratu diren ikasleak

Aurreko atalean azaldu den legez, proba osoa burutu izan dute ikasleak 1599 izan dira. Dena den, hasierako ikasle kopurua 1.858koa izan da; horietatik 177 alboratuak izan dira probaren irizpide zehatzak direla eta (CEldunak, etorkin berriak, euskara gabekoak...). Beraz, 1.681 ikasle geratu dira, %90,5. Hurrengo taulan, kanpoan geratu diren ikasleen datuak ikus ditzakegu:

<b>Ikasleak</b>	<b>Kopurua</b>	<b>%</b>
<b>Proba egin ez dutenak</b>	177	9,5
<b>Proba egin dutenak</b>	1.681	90,5
<b>Guztira</b>	1.858	100,0

1.681 ikasle horietatik zenbait ez da probaren egunean azaldu (gaixorik zeuden, berandu iritsi dira, eta abar) edo ez dute amaitu eragozpenak izan zituztelako. Hori dela eta, lagin orokorra 1.599 ikaslerekin osatu da.

Ondoko taulan, proba egin duten ikasleak ehunekotan agertzen dira, baita proba egin ez dutenak ere. Egin ez dutenen ehunekoa handiagoa da A erudian besteetan baino eta, halaber, kopurua zabalagoa da ikastetxe publikoetan itunpekoetan baino.

<b>Geruzak</b>	<b>Proba egin ez dutenak (%)</b>	<b>Proba egin dutenak (%)</b>
<b>A publikoa</b>	44,8	55,2
<b>B publikoa</b>	11,2	88,8
<b>D publikoa</b>	4,9	95,1
<b>A itunpekoa</b>	13,5	86,5
<b>B itunpekoa</b>	11,2	88,8
<b>D itunpekoa</b>	5,2	94,8

Datuak aztertuz gero nabaria da A publikoan dagoen ehunekoa. Geruza horretan %44,8 ikasleak alboratuak izan dira; hauexek dira horren arrazoiak: %30 inguruan ikasle etorkinak dira; hauetatik, batzuk etorri berriak; beste batzuk euskara gabekoak (euskara gabekoak edo "exentos") edo CEldunak. Hala ere esan behar dugu etorkinen arteko %17,4k proba egin dutela, bi urte baino gehiago baitaramatzen gure Erkidegoan eta euskara arloa ikasi dute.

Gure Hezkuntza Sistemaren euskaratik "salbuetsiak" direnak kontuan hartu dira ere lagina osatzerakoan. Gehienak A publikoan daude, hain zuzen ere, A publikoaren ikasleen %32k ez du proba egin, ikasle horiek euskara gabekoak direlako. Horietatik ehuneko %2,9 ez dira etorkinak baina bai euskara gabekoak. Datuak ikusita, esan daiteke gure Erkidegoan euskara ikasten ez dutenen kopurua altua dela, batez ere Hezkuntza Sistema elebidun baterako eta kontuan izanda neurri hori salbuespenezko kasuetarako pentsatuta dagoela.

## Sexuen araberako lagina

Ikasleen sexuaren arabera, lagina horrelakoa da: 1.599 ikasletik 793 neskak dira eta 806 mutilak.

<b>SEXUA</b>	<b>Ikasleen lagina</b>	
	<b>K</b>	<b>%</b>
<b>Neskak</b>	793	49,6
<b>Mutilak</b>	806	50,4
<b>Guztira</b>	1.599	100,0

Kopurua oso orekatua dago, ikasleen sexuari dagokionean.

## Familiaren hizkuntza

Probaren emaitzak aztertzerakoan, sare, sexu eta hizkuntza ereduz gain, egiaztatu dugu ikasleek etxean erabiltzen duten hizkuntzak eragin handia duela. Datu hori ikasleei egindako galdera-sorta baten bitartez lortu da. Galdera-sorta horretan horrelako datuak eskatu dira:

- Zein hizkuntza erabiltzen duzu zure gurasoekin? (Euskaraz / Gaztelaniaz/ Beste batez).
- Zein da etxean erabiltzen duzun hizkuntza? (Beti euskaraz / Gehienbat euskaraz / Gehienbat gaztelaniaz / Beti gaztelaniaz).

Ikasleen emandako erantzunen arabera, euskararen erabilpena bi ataletan banatu ditugu:

- *Euskara*: aitak edo/eta amak euskaraz hitz egiten dute eta etxean beti edo gehienbat hitz egiten dute euskaraz.
- *Euskararik ez*: gurasoek ez dakite euskaraz eta/edo etxean ez da euskaraz mintzatzen (gaztelaniaz hitz egiten dutenak).

Hona hemen datu horien taula:

Geruzak	Euskararik ez		Euskara		Guztira	
	K	%	K	%	K	%
<b>A publikoa</b>	70	99,6	0	0,4	70	100,0
<b>B publikoa</b>	125	93,9	8	6,1	133	100,0
<b>D publikoa</b>	343	62,4	207	37,6	550	100,0
<b>A itunpekoa</b>	159	99,3	1	0,7	160	100,0
<b>B itunpekoa</b>	314	87,0	47	13,0	360	100,0
<b>D itunpekoa</b>	201	61,7	125	38,3	326	100,0
<b>Guztira</b>	1.211	<b>75,7</b>	388	<b>24,3</b>	1.599	<b>100,0</b>

Taulan agertzen den bezala:

- Ikasle euskaldunek, D ereduan eskolaratzean, ez dute desberdintasun handirik erakusten: %37,6 publikoan eta %38,3 itunpekoan.
- Beste %14,1, B ereduan eskolaratzen da, baina D ereduan ez bezala, portzentajea desberdina da. B itunpekoan %12 dago eta B publikoan %2,1.
- A ereduan, %0,4 agertu da lagin osoan euskaraz hitz egiten duen ikasleak (hots, bi ikasle guztira).

Hori dela eta, B ereduari dagokionez, kontuan izan behar dugu banaketa desberdina izango dela ikastetxe sareetan: ikasle euskaldun kopuru handiagoa da itunpeko ikastetxeetan.

Bestalde, eta aurreko taulan agertu ez arren, interesgarria da adieraztea etxean euskaraz hitz egiten duten ikasleen %85,5 D ereduetan eskolaratzen dela. Sareari dagokionez, euskaldun gehienak eskola publikoetara joaten dira: %53,3; itunpekoetara, ordea, %32,2.

## Mintzamena

Horrelako ebaluazio batean —eskolako adin horretako ikasleei, kanpoko maila bat ezarrita eta abar—, mintzamena lehendabizikoz B2n ebaluatu da (Euskara mailaren ebaluazioa DBHko 4. maila, 2004), horregatik ebaluazio hori gida moduan hartu da eta zehatz-mehatz landu dira diseinua, aplikazioa eta zuzenketa.

Ebaluazio osoko lagina hartu beharrean, azpi-lagin bat hautatu da: **24** talde. Talde bakoitzeko 16 ikasle gehienez hartu dira. Hautaketa hauek ausaz egin dira. Guztira **308** ikasle izan dira. Horretaz gain, geruza bakoitzeko 4 ikastetxe hartu dira —aukeraketa aleatorioa da beti—.

Bestalde, mintzamenaren laginatik **168** ikasleren azpi-lagin bat hautatu da zoriz; azpi-lagin horren emaitzak bat datoz lagina orokorraren emaitzekin proba idatzietan, horrela, lortzen da pronostikoaren balio erreala. Laginaren kopurua dela eta, mintzamenarekin ematen diren emaitzak tendentziakoak dira, balioa ezin da behin betikotzat hartu.

Ikastetxeetan eguna, orduak eta gainontzeko baldintzak adostu ondoren, probaren egunean ebaluatu behar izan dira ikasleak aparteko gela batean egon dira. Proba egin den gelan bi aztertzaile egon dira eta bideo-kamara batek saio guztiak grabatu zituen (ondorengo zuzenketa bikoitza egin ahal izateko).

Alfabetikoki bildutako ikasleek bikoteka egin izan dute proba. Ebaluazio saioetan egon dira bi aztertzaileek eginkizun hauek zituzten: bata saioa bera eramaten zuen (ikasleari galderak egin, beraien arteko elkarriketa bideratu, etab.) eta besteak bitartean kalifikazioak ipintzen zituen. Saioa amaitzean, kalifikazioak bi aztertzaileen artean adosten dira.

Prozesu hau bi taldetan egin da, hau da, atsedenaldi aurretik 16 ikasletatik 8 ebaluatu dira, eta beste 8ak ondoren. Bikote bakoitzak 15/20 minutu ematen zituen proba egiten. Bikotea proba egiten ari den bitartean, gainontzeko ikasleak aparteko gela batean zeuden laguntzailearekin. 10 minutu zituzten mintzamen probaren materiala aztertzeko.

Honako hau izan da mintzamina probaren prozesu osoa:

- Hasiera batean, 16 ikasleak aparteko gela batera eraman dira. Guztiei proba zertan zetzan azaltzen genien (hiru atal dituela, bikoteka egingo zutela, bideoz grabatuak izango zirela, eta abar). Handik bikoteka ateratzen hasi behar izan dute proba egitera.
- Lehenengo ikasle bikoteari gutunazal bat ematen diogu; bertan bi ikasleek gai bera dute, nahiz eta ikuspuntu desberdinetatik ikusita. Proba egitean, gai horri buruz hitz egin behar dute beraien artean baina alde aurretik, ezin dute gaia elkarrekin prestatu. Baimena izan dute, bakoitzak bere aldetik oharrak hartzeko edo gidoi bat egiteko, gero euskarri gisa erabiltzeko.
- Lehenengo bikotea ebaluazio gelara sartu da eta saioa hasten da. Hiru atalak egiten dira eta, amaitzean, bere ikasgelara itzultzen dira biak.
- Saioan zehar, aztertzaile batek ardura du eta besteak notak jartzen ditu. Saioa amaitzean, ipinitako balorazioak adosten dira bi aztertzaileen artean.
- Zuzenketa egin eta gero, bigarren bikotea sartzen da, eta horrela amaitu arte.

Aztertzaile eta zuzentzaileak gai horretan espezialduak izan dira (ISEI-IVEI eta Berritzegunetako adituak), saioak eramateko eta mintzaldiak zuzentzeko horrelako perfila beharrezkotzat jo da eta. Horietaz gainera, laguntzaile bat egon da ikasleen antolakuntza eta saioen bilakaera bideratzeko. Horiek guztiek formazio zenbait saio jaso dute proba era egokian aurrera eramateko.

Aipatu den legez, saioan bertan lehenengo zuzenketa egin da bi aztertzaileen artean. Ondoren, bideo grabazioen gainean, bigarren zuzenketa egin da.

### 1.3.4. Datak eta prozedura

Ebaluazioaren aplikazioa 2006ko azaroan egin da.

Aplikazioa bi fasetan egin da: goiz bat hartu dugu proba idatzia egiteko (entzumenarena barne) eta beste goiz bat mintzamina egiteko.

Lehenengo fasea goiz batean egin da honako eskema jarraituz: entzumena eta lehenengo koaderno, atsedenaldi aurretik; bigarren koaderno eta galdera-sorta atsedenaldi ostean. Proba osoa egiteko hiru ordu behar dira. Hiru ordu horiek goizean banatu dira ikastetxe bakoitzeko egoera aztertu eta gero.

16 ikaslerekin mintzamen proba egiten bi ordu eta erdi ematen genuen, gutxi gorabehera.



EMAITZA OROKORRAK

**2**





## 2. EMAITZA OROKORRAK

Hemendik aurrera emango ditugun datu guztiak ponderatuak edo haztatuak daude. Eragiketa honen bidez emaitzen interpretazio zehatzagoa azaldu nahi izan dugu. Ponderazioa egiteko beharrezkoa da honako korrespondentzia kalkulatzea: proban parte hartu duten geruza bakoitzeko (sarea eta hizkuntza ereduak) ikasleen kopurua eta euskal hezkuntza sisteman Lehen Hezkuntzako seigarren mailan geruza bakoitzak duen kopuru errealaren arteko korrespondentzia. Hortaz, hasiera batean ikastetxe orori balio berbera eman diogu. Gero ikastetxe bakoitzaren balioa ikastetxe horretako ikasleen artean banatu dugu. Azkenik, datuen korrespondentzia egin dugu: ikasleen kopuru orokor haztatu bat etortzeko laginaren kopuruarekin, hau da, proba orokorra egin duten 1.599 ikasleekin, edo mintzamenean parte hartu duten 168 ikasleekin. Horrela, probak osatu dituzten 1.599 ikasle horiek zehatzago ordezkatzan dute Lehen Hezkuntzako 6. mailan dauden guztiak (2006ko maiatzean Lehen Hezkuntzako 5. mailan 15.720 ikasle zeuden eskolatuak)<sup>6</sup>.

Izan ere, txosten honetan datuen arteko *alde esanguratsua* dela esaten denean, datuen konfiantza-estatistiko maila %95ekoa dela esan nahi da beti; gainontzeko kasuetan aldea dagoela edo emaitza bat beste bat baino handiagoa edo txikiagoa dela azaltzen denean, alde hori ez da esanguratsua lehen adierazitako maila estatistiko berean, baizik eta antzeman diren emaitzen aniztasuna islatzen du soilik.

Kontuan hartzekoa da proban bi lagin erabili ditugula. Ondoan bereiziko ditugu:

- Alde batetik, lagin orokorra; ikasle hauek hiru trebetasunetan aritu dira: *entzumena*, *irakurmena* eta *idazmena*.
- Beste aldetik, *Mintzarena* egin duten ikasleek osatzen duten azpilagina. Ikasle hauek lau trebetasunetako jarduerak burutu dituzte (*mintzarenaz* gain, aurreko hirurak).

Emaitza orokorrak aztertzeko orduan, lau trebetasunak hartu dira kontuan. Horretarako, *mintzarena* proba egin duen ikasleen azpilagin bat jaso da, era aleatorioan. Azpilagin horren emaitzak bat datoz proba globalaren emaitzeekin, horrela, lortzen da pronostikoaren balio erreal.

Mintzarena barne ematen diren emaitzak joerakoak dira, balioa ezin da behin betikotzat hartu, baizik eta B1 proba ikasle guztiak egitekotan, emaitzaren hurbilpen zehatz bat.

### 2.1. Ikasleen emaitza orokorrak, mintzarena barne

Hasiera batean, eskaintzen diren emaitza orokorrek lau trebetasunak biltzen dituzte. Azpilagin honek jartzen dituen mugak onartuta —kopurua urria baita— eta ikasleak aleatorioki hautatuak izan badira ere, baldintzak oso murriztak dira, hots, mintzarena barne ematen diren emaitzen inguruko baieztapenak zuhurtziaz hartu behar dira.


Datorren koadroan emaitza orokorren datuak, mintzarena barne, agertzen dira:

Emaitza orokorrak lau trebetasunak hartuta	K	%	% metatua
Gainditu duten ikasleak	82	48,7	100,0
Gainditu ez duten ikasleak	86	51,3	51,3
<b>Guztira</b>	168	100,0	100,0

Hartutako azpilaginetik abiatuta, euskara B1 maila gaingitzen duen ikasle kopurua %48,7 da. Gaingitzen ez dutenen kopurua %51,3 da.

(6) Datu haztatuak ikasleei dagozkie. Beraz, hamartarrak ezabatzeko doitu egin dira. Batzuetan ematen du baturak ez direla zuzenak, baina doikuntza lortzearen egin da.

### 1. grafikoa. B1 Euskara proba: emaitza orokorrak mintzamenarekin



#### 2.1.1. Emaitza orokorrak, mintzamena barne eta hizkuntza ereduaren arabera

Emaitza orokorrek mintzamenarekin eta hizkuntza ereduaren arabera, kontraste handiko ikuspegia ematen dute. Hiru ereduaren arteko aldeak esanguratsuak dira; izan ere, proban eskatzen den maila A ereduaren %2,0 baino ez du lortzen; B ereduaren %39,3 eta D ereduaren indizea %66,9ra iristen da.


#### Emaitza orokorrak mintzamena barne eta hizkuntza ereduaren arabera

Hizkuntza ereduak	K	Gaingitu dutenak
A ereduaren	0	2,0*
B ereduaren	21	39,3
D ereduaren	60	66,9

\*K 0 izan arren, ponderazioaren ondorioz, emaitzak ahal dira sortu.

Hona hemen datuen grafikoa:

### 2. grafikoa. B1 Euskara proba: emaitza orokorrak mintzamenarekin hizkuntza ereduaren arabera



Espero zitekeen bezala, ikasleak eskolatuak dauden hizkuntza ereduaren eragina faktore erabakigarria izan da. D ereduaren emaitza nabarmentzen da, batez bestekoa ederki gaingitzen baitu; B ereduarena, ordea, A ereduaren azpitik

geratzen da. Gainera, B eta D ereduaren arteko aldea nabaria da, 27,6 puntuetaraino helduz. Beste aldeko muturrean A ereduak du, gaitutuen kopurua estatistikoki oso eskasa izan baita. Datu honen erabatekotasunak eta A ereduaren eta besteen artean irekitzen den amildegia argi erakusten du eredu horrek ez diela ikasleei euskarazko oinarriko trebetasunak garatzea bermatzen.

2006. urtean egin den B1 probaren emaitzak 2004. urtean B2 probaren emaitzekin erkatzea interesgarria dela iruditu zaigu. Hala ere, konparazioa egin ahal izateko proba desberdinak direla izan behar da kontuan. Diferentzien artean hiru alde horiek dira aipagarrienak:

- B2 proban, B eta D ereduaren soilik egin zen eta B1 proban, berriz, A ereduak ere egin dute.
- Hezkuntza etapako ikasle desberdinek hartu dute parte: B1ean 6. mailako Lehen Hezkuntzako ikasleak izan dira eta B2n Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitzear zeudenak.


Lehenengo ezaugarri bietatik ondorioztatu behar da konparazioak ez duela erabateko baliorik, joera bat baino ez baitu adierazten. Datuak konparagarriak izateko, B1 probatik A ereduak ikasleek lortutako emaitzak kendu behar genituen eta batez bestekoa birkalkulatu behar genuen.

Ondoko koadro eta grafikoa B1 eta B2 probetan B eta D ereduak ikasleen emaitzak aurkezten ditugu; kontuan izan emaitzak mintzamenaren barne dutela:

Emaitzak mintzamenaren barne	B1 (B+D ereduak)	B2 (B+D ereduak)
Gaitutu duten ikasleak (%)	56,7	53,7
Gaitutu ez duten ikasleak (%)	43,3	46,3

Hona hemen datuen grafikoa:

**3. grafikoa. B1 Euskara proba: emaitza orokorrak mintzamenarekin B1 eta B2 probetan**



Datuek erakusten dute bi probetako batez besteko emaitzen koherentzia. Aldea oso txikia da: %3,0.


Datorren koadro eta grafikoa bi proben arteko desberdintasunak aztertzen dira, hizkuntza ereduak hartuta. Hasieran ematen diren datu hauek mintzamenaren barne dute:

**Emaitzak, mintzamenaren barne, ereduaren arabera (%)**

Hizkuntza ereduak	B1	B2
B ereduak	39,3	32,6
D ereduak	66,9	68,0
Batez bestekoa	56,7	53,7

Hona hemen datuen grafikoa:

**4. grafikoa. B1 eta B2: emaitza orokorra mintzamenarekin (B+D ereduak)**



Oro har, bi probetan joera antzekoak igartzen dira: bietan B ereduaren batez bestekoa baxuagoa da D ereduarena baino.

B1 eta B2 proben arteko desberdintasunak ez dira oso nabarmenak: B2ko B ereduaren emaitzak %6,7 baxuagoak dira; D ereduan, ordea, B1 baino %1,1 altuagoa dauka B2 probak.

Hau da, Lehen Hezkuntzaren amaieratik DBH bukaerara arte ikasleen emaitzek ondoko joera orokorra adierazten dute: B ereduan egoera nahiko egonkorra da eta D ereduan, aldiz, ikasleek hobera egiten dute.

## 2.2. Ikasleen emaitza orokorrak mintzamina gabe


Hemendik aurrera txostenean emango diren datu guztiak hiru trebetasunenak izango dira, hau da, mintzamina kontuan izan gabe. Hortaz, datozen datuetan lagina osoak parte hartu du: 1.599 ikasle horien emaitzak dira.

Datorren koadroan, emaitza orkorrak agertzen dira:

Emaitzak	K	%	% metatua
Gainditu duten ikasleak	611	38,2	100,0
Gainditu ez duten ikasleak	988	61,8	61,8
<b>Guztira</b>	<b>1.599</b>	<b>100,0</b>	

Guztira, 611 ikaslek gainditu dute proba, hau da laginaren %38,2; ondorioz, eskatutako gutxiengo errendimendura iritsi ez diren ikasleak 988 izan dira, %61,8.

5. grafikoa. B1 Euskara proba mintzamina gabe: emaitza orokorrak



Lehenengo emaitza orokorrak (mintzamina barne) eta azken hauek alderatzean, zera geratzen da agerian: gaingituen kopuruan %10,7 puntuen aldea dago. Nahiz eta aldea handia dela eman, antzeko portzentajea sortzen da horrelako probetan: mintzamina sartu edo kendu egitean emaitzak antzeko portzentajeak igo edo jaisten dira. Horrela gertatu izan da beste proba batzuetan, ingelesezko probetan, esaterako edo 2004. urtean egin zen euskarazko B2 proban.

Oro har eta bi kasuetan, gaingitu duten indizea hobeto interpretatzeko, kontuan izan behar dugu ikasleek ez dutela proba aldeztatik prestatu; hori dela eta, emaitza baxuagoa izan daitezke beste ohiko probetan baino.

### 2.2.1. Emaitza orokorrak mintzamina gabe eta hizkuntza ereduaren arabera

Mintzamina gabeko emaitzak ereduaren arabera datozen koadroan eta grafikoan agertzen dira. Ereduen artean agertzen den kontrasteak handia jarraitzen du izaten. Hiru ereduaren arteko aldeak esanguratsuak dira; izan ere, eskatutako maila A ereduako ikasleen %1,0k bakarrik lortzen du, B ereduaren %29,9k eta D ereduaren indizea %52,7ra iristen da.


Emaitza orokorrak mintzamina gabe eta ereduaren arabera:

#### Gaingitu duten ikasleak

	K	%
A ereduak	2	1,0
B ereduak	147	29,9
D ereduak	463	52,7
Guztira	611	38,2

Hona hemen datu horien grafikoa:

### 6. grafikoa. B1 Euskara proba: emaitza orokorrak mintzamenik gabe hizkuntza ereduaren arabera



Mintzamina barne duten emaitzetan bezala, hizkuntza ereduak eragin handia izan du emaitzetan. D ereduak batez bestekoa gainditzen du; B eredua, ordea, batez bestekoaren azpitik geratzen da. Gainera, B eta D ereduaren arteko aldea %22,8 da. A eredukoek %1,0 bakarrik lortu dute, nahiz eta kopurua estatistikoki oso eskasa izan den (2 ikasle baino ez).

Datozen koadroan datu hauek agertzen dira:

- Hasierako zutabean, lagin osoaren datuak, hots, mintzamina alboratuta.
- Hurrengo zutabean mintzamina egin dutenen azpi-laginaren datuak agertzen dira.

Horrela ederki ikus liteke bi neurketen arteko aldea.

	Lagin orokorra		Azpilagina (mintzamina egin dutenek)	
	Mintzamina egin gabe gainditu dutenak		Gainditu dutenak mintzamina barne	
Hizkuntza eredua	K	%	K	%
A eredua	2	1,0	0*	2,0
B eredua	147	29,9	21	39,3
D eredua	463	52,7	60	66,9
<b>Guztira</b>	<b>611</b>	<b>38,2</b>	<b>82</b>	<b>48,7</b>

\*K 0 izan arren, ponderazioaren ondorioz, emaitzak ahal dira sortu.


Bi neurketen arteko aldea, hizkuntza eredu bakoitzean. D ereduaren ageri da alde nabariena: mintzamenarekin egin dutenek %14,2ko tarte atera diote mintzamina egin ez dutenei. B ereduaren txikitu da eta A ereduaren ia ez dago tartetik bi neurketen artean.

### 2.2.2. Emaitza orokorrak mintzamina gabe B1 eta B2 probetan

Datozen koadroan eta grafikoan agertzen diren datuak, lagin osoak dira, hots, mintzamina gabekoak:

Emaitza orokorrak (mintzamina gabe)	B1 (B+D eredukoak)	B2 (B+D eredukoak)
Gainditu duten ikasleak (%)	44,5	47,3
Gainditu ez duten ikasleak (%)	55,5	52,7

7. grafikoa. B1 eta B2 probak: emaitza orokorrak mintzamina gabe




Aldea ez da oso nabarmena (2,8 puntukoa), batik bat probak desberdinak izan direla eta etapa desberdinetako ikasleek egin dituztela kontuan hartuta.

Datozen koadroan eta grafikoa agertzen diren datuak, orokorrak eta hizkuntza ereduaren arabera dira:

Emaitza orokorrak mintzamina gabe ereduaren arabera %

	B1	B2
<b>B eredia</b>	29,9	27,5
<b>D eredia</b>	52,7	57,2
<b>Batez bestekoa</b>	44,5	47,3

8. grafikoa. B1 eta B2 probak: emaitza orokorrak mintzamina gabe hizkuntza ereduaren arabera (B+D ereduetan)



Joera mantentzen da: B ereduaren batez bestekoa baxuagoa da D ereduarena baino.

D ereduaren B2koek emaitza altuagoak atera zituzten (4,5 puntu gehiago); B ereduaren ordea, LHkoek emaitza altuagoa ematen dute.

### 2.3. Geruzen arabera emaitza orokorrak (sareak eta hizkuntza ereduak)

Geruzen arabera azterketan hizkuntza ereduak eta ikastetxearen sarea hartzen dira. Kalkulu horiek egiteko lagin orokorra hartu da (hau da, mintzamina gabekoa), emaitzak bermatzeko kopuru handia behar zen-eta.


Geruzetako emaitzen aniztasuna ondoko taula eta grafikoan islatzen da. Geroxeago azaltzen den bezala, diferentzia batzuk kontuan izatekoak dira, handiak dira eta; hala ere, ez dira beti esanguratsuak izango.

#### Proba gainditu duten ikasleak

Geruzak	K	%
A publikoa	0	0
B publikoa	27	20,1
D publikoa	284	51,7
A itunpekoa	2	1,4
B itunpekoa	121	33,5
D itunpekoa	177	54,3
Guztira	611	38,2

Datuen grafikoa hau da:

9. grafikoa. B1 euskara proba: geruzen arabera



Emaitzak hizkuntza ereduaren inguruan antolatzen dira: proba gainditzen duten ikasleen portzentajeak euskara gehiago erabiltzen den hizkuntza ereduetan igo egiten dira. Betiere hiru ereduetan itunpeko geruzak aurretik aurkitzen dira. D ereduko geruzek, bakarrik, publikoek eta itunpekoek, gainditzen dute probaren batez bestekoa. Gainerakoak azpitik gelditzen dira —batik bat A ereduko geruzak—; dena dela, B itunpekoa da batez bestekotik gertuen dagoena.

Diferentzien esangura aztertu dugu. Emaitzek honakoa adierazi dute:

	A publikoa	B publikoa	D publikoa	A itunpekoa	B itunpekoa	D itunpekoa
<b>A publikoa</b>						
<b>B publikoa</b>	↑					
<b>D publikoa</b>	↑	↑				
<b>A itunpekoa</b>	=	↓	↓			
<b>B itunpekoa</b>	↑	↑	↓	↑		
<b>D itunpekoa</b>	↑	↑	=	↑	↑	

Diferentziak %95eko fidagarritasunez.



- A publiko eta A itunpekoaren artean ez dago alde esanguratsurik. Gainera, geruza horiek beste guztiek baino emaitza bereziki baxuagoak lortu dituzte.
- D publiko eta itunpekoaren artean ez dago diferentzia esanguratsurik. Bi geruza horien emaitzak gainerakoen gainetik geratu dira eta diferentziak estatistikoki esanguratsuak dira beti.
- B publiko eta B itunpeko geruzen emaitzek A ereduakoenak gainditzen dituzte eta D ereduakoen azpitik geratzen dira. Horien arteko aldea, gainera, esanguratsua da: B itunpekoak B publikoa gainditzen du %13,5 puntuetan.

Aldez aurretik A eta D ereduakoen emaitzak aurreikus zitezkeen; hau da, A ereduko gainditu dutenen indize urria zein D ereduko gainditu dutenen indize altua. Horrez gain, emaitzetatik beste bi ezaugarri ondorioztatu ditugu:


- Bi geruza horien barneko diferentzia ez da esanguratsua izan (D publiko eta itunpekoaren artekoa).
- B ereduko geruzen arteko distantzia harriztekoa da. Ezin da ahaztu ikastetxeek B anitzak eta maila desberdineta-koak dituztela<sup>7</sup>.

## 2.4. Ikasleen emaitzen sakabanaketa

Atal honetan ikasleen puntuazioaren sakabanaketa aztertzen dugu. Datu hauek erakusteko ikasle kopuru zehatz bat behar denez, lagin orokorra hartu da (mintzarena gabe).

Datorren grafikoan ikasleen emaitzen sakabanaketa ematen da:

10. grafikoa. B1 euskara proba: ikasleen emaitzen sakabanaketa



Ikusi ahal den bezala, kurba normalizatua da, hau da, erdian metatuta. Horrek adierazten du ikasle gehienak erdiko puntuazio horretan kokatzen direla: 60-70 eta 70-80 artean.

Ikasleen %23,8k 70-80ko puntuazioa lortu du. Zutabe horretatik gorantz agertzen dira proba gainditu duten guztiak (gainditzeko %70 atera behar zen-eta).

Ikasleen %21,3k 60-70ko puntuazioa bereganatu du. Tarte horretan kokatzen dira proba gainditzetik hurbil daudenak, horrexegatik markatuta dago grafikoan.

Aurreko grafikoak kontuan hartzeko datu interesgarri bat erakusten digu: ikasleen %21,3a proba gainditzeko atarian (%60-70 bitartekoa) kokatzen da, beraz gutxi faltatzen zaie proba gainditzeko. Gogoratu behar dugu ikasleek ez zutela proba hau aldez aurretik prestatzeko aukerarik izan, beste batzuetan gertatzen den bezala, hain zuzen ere, eredu hartu dugun PET proban.


(7) Ikus 3.5.1. azpiatala, *Ikastetxeetan erabiltzen diren hizkuntza-irakasbideak*. Azpiatal horretan egindako analisiak B publiko eta B itunpekoaren arteko aldeak erakusten ditu. Batez ere, B publikoko taldeetan curriculum homogeneoa eskaintzen den bitartean, non arloen erdia edo gutxiago euskaraz ematen den, B itunpekoaren talde gehienetan curriculum ibilbide desberdinak garatu omen dituzte. Horien artean B indartua eta B hirueledun nabarmetzen dira.

Emaitzen artean proba gainditzeaz egon direnenak aztertu ditugu bereziki, talde hori osatzen dutenen ezaugarriak ezagutzeko asmoz. Aldagai guztiekin lotu ondoren, aldagai bakoitzaren barnegiturarekin bat datorrela egiaztatu dugu. Gainera, joera hori hiru hizkuntza ereduetan era berean mantendu da.

## A ereduaren sakabanatzea


A ereduaren ikasle gehienak 20-30 eta 30-40 puntuazioen artean kokatzen dira: %57,5. Ikasleen %0,9ak, soilik, gainditu du proba. Gainera, proba gainditzeko zorian dauden ikasleak gutxi dira, %3,3 soilik.

11. grafikoa. B1 euskara proba: ikasleen emaitzen sakabanatzea. A ereduaren




A ereduko geruzen datuak aztertzerakoan A publikoaren kurba oso ezberdina dela antzeman dugu A itunpekoarekin alderatuta. A eredu publikoko ia ikasle erdia 20-30 puntuazioen tartean kokatzen da eta ikasle %73 puntuazioaren beheko hiru tartean dago; gainera inork ez du probaren puntuazioaren %60 gainditu. Berriz, A itunpekoan, berriz, beheko tartean (puntuazioaren %10 baino gutxiago) ikasle bat ere ez egoteaz gain, ikasle %26,1 30-40 puntuazioen tartean kokatzen da. Bertan aurkitzen da eredu honetan gainditu duten ikasle %0,9 (2 ikasle). Aurrerago, emaitza honekin erlaziozatuak beste zenbait datu emango dira.

12. grafikoa. B1 euskara proba: ikasleen emaitzen sakabanatzea. A ereduko geruzen arabera



Hala ere, emaitza horiek ulertzeko ezinbestekoa da bi geruzen maila sozioekonomiko eta kulturala aztertzea, horren eragina geruzen aldagaia baino eraginkorragoa baita. Aldagai hori aurrerago aztertuko den arren (3.3.1. Familiaren indize sozioekonomiko eta kulturala, ISE1 indizea atala), hona ekartzen dugu geruzen horiek hobeto uler daitezten:

13. grafikoa. A ereduko ikasleak ISE1ean




Grafikoan ikusten denez, A publikoko maila ekonomikoa Behe-maila da gehien bat (%63,3). A itunpeko ikasle gehienak Goi-erdi mailan (%26,6) edo Goi mailan (%35,7) kokatzen dira. Ikusiko den legez, maila sozioekonomiko eta kulturala zenbat eta altuagoa izan, orduan eta emaitza hobek.

B ereduaren sakabanatzea

B ereduan ikasle gehienak 50-60 puntuazioko tartean kokatzen dira: %23,9. Nabaria denez, B ereduan zutabe garaiekin eskuinetara mugitu dira, emaitzak altuagoak baitira eta aurreko ereduarekin konparatuta.


Baina daturik interesgarriena hau da: ikasleen portzentajerik handiena 60-70 puntuazioarena da (%22,0); hau da, proba gaitzetzetik hurbilen dagoena. Beraz, esan daiteke eredu honetan badagoela proba gaitzetzeko ia gaitasun nahikoa duen ikasle-kopuru nabarmena.

14. grafikoa. B1 euskara proba: ikasleen emaitzen sakabanatzea. B eredua




Eredu honen bi geruzen emaitzak erakusten dituen grafikoa aztertzean, ikus daiteke kurbak oso antzekoak direla edo behintzat elkarren ondoan daudela. Hala ere, puntuazioaren 50-60 tartetik aurrera B eredu itunpekoak publikoak baino emaitza altuagoak lortzen ditu: kasu batzuetan diferentzia %10etik gertu dago. Beste datu aipagarri batzuk hauexek dira: alde batetik, proba gaitzetzeko behar den puntuazioaren aurreko tartean, itunpeko ikasle gehiago dago, publikokoak baino %8,8 gehiago, hain zuzen ere; eta, beste aldetik, B itunpekoan ere beheko tartetean kokatutako ikasleen portzentajeak baxuagoak dira.

### 15. grafikoa. B1 euskara proba: ikasleen emaitzen sakabanatzea. B ereduko geruzen arabera



Maila sozioekonomiko eta kulturalari erreparatuko diogu:

### 16. grafikoa. B ereduko ikasleak ISE1ean




A ereduaren geruzetan bezala, hemen ere korrelazio bat agertzen da grafikoko datuak eta sareen artean: B publikoko ikasle gehienak maila sozioekonomiko eta kultural baxuenean daude (%42,3). B itunpekokoak oreka handiagoarekin daude bananduta lau mailetan. Kontrasteak ez dira A ereduaren bezain markatuak eta geruzen arteko desberdintasunak ere ez.

### D ereduaren sakabanatzea


D ereduaren ikasle gehienak 70-80 puntuazioko tartean kokatzen dira: %33,1a, hain zuzen; kopuru handia (%25,5) ere metatzen da 60-70 puntuazioan, beraz ikasleen laurdena gutxieneko puntuazioa lortzetik hurbil dago.

### 17. grafikoa. B1 euskara proba: ikasleen emaitzen sakabanatzea. D eredu



Eredu honetan sareen arteko alderik ez dago, aurreko eredueta ez bezala, batez ere A ereduari; D eredu bi geruzen grafikoak, alderantziz, oso antzekoak dira.


**18. grafikoa. B1 euskara proba: ikasleen emaitzen sakabanatzea. D eredu bi geruzen arabera**



Amaitzeko, goiko grafikoak irudikatzen duen bezala, beheko tarteetan (hau da, 30 puntu baino gutxiagokoetan) ikaslerik ez dagoela azpimarragarria da; baita 30-50 tarteetan nahiko eskasa ere.

Ikus dezagun D eredu ikasleen maila sozioekonomiko eta kulturala:

**19. grafikoa. D eredu ikasleak ISE1ean**



D eredu bi sareen artean ez dago desberdintasun esanguratsurik, maila sozioekonomiko eta kulturalari dagokionez.

Nabaria da ikusitako datuek maila sozioekonomiko eta kulturalaren geruzen eraginak baldintzatzen dituztelauela.



# LAGINAREN EZAUGARRIEN AZTERLANA

(Ondorioak lagin honetan bakarrik aplikatu daitezke)

# 3





**Hau hartu beharko genuke kontuan: hemendik aurrera ebaluazio honen laginari dagozkion aldagai guztien datuak eta emaitzak soilik aztertuko dira, ez dugu populazio guztiari hedatu.**

### 3. ALDAGAI ERAGINGARRIAK

Faktore batzuek eragina dute lortutako emaitzetan, hala nola, familia, gizarte edo hezkuntza faktoreek. Ezagut daitezkeen eragile horiek talde batean bildu ditugu *testuinguruko aldagaiak* izendapenean. Bertan, hezkuntzako faktoreez aparte (pedagogikoak, hezkuntza sarea, etab.), kanpoko faktoreak biltzen dira, ikasleen errendimenduan eragin handia dute eta.

*Testuinguruko aldagai* batzuen neurketaren fidagarritasuna bermatzeko asmoz, nazioarteko mailan ezagutzen diren estandarrek erabili ditugu. Horrela egin dugu familiaren indize sozioekonomiko eta kulturala kalkulatzeko orduan. Beste faktore batzuk analizatzeko, aldiz, ikerketa kualitatiboak egin behar dira, ikuspegi soziologiko, antropologiko edota psikologikotik abiatuta. Ebaluazio honetan, adibidez, eskolatzeko hizkuntza eredia oso erabakiorra dela egiaztatu dugu.

Hala ere, ikasleen sozializazioaren mekanismoak, euskaraz hitz egiteko motibazioak edota komunikazioa zailtzeko arrazoi desberdinak aztertzeak ebaluazio honen helburuak gainditzen zituen.

Horrexegatik, gure analisisan Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleei egindako Euskara probaren emaitzak lotu ditugu honako aldagaiok:

- Hizkuntzaren aldagaiak.
  - Familiaren hizkuntza.
  - Zonalde soziolinguistikoa.
- Familiaren aldagaiak.
  - Familiaren indize sozioekonomiko eta kulturala (ISE1 indizea).
- Ikaslearen aldagaiak.
  - Ikasleen sexuaren araberrako emaitzak.
  - Ikasle errepikatzaileak.
  - Euskara arloko noten eta B1 probako emaitzen arteko erlazioa.
- Ikastetxearen aldagaiak.
  - Ikastetxearen indize sozioekonomikoa eta kulturala (ISE1-c).
  - Ikastetxeetan jarraitzen diren hizkuntza-irakasbideak.
  - B ereduaren kasua.

Hasiera batean, bariantzaren analisisa aurkezten dugu; horren bidez, ikastetxe bakoitzak beraien ikasleen emaitzetan duen eragina aztertu nahi dugu, bai era orokorrean, bai hizkuntza ereduaren arabera.

Emaitzen bariabilitatea (bariantza osoa) aztertzeko B1 euskara proban, bi ataletan zati daiteke: ikastetxeen arteko bariantza eta ikasleen artekoa.

Ikastetxeen arteko bariantzak honako hau azaltzen du: ikastetxe bakoitzeko ezaugarrien eragina emaitzetan (programak, ikasleen ezaugarriak, antolaketa estrategiak...). Honela, ikastetxeen bariantzaren portzentajea altua denean, ikastetxe bakoitzak ekartzen duena desberdina da hezkuntza sisteman eta ikasleen ikasketekin hobeto edo gaizkiago moldatzen da.

Ikasleen bariantza aipatzen dugunean, honako edukiez ari gara: ikasle bakoitzaren ezaugarrien eragina emaitzetan (hau da, bakoitzaren gaitasuna, gogoia, familiarengandik jasotzen duen laguntza, espektatibak...). Honako aldagaiak, gehienetan, ez daude ikastetxearen kontrolpean.

Azaldutako ideia argitzeko asmoz, adibide modura aztertuko dugu familiaren egoera sozioekonomikoa. Bakarkako ikuspuntutik, ikasle bakoitzaren egoera sozioekonomikoa haiengan eragina dauka eta ikasleen bariantzan islatzen da. Hala ere, ikastetxe (edo ikastalde) bateko ikasleen egoera sozioekonomikoaren batez bestekoak eragina dauka ikastetxeen bariabilitatean (eragin desberdina daukalako ikastetxe bakoitzean).

Honakoak dira B1 probak bariantziari buruz ematen dizkigun datuak:

	Bariantza metatuta		Ikastetxeen bariantza	Ikasleen bariantza
	K	%		
<b>Ikasle guztiak</b>	365,65	100	%65,7	%34,3

Nabaria da oraingo azterketa honetan ikastetxeen bariantza ikasleen bariantzarekin alderatuta oso altua dela. Datuak hobeto ulertzeko, honako bi erreferentziak ditugu: B2 proban (2004. urtean ISEIk egindakoa DBHko 4.mailako ikasleekin) bariantzaren banaketa eta 2003 PISA ebaluazioarena (15 urteko ikasleekin).

	Bariantza metatuta %	Ikastetxeen bariantza	Ikasleen bariantza
<b>B2 euskara</b>	100	%30	%70
<b>PISA 2003 OCDE</b>	100	%30	%70
<b>PISA 2003 EUSKADI</b>	100	%15	%85

Goiko taulan ikusten denez, B1 proban dagoen bariabilitatearen banaketa eta gainontzeko biak oso desberdinak dira. Zergatia argi dago, A ereduko ikastetxeak sartzekoan (B2 proba ez genuen pasatu A ereduan) biziki handitu da ikastetxeen arteko bariantza. Esandakoa ziurtatzeko, ondoko taulan, probaren bariantza aurkeztuko dugu B eta D eredu-tako ikasleak gehi ikastetxeak kontuan izanda.

	Bariantza metatuta		Ikastetxeen bariantza	Ikasleen bariantza
	K	%		
<b>B eta D ereduak</b>	192,5	100	%32,6	%67,4

Beraz, datuak ikusita, baieztatu dezakegu euskara ikastearen emaitzetan alde handiak daudela ikastetxearen arabera, hizkuntza ereduaren arabera, hain zuzen. Hala ere, alde hau ez da hain handia B eta D ereduak soilik kontuan izaten ditugunean.

Bariantza aztertzen badugu hizkuntza ereduaren arabera, honako datuak biltzen dira:

	Bariantza metatuta		Ikastetxeen bariantza	Ikasleen bariantza
	K	%(ikasle guztiena)		
<b>Ikasle guztiak</b>	365,65	100	%65,70	%34,30
<b>A eredua</b>	178,57	48,47	%50,90	%49,10
<b>B eredua</b>	244,66	66,41	%37,11	%62,89
<b>D eredua</b>	124,88	33,90	%11,85	%88,15

Goiko taulan ikusten denez, B ereduan ematen da sakabanaketa handiena ikasleen emaitzetan. Ikastetxeen arteko desberdintasunari buruz, A ereduko zein B ereduko ikastetxeek eragin desberdina daukate emaitzetan. Hau da, ikastetxe batzuen eragina handiagoa da ikasleen emaitzetan; beste era batera esanda, bi ikastetxetako ezaugarri berberetako ikasleak hipotesia jarrita, zenbait ikastetxetako emaitza hobeagoak lortzen dituzte.

Hala ere, esan dezakegu D ereduko ikastetxeen eragina antzekoa dela, hau da, euskararen ikasketetan ez dagoela alderik D ereduko ikastetxe guztien ekarpenetan.

Egindako azterketa laburbilduz, honakoa esan dezakegu:

- Euskara ikasketan emaitza onak lortzeko, alde nabaria dago hizkuntza ereduaren artean.
- A ereduko ikastetxeek oso eragin desberdina dute euskararen irakaskuntzan.
- B ereduko ikastetxeek oso eragin desberdina dute euskararen ikasketan.
- D ereduko ikastetxe guztiek antzeko eragina dute euskararen emaitzetan.

## Aldagaien eragina

Euskarako probaren emaitzak azaltzeko aldagaien garrantzia ulertzen saiatu gara eta horretarako hierarkien analisia egin dugu.

Erabiliko dugun emaitzen erreferentzia B1 **probaren puntuazioa** izango da, "gainditu/ez gainditu" aldagaiak ez duelako bariabilitaterik sortzen (bakarrik gainditu ahal duten ala ez (0,1)).

Honako aldagaiok eragina dute oro har emaitzak azaltzeko:

### Familia eta ikasleen aldagaiak

Aldagaia	Deskripzioa	Aukerak
<b>Sexua</b>	Neska ala mutila izateak duen eragina.	Neska, mutila
<b>Errepikatzaileak</b>	Kurtsoa errepikatzeak duen eragina.	Ez du errepikatu, errepikatu du
<b>Familiaren maila sozioekonomiko eta kulturala. ISE1</b>	ISE1 indizea kalkulatzeko zenbait informazio kontuan hartu dugu: familiaren lanbide-maila, ikaslearen aita-amenen altuena; familiaren gehieneko ikasketa-maila, ikaslearen amak edota aitak ikasitakoa; eta hirugarrenez, kultur ondasun batzuen jabetza edo kontsumoa (liburuak orokorrean, kontsulta-liburuak, egunkariak eta aldizkariak, ordenagailua eta Internet).	-3,2tik 2,18ra
<b>Familia hizkuntza</b>	<b>Euskara:</b> talde honetako ikasleen aitak eta amak edo haietariko batek euskaraz egiten du eta, ikasleek esanda, euskara da etxean erabiltzen duten hizkuntza, beti edo gehienetan. <b>Euskararik ez:</b> Talde honetan hiru ikasle mota sartu ditugu, hain zuzen ere, familiaren ohiko hizkuntza gaztelania dutenak, euskara ohiko hizkuntza ez denean (nahiz eta gurasoek hizkuntza jakin) eta euskara edo gaztelania ez den gainontzeko hizkuntza erabiltzen dutenak familia harremanetan.	Euskararik ez, Euskara

### Taldearen aldagaiak

Aldagaia	Deskripzioa	Aukerak
<b>Irakasbideak</b>	<b>1. hizkuntza irakasbidea</b> deitu diegu euskaraz 2 arlo edo gutxiago irakasten duten ikastaldee. Egoera horretan dauden ikasleek euskaraz aste batean 0 eta 5 ordu artean jaso dituzte (gehienak ordu bat ere ez). <b>2. hizkuntza irakasbidea</b> izenekin ezagutzen dugu euskaraz 3-5 arlo irakasten duten ikastaldeak. Horren arabera, euskaraz 5,5 eta 10 ordu artean izan dituzte, dispersio handia erakutsiz ikastetxez ikastetxe. <b>3. hizkuntza irakasbidea</b> euskaraz 6 arlo irakasten duten ikastaldeak sartu ditugu. Euskaraz 6 arlo ematea 12,5 ordutik 16 ordura zabaltzen da. Hala ere, ikasle gehienek 13 ordu jaso dituzte. <b>4. hizkuntza irakasbidea</b> erabiltzen dugu euskaraz 7-8 arlo irakasten duten ikastaldeak izendatzeko. Egoera horretan daudenek 16-19 ordu bitartean jaso dituzte (gehienek 19 ordu).	1. Irakasbide 2. Irakasbide 3. Irakasbide 4. Irakasbide
<b>Maila sozioekonomiko eta kulturala, ISE1-c</b>	ISE1-c indizea kalkulatzeko ISE1eko datuak hartzen dira eta taldearen batez bestekoa ateratzen da.	-2,68tik 1,34ra
<b>Sarea</b>	Ikastetxe publiko eta ikastetxe itunpekoak	Publikoa eta itunpekoa

Zenbait aldagaien efektuak ulertzeko, interesgarria izan daiteke aurreko aldagaien arteko hartu-emanen efektua aztertzea.

## Azalpen eredua

Azalpen eredu batek zenbait aldagaien eragina aztertzen du estatistikoki, emaitzen bariantza edo aldakortasuna azaltzeko.

Egoera hipotetiko batean —itxurazkoa, alegia—, ikasle guztiak emaitza berberak lortu beharko zituzten, bakoitzaren gaitasunak berdinak badira behintzat, ikasleen ezaugarri sozioekonomikoak berdinak badira, berdinak ere badira eskolatzeko baldintzak edota ikastearen prozesua. Errealitateak, ordea, erakusten digu ikasleen emaitzak oso diferentia direla eta desberdintasun horiek estatistikan jasotzen dira “bariantza” edo “desbiderapen tipikoa” izenpeetan.

Bariantza horrek datuen dispersioa neurtzen du, hots, emaitzek batz bestetik duten distantzia. Bariantza edo aldakortasun horrek —batz bestekoa handiago edo txikiagoa izatearena— azaltzen du emaitzak antzekoak diren ala ez: zenbat eta bariantza txikiagoa izan ikasleen emaitzek antza gehiago dute.

Bariantza azaltzen edo gutxitzen duten aldagaiak aurkitzeko, topatu behar dira emaitzak bereizten dituzten elementuak; jakin behar da zerk eragiten duen emaitza batzuk beste batzuk baino hobekoak izatea. Aldakortasun hori zenbait egoeraren eraginen menpe dago eta egoera horiek ikasleen ikas-irakaste prozesua baldintzatzen dute.

Eragin horiek hauek dira:

- **Banakakoak:** norberaren gaitasunak, eraman duen ikaste ibilbidea, familiaren estimulak, bere inguruak eskaintzen dizkion aukerak... Oro har, eragin hauek garrantzitsuenak dira eta, gainera, eskolak oso zaila du horretan sartzea.
- **Ikastetxeak:** ikastetxearen ekarpenak, esate baterako, irakasleen eskuhartzea, prestakuntza ibilbidea, hezkuntzaren antolamendua eta denborak, atal metodologikoak, etab. Kasu askotan, ikastetxeak ahalmena du aldagai hauetan parte zuzena hartzeko.
- **Sistemarenak:** sistema bakoitzaren ekarpenak, adibidez, curriculumak, orduen sakabanaketa, irakasleen prestakuntza, hornidura, giza baliabideak zein materialak...

Azalpen eredu baten bidez, aldagaien eragina ezagut dezakegu, denak aldi berean azaltzean ikasleen emaitzen desberdintasunen arrazoiak.

Ikerketa hau egiteko, analisi hierarkiko multi-maila erabili dugu (HLM programa estatistikoa). Programa horrek ikasle-entzuen datuen bi maila lotzen ditu: banakako maila eta taldeetako maila. Horren arabera, ikastetxe bereko ikasleek ikastetxearen zenbait ezaugarri berdinak ditu: ikastetxearen aldagaiak.

Zera saiatu behar da desberdintzen: emaitzen aldakortasuna edo bariantza zein neurritan izaten den norberaren eraginagatik edo ikastetxe taldearen eraginagatik.

Analisi multi-mailarekin hasi baino lehen, jakin behar dugu zein den emaitzen aldakortasuna eta zergatik sortzen duen aldakortasun hori.

**Hasierako bariantza:** 365,65

Jakin dezakegu, hasierako bariantzaren zein zatia datorren ikasle bakoitzaren ezaugarri desberdinetatik (ikasleen arteko bariantza) edo zein ikastetxeetako eraginetik (ikastetxeen arteko bariantza).

### Hasierako bariantza horren sakabanaketa

	Balioa	%
<b>Ikastetxeen artean</b>	240,22	65,70
<b>Ikasleen artean</b>	125,43	34,30
<b>Guztira</b>	365,65	100,00

Lehenengo informazio honek Euskarako probaren emaitzak interpretatzen laguntzen digu:

- Euskararen ikasketa-prozesuan, emaitzen arteko desberdintasunak ikastetxeen aldagaiek (%67,5) banakakoek baino gehiago azaltzen dituzte (%34,3).
- Beraz, Euskararen ikasketa-prozesuan ikastetxeek oso eragin desberdina dute; ikastetxe batzuen ekarpena oso handia da eta beste batzuen, ordea, urria. Horregatik ikasle batzuek Euskara askoz gehiago ikasiko dute ikastetxe batzuetan beste batzuetan baino.

Datuetatik sortzen den eredu orokorra azaldu baino lehen, interesgarria da aldagai bakar bateko eredu bat aztertzea. Kasu honetan, "ikastetxeko hizkuntza irakasbidea" hartu dugu; aldagai hau ikastetxekoa da eta Lehen Hezkuntzako azken zikloan euskaraz ematen diren arloen kopuruari dagokio.

Analisi hau egitean, kontuan hartzen dira datozen arloak: Matematika, Inguruaren ezaguera, Gorputz heziketa eta Heziketa artistikoa, horiek ematen baitituzte ikastetxe guztietan LHko azken zikloan. Hortaz, ez dira hartu arlo linguistikoak: Euskara, Gaztelania eta Atzerriko hizkuntza.

Ikastetxeek emandako informaziotik abiatuta, aldagai honek lau atal ditu:

- **1. irakasbidea:** 2 arlo edo gutxiago euskaraz (5 ordu edo gutxiago euskaraz).
- **2. irakasbidea:** 3 eta 5 bitarteko arlo (5,5 orduetik 10 ordu bitartean euskaraz). (*Bailez aldagaia, 0,1*)
- **3. irakasbidea:** 6 arlo (12,5 orduetik 16 ordu bitartean euskaraz). (*Bailez aldagaia, 0,1*)
- **4. irakasbidea:** 7 eta 8 bitarteko arlo (16 ordu edo gehiago euskaraz). (*Bailez aldagaia, 0,1*)

Kontua da aldagai bat kontrolatzea; honek esan nahi du eredu bat zehazten dela non aldagai bakar batek eragina duen aztertu nahi diren emaitzengan, eta eragina hori berbera da ikasle guztiengan. Aztertzen badugu ikastetxearen "hizkuntza irakasbideak" aldagaia, emaitzen aldakortasuna aztertzen da aldagai hori alboratuta:

Bariantza	Hasierakoa	Eredua	Portzentajea	% Murriztapena
<b>Ikastetxeen artean</b>	240,22	<b>50,97</b>	28,88	78,88
<b>Ikasleen artean</b>	125,43	<b>125,51</b>	71,12	-0,06
<b>Guztira</b>	365,65	<b>179,47</b>		51,74

Datu hauen arabera, aldagai hori kontrolatuta edukita, emaitzen aldakortasun orokorra (bariantzaren balioa) asko murrizten da (%50,97), baina, horretaz gain, ikastetxeen arteko bariantza ere murrizten da, ikastetxeen aldagai garbia delako. Aldagai horrek ikastetxeen arteko bariantzaren %79 azaltzen du, hots, emaitzen aldakortasunarena.

Ikastetxeen arteko bariantza azaltzea oso garrantzitsua da, bi arrazoi direla medio:


- Lehendabizi, ikastetxeen arteko bariantza handia duten hezkuntza sistemak sistema selektiboa izateko joera dutelako, non inportanteago izaten den ikastetxea aukeratzea, eta ez ikastetxeak eskaintzen duena.
- Bigarrenez, ikastetxeen aldagaietan, hain zuzen ere, sartu ahal delako gauzak aldatzeko eta hezkuntza prozesua hobetzeko asmoz.

Nahiz eta "hizkuntza irakasbideak" aldagaia nolabait lotuta egon hizkuntza ereduarekin, zeharkako kutsu handiagoko dauka: A ereduari 1 eta 2 irakasbideak daude, B ereduari 2, 3 eta 4 irakasbideetako ikastetxeak daude, eta D ereduari 4 irakasbideak daude.

Datu horietatik abiatuta, irakasbideak zehaztearen garrantzia nabaritzen da, beraiek bereizten baitituzte ikastetxe batzuen eta beste batzuen arteko emaitzak. Euskara arloan, ikastetxe baten hizkuntza irakasbideen aukeraketak emaitzak baldintzatzen dituela baieztatu ahal da.

Hala ere, aztertu behar da —era diferentzian— irakasbide bakoitzak zein ekarpen zehatzik ematen die Euskararen emaitzei. Irakasbide bakoitzaren ekarpena ulertzeko, datorren grafikoa aztertuko dugu:

## 20. grafikoa. Hizkuntza irakasbideak



Irakasbideak erreferentetzat harturik, ikasleen emaitzak hauexek lirateke:

- **1. irakasbidean** eskolatutako ikasleen balizko puntuazioa **28,46** puntukoa izango litzateke.
- **2. irakasbidean** eskolatutakoek honako puntuazioa lortuko lukete:  $28,46 + 22,76 = 51,12$  puntu.
- **3. irakasbidean** eskolatutakoen balizko puntuazioa  $28,46 + 27,71 = 56,37$  litzateke.
- **4. irakasbidean** eskolatutakoen balizko puntuazioa  $28,46 + 40,22 = 68,68$  litzateke.

Ikusten denez, bi jauzi handi daude: lehengoa 1. irakasbidetik 2.era (ia 23 puntuko jauzia), eta bigarrena 3. irakasbidetik 4.era igarotzean (12,3 puntuko aldea). Datu hauekin baieztatzen da beti agerikoa izan dena: irakasbideek eragin oso handia dute Euskararen emaitzetan, hau da, ikastetxean egiten den hizkuntzaren esposizio-denbora ezinbestekoa da.

Aurkeztutako adibidean, aldagai bakar baten eragina aztertu da, bariantzaren %51,7 azaltzen duen aldagaia (oso kopuru handia da).

Hori eta gero, saiatu behar gara aurkitzen ahalik eta aldagai gehien duen eredu, bariantza sakonago aztertzeko, bai ikastetxeetako bariantzan, baita ikasleen arteko bariantzan ere.

Diseinatutako azalpen eredu ulertzeko, eredu bateratu batean funtzionatzen barianteak ezagutu behar dira. Erabilitako aldagaiak bi motatakoak dira: bananako erreferentea dutenak eta taldeko erreferentea dutenak. Aldagai hauek talde bateko ikasleei era berdinean eragingo diete:

**Banakakoak:**

- **Sexua**  
Neska ala mutila izan (*1, 0 balioa*)
- **Errepikapena**  
Ikasturteren bat errepikatuta eduki Lehen Hezkuntzan (*1, 0 balioa*)
- **Familia hizkuntza**
  - Euskara (*1 balioa*)
    - Amak edo aitak etxean euskaraz beti edo ia beti hitz egiten dute.
  - Euskararik ez (*0 balioa*)
    - Familiaren beste egoera linguistikoak.
- **Familiaren maila sozioekonomiko eta kulturala (ISE1)**
  - Indize tipifikatuaren balioa (*batez bestekoa=0 eta desbiderapen tipikoa=1*), datuak familiaren datuetatik lortu dira (*-3,2 eta 2,18 bitarteko balioa*):
    - Ama eta aitaren maila profesionala.
    - Ama eta aitaren ikasketa maila.
    - Zenbait jabego kulturala.

**Taldekoak:**• **Hizkuntza irakasbidea**

- LHko ikastetxe jakin batean, 5. eta 6. mailan euskaraz ematen diren ordu kopurua datozen arlotan: Matematika, Ingurunearen ezagutza, Heziketa fisikoa eta Arte hezkuntza.
  - 1. irakasbidea: 2 ordu edo gutxiago euskaraz.
  - 2. irakasbidea: 3 eta 5 bitarteko arlotan (*Bai/ez aldagaia, 0, 1 balioa*).
  - 3. irakasbidea: 6 arlo (*Bai/ez aldagaia, 0, 1 balioa*).
  - 4. irakasbidea: 7 edo 8 arlo (*Bai/ez aldagaia, 0, 1 balioa*).

• **Sarea**

Ikastetxe publiko edo itunpeko batean egon (*0, 1 balioa*).

• **Taldeko maila sozioekonomiko eta kulturalaren batez bestekoa (ISE1-c)**

Talde horretako ikasleen ISE1eko batz bestekoa (*-2,68 eta 1,34 arteko balioa*).

**Azaldutako bariantza:**

Aldagai horiei guztiei era bateratuan analisisia egin ondoren, horrela azaltzen da bariantzaren kantitatea:


<b>Bariantza</b>	<b>Hasierakoa</b>	<b>Eredu bateratua</b>	<b>Portzentajea</b>	<b>% Murriztapena</b>
<b>Ikastetxeen artean</b>	240,22	<b>26,19</b>	20,05	89,10
<b>Ikasleen artean</b>	125,43	<b>104,40</b>	79,95	16,77
<b>Guztira</b>	365,65	<b>130,59</b>		64,29

Datu horiek adierazten dute hautatutako aldagaiek ikastetxeen arteko aldakortasunaren gehiengoa azaltzen dutela. Hain zuzen ere, ikastetxeen arteko aldakortasunaren %89 azaltzen da; hots, ikastetxe batzuek eskaintzen dutena eta beste batzuek eskaintzen dutena eredu honetako aldagai hauetan zehazten da.

Azpimarratu behar dugu aldagai bakar batek aldakortasunaren %80 ahal duela azaldu, baina horrek ez du esan nahi eredu orokorrean kopuru bera azaldu ahal denik, aldagaien arteko eraginagatik. Koadroan jasotzen dena guztiaren azalpena da, ez da azaltzen, ordea, aldagai bakoitzaren eragina.

Datorren grafikoan aurkezten da aldagaiek ekarriko zieten balizko ikasle baten emaitzei:

## 21 grafikoa. Aldagaien eragina bateratuan



Aldagai bakoitzak ematen duena datorren informazioa kontuan eduki behar da:

- Barrak aldagai bakoitzak kendu edo eman ahal duena adierazten dute; barren luzapenak era grafikoan erakusten du bakoitzaren ekarpena.
- Indize sozioekonomiko eta kulturalaren kasuan, kendu ahal den eragina agertzen da, eman ahal dena baino. ISE1eko puntuazioa, hain zuzen, 13,41eraino igo daiteke eta ISE1-c 10,83raino.
- Aldagai multzo bat dela ulertu behar da; beraien artean sortutako eraginak batzen dira kasu batzuetan, beste batzuetan konpentsatzen dira. Esate baterako, euskaldunek ISE1 eta ISE1-cren balioak altuagoak lituzke etxean euskara hitz egiten ez dutenek baino, gainera, gehienak 4. irakasbidean eskolatuta daude, beraz, hiru aldagai horien analisisian efektu batzuk elkartzen dira.
- Grafikoan ikus daiteke emaitzak hobeto desberdintzen dituzten aldagaiak hauexek direla: hizkuntza irakasbideak, maila sozioekonomiko eta kulturalak (banakakoak eta taldekoak) eta errepikapena.

Grafiko horren erreferentia da 0 aldagai guztirako.

Ikus dezagun zehazki zein izan den grafiko horren erreferentia:

- Mutila.
- Ez du errepikatu.
- Bere ISE1 (maila sozioekonomiko eta kulturala) 0 da, batz bestekoarenarekin bat datorrena.
- Familia hizkuntza ez du euskara.
- 1. irakasbidean eskolatuta.



- Bere taldeko maila siozioekonomiko eta kulturala (ISE1-c) 0 da (laginaren taldeetakoa, -0,2, baino apur bat altuagoa).
- Ikastetxe publiko batean eskolatua.

Ezaugarri horiek dituen balizko ikasle batek 30,47 puntu lortuko lituzke.

Hortik aurrera, edozein ikaslek espero ditzakeen emaitzetan aldagaien eraginaren ekarpena gehitu edo kendu egin beharko da:

- Abiapuntuaren puntuazioa: **30,47 puntu**
- Neska bat: **+2,46 puntu**
- Ez du errepikatu: **+0 puntu**
- ISE1 -0,45: **-1,12 puntu**
- Familia hizkuntza euskara: **+4,90 puntu**
- 3. irakasbidean eskolatua: **+27,53 puntu**
- ISE1-c 0,24: **+0,65 puntu**
- Ikastetxe publiko batean eskolatua: **+0 puntu**

Ezaugarri horiek dituen ikasle batek 64,89 puntu izango lituzke.

Txostenaren azken atalean (5. Azalpen ereduak) aurkezten dugu aldagai horien eragin orokorra hizkuntza eredu ba-koitzean.

## 3.1. Familiaren aldagaiak

### 3.1.1. Familiaren hizkuntza

Hezkuntza sistema elebidunetan egindako ebaluazioetan ikusten denez, Familiaren hizkuntza aldagaia oso garrantzi-tsua da. Familiaren hizkuntzak eragina izaten du emaitzetan.

Euskarako ebaluazioan jasotako emaitzak gurasoen hizkuntzaren arabera aztertu dira. Horretarako, ikasleei galdetu diegu haien gurasoekin zein hizkuntzatan hitz egiten duten (euskara, gaztelania, beste batzuk).


Ikasleek etxean erabiltzen duten hizkuntza ezagutzeko asmoz galdera zehatzak egin ditugu. Ikasleen erantzunak kon-tuan izanda, honako bi taldeak osatu ditugu:

- *Euskara*: talde honetako ikasleen aitak eta amak edo haietariko batek euskaraz hitz egiten du eta, ikasleek esanda, euskara da etxean erabiltzen duten hizkuntza, beti edo gehienetan.
- *Ez euskara*: Talde honetan hiru ikasle mota sartu ditugu, hain zuzen ere, familiaren ohiko hizkuntza gaztelania dute-nak, euskara ohiko hizkuntza ez denean (nahiz eta gurasoek hizkuntza jakin) eta euskara edo gaztelania ez den gai-nontzeko hizkuntza erabiltzen dutenak familia harremanetan.

Datorren grafikoan<sup>8</sup>, lagina aipatutako bi taldetan antolatuta aurkezten da.

(8) Taula guztietan kopuruak (K) ponderatuta daude. Datu horiei guztiei hamartarrak kendu zaizkie, irakurketa errazteko. Hori dela eta, taula batzuetan K horien batuketa ez dator bat guztiarekin.

## 22. grafikoa. Familiaren hizkuntza



Goiko grafikoan, familiaren hizkuntza aldagaia lau faktoreen arabera sailkatu dugu. Ikusten denez, ez dago alderik neska eta mutilen arteko sakabanatzean. Hizkuntza ereduaren arabera aztertuz, A eta B ereduaren euskaraz hitz egiten dutenen kopurua altuagoa da euskaraz hitz egiten ez dutenena baino; bestalde, D ereduaren etxean euskaraz hitz egiten dute %38k.

Indize sozioekonomikoak ematen digun irudia nabaria da ere: zenbat eta indize altuago orduan eta familia euskaldunen kopuru handiagoa.


### 3.1.2. Datu orokorrak: emaitzak familiaren hizkuntzaren arabera

Goian aipatu dugunez, familiaren hizkuntzak eragina dauka emaitzetan. Euskarako proba bat izan denez, etxean beti edo ia beti hitz egiten dutenek emaitza altuagoak izan dituzte.

Grafikoan ikusten denez, gurasoekin euskaraz hitz egiten dutenek proba gainditu dute kopuru (%62,1) altuago batean. Ikasleen %30,5ak proba gainditu du bere familiaren hizkuntza euskara ez izanda. Bi aukeren arteko desberdintasuna oso handia da: %31,6.

Goiko taulan eta aurrerago aurkeztuko ditugun analisietan ikusten denez, etxeko euskaldunak D ereduaren biltzen dira bereziki eta, hiru aldiz txikiago den proportzioan, B ereduaren.

23. grafikoa. B1 Euskara proba: gainditu duten ikasleak familia hizkuntzaren arabera



### 3.1.3. Datuak hizkuntza ereduaren arabera

Datorren taulan laginaren deskripzioa ordenatzen dugu Familiaren hizkuntza aldagaiaren arabera eta hiru ereduaren datuak metatuta.

Hizkuntza ereduak

Familiaren hizkuntza	A ereduak		B ereduak		D ereduak		Metatuta	
	K	%	K	%	K	%	K	%
Euskararik ez	229	99,4	438	88,9	544	62,1	1.211	75,7
Euskara	1	0,6	55	11,1	332	37,9	388	24,3
<b>Guztira</b>	230	100,0	493	100,0	876	100,0	1.599	100,0

Goiko taulan ikusten denez, ikasleen ia laurden baten familiaren hizkuntza euskara da (%24,3) eta gainontzeko hiru laurdenen familietan ez dakite edo ez dute euskara erabiltzen ohiko harremanetan (%75,7). Euskaraz etxean egiten duten ikasleen gehiengoa D ereduaren biltzen da.

Geruzaka aztertuta, argi agertzen da D eredu publiko zein itunpekoan daudela euskaraz hitz egiten duten familia kopuru altuenak (%37,6 eta %38,3 hurrenez hurren). Gainontzeko geruzetan portzentajeak askoz baxuagoak dira eta A ereduaren agertzen dira datu baxuenak.

Atal honetan eragin handieneko bi aldagaiak elkartu ditugu: familiaren hizkuntza eta hizkuntza ereduak loturik, datu osatuagoak lortzeko asmoz. Beheko taulan gaituzten kopurua ikusten dugu familiaren hizkuntzaren arabera.


Gaituztu duten ikasleak eredu eta familiaren hizkuntzaren arabera

	A ereduak		B ereduak		D ereduak	
	K	%	K	%	K	%
Euskararik ez	2	1,0	114	26,0	254	46,7
Euskara			34	61,2	207	62,5
<b>Guztira</b>	2	1,0	147	29,9	461	52,7

%95eko konfiantza maila.

Datuen grafikoa hau da:

**24. grafikoa. B1 euskara proba: gaindituak hizkuntza erduetan familia hizkuntzaren arabera**



A ereduko ikasleek ez dute proba gainditzen (%1ek bakarrik).

Proba gainditu duten B ereduko ikasleen %26k ez du euskara familiako hizkuntza; etxean euskaraz hitz egiten dutenen %61,2k gainditu du. Goian ikusi dugunez, B itunpekoen talde batek D ereduaren zenbait ezaugarri ditu.

D ereduaren etxean euskaraz hitz egiten ez dutenen %46,7k gainditzen du eta etxean euskaraz hitz egiten dutenen %62,5ek gainditzen du proba.

Taulan eta grafikoa ikusten denez, familiaren hizkuntza euskara denean, ereduaren eragina gutxitzen da. Honela, D ereduko %62,5ek gainditzen du proba eta B ereduko %61,2k. Familiaren hizkuntza euskara ez denean, aldiz, ikastaldeko hizkuntza ereduaren eragina izugarria da emaitzak azaltzerakoan.

Deigarria da ereduka alderik ez egotea, jakinda gainontzeko aldagaietan beti agertzen direla. D eta B ereduaren emaitzen arteko alderik ez egotea hobeto ulertzeko, lagin honetako B ereduak dituen ezaugarriak definitu beharko genituzke.

### 3.1.4. Datuak geruzen arabera

Geruzen deskripzioa familiaren hizkuntzaren arabera:

Geruzak	Familiaren hizkuntza					
	Euskararik ez		Euskara		Metatuta	
	K	%	K	%	K	%
<b>A publikoa</b>	70	<b>99,6</b>	0	<b>0,4</b>	70	100,0
<b>B publikoa</b>	125	<b>93,9</b>	8	<b>6,1</b>	133	100,0
<b>D publikoa</b>	343	<b>62,4</b>	207	<b>37,6</b>	550	100,0
<b>A itunpekoa</b>	159	<b>99,3</b>	1	<b>0,7</b>	160	100,0
<b>B itunpekoa</b>	314	<b>87,0</b>	47	<b>13,0</b>	360	100,0
<b>D itunpekoa</b>	201	<b>61,7</b>	125	<b>38,3</b>	326	100,0
<b>Guztira</b>	1.211	<b>75,7</b>	388	<b>24,3</b>	1.599	<b>100,0</b>

A erduetan ikasle bakar batek hitz egiten du euskaraz familiako harremanetan. B publikoan A erduetan baino portzentaje handiagoa izan arren, ikasleen %6,1ek bakarrik egiten du etxean euskaraz.

Itunpeko Bko 47 ikaslek (guztietatik %13) euskaraz egiten dute familiako harremanetan. 47 hauetatik 35 ikasle hiru ikastetxetan biltzen dira. Hiru ikastetxe horiek inguru euskaldunetan kokatuta daude eta talde horiek 6-8 arlo egiten

dute euskaraz. Beraz, esan dezakegu, ikuspegi administratibotik B erdua izan arren, zenbait baldintza betetzen dituztela (neska-mutil euskaldunak, testuinguru euskaldunean eta arloak euskaraz) emaitza onak ateratzeko.

Hurrengo taulan, emaitzak geruzaren arabera sailkatuko ditugu.

**Gainditu duten ikasleak geruzen arabera**


Geruzak	Ez euskaraz		Euskaraz	
	K	%	K	%
<b>A publikoa</b>	0	<b>0,0</b>	0	<b>0,0</b>
<b>B publikoa</b>	25	<b>19,6</b>	2	<b>28,1</b>
<b>D publikoa</b>	161	<b>47,1</b>	123	<b>59,4</b>
<b>A itunpekoa</b>	2	<b>1,4</b>	0	<b>0,0</b>
<b>B itunpekoa</b>	89	<b>28,5</b>	31	<b>66,9</b>
<b>D itunpekoa</b>	92	<b>46,0</b>	85	<b>67,7</b>
<b>Guztira</b>	370	<b>30,5</b>	241	<b>62,1</b>

Desberdintasun esanguratsuak D eruedetan (publikoa zein itundua) eta B itunduan. %95eko konfiantza maila.

Goiko taulan ikusten denez, emaitza altuagoak dira familiaren hizkuntza euskara denean. Emaitza altuenak D eruedetan (publikoan %59,4, itunduan %67,7) eta B itunpekoan (%66,9) ematen dira. D eruedetako emaitzak altutxoagok dira ikasleen familiaren hizkuntza euskara ez denean ere.

Beheko grafikoan datu berberak ikusten ditugu marra batean ordenaturik.

**25. grafikoa. B1 euskara proba: gainditu dutenak familiaren hizkuntzaren arabera**



Grafikoan ikusten denez, emaitza altuenak B itunpekoan eta D eruedetan ematen dira. Itunpeko B ereduaren emaitza deigarri suertatzen da D publikoarekiko, B ereduak hobe da-eta. D publikoaren gainditu dutenen kopurua (%59,4) batez bestekoa baino 3 puntu altuagoa da.

**3.1.5. Familiaren hizkuntza gaztelania denean.**

Atal honetan, gaztelania familiaren hizkuntza izateak emaitzetan duen eragina lantzen da.

Ondoko koadroan, familian gaztelaniaz hitz egiten dutenen emaitzak biltzen dira, hain zuzen ere, ezaugarri hori izanda, proba gainditu dutenen kopurua ematen da:

Gainditu duten ikasleak	Gaztelaniadunen artean gainditu dutenak	
	K	%
Neska	206	33,7
Mutila	164	27,3
A eredia	2	1,0
B eredia	114	26,0
D eredia	254	46,7
A publikoa	—	—
B publikoa	25	19,6
D publikoa	161	47,1
A itunpekoa	2	1,4
B itunpekoa	89	28,5
D itunpekoa	92	46,0
Errepikatzailleak ez direnak	363	33,6
Errepikatzailleak	7	5,3
ISE1 behe maila	53	18,7
ISE1 behe-erdi maila	80	30,9
ISE1 erdi-go maila	116	46,2
ISE1 goi maila	101	42,2
Guztira	370	30,5

Proba gainditzen dutenen kopurua %30,5koa da. Aurretik esan den legez, gainontzeko ikasleek, hots, ama hizkuntza euskara dutenen artean %62,1ak gainditu du proba.

Zehazki, familiaren hizkuntza gaztelania duten ikasleen laginean, zenbait alde adierazkor agertzen dira:

- Ikasleen sexuari dagokionez, nabaria da nesken emaitzak (33,7%) mutilenak (27,3%) baino altuagoak izan direla. Tarte hau esanguratsua da.
- Hizkuntza ereduaren arabera emaitzak bereziki aipagarriak dira; ereduaren arteko desberdintasunak esanguratsuak dira. A ereduaren eskolaratzen direnen %1ek gainditzen du proba; B ereduaren eskolaratzean, kopuru hori asko igozten da: %26,0; gaztelaniadunen emaitzak askoz altuagoak dira D ereduaren daudenean: %46,7k gainditzen du proba. Beraz, euskara ikasteko eskolak duen eragina nabaria da, D ereduaren bereziki.
- Geruzen arabera, zera adierazi ahal da: ereduaren artean desberdintasun esanguratsuak ematen dira, ikusi dugun bezala; aldiz, eredu bereko sareen artean, aldiz, ez dago desberdintasun esanguratsurik, hots, D publiko eta itunpekoaren artean ez dago desberdintasun esanguratsurik, A publiko eta itunpekoaren artean ere ez desberdintasun esanguratsurik eta B publiko eta itunpekoaren artean ere ez.
- Errepikatzaileren kopuruari begiratzean, alde esanguratsuak daude inoiz errepikatu dutenen eta errepikatu ez dutenen artean.
- Familiaren maila sozioekonomiko eta kulturala (ISE1) kontuan harturik, desberdintasun esanguratsuak topa litezke maila guztien artean, goi maila eta erdi-go mailen artean salbu.

Familiaren hizkuntza gaztelania duten ikasleen datuak baieztatzen dira emaitza orokorretan, hau da, aldagai guztietan agertzen diren desberdintasunak agertzen dira baita atal honetako azpi-laginean ere. Hortaz, hemen lortutako ondorioak lagin orokorrean agertzen diren bezalakoak dira.

### 3.2. Zonalde soziolinguistikoaren arabera emaitzak

2004ko B2 ebaluazio proban, DBH amaieran ikasleen euskara maila ezagutzeko burutu genuen hartan, probako emaitzak ikastetxeko ingurunearekin lotu ziren<sup>9</sup>. Orduan, arrakasta lortzeko, ingurunea faktore erabakigarria izan zela egiaztatu genuen eta nabaritu genuen ingurune soziolinguistikoaren eta emaitzen arteko lotura bereziki zuzena zela. Halaber, antzeman genuen eragina are nabariagoa zela ikaslea bizi zen ingurune euskaldunen ehuneko handiagoa zenean. Horretaz gainera, frogatu zen diferentzia are nabarmenagoa zela mintzamen probaren emaitzetan.

Neurri handi batean hipotesi horiek izan ditugu kontuan 2006ko Lehen Hezkuntzako Euskara probaren emaitzak aztertze orduan.

Ildo honi jarraituz, 2004ko B2n erabili genuen formula berberaz baliatu gara berriz 2006ko B1eko emaitzak analizatzerakoan. Horrek bi proben arteko hainbat lotura eta konparazio egiten laguntzen du, hezkuntza etapa desberdinetakoak izan arren. Faktore hori ikertzeko ikasleak hiru taldetan banatu ditugu<sup>10</sup>. 2004an hiru talde nahiko homogeneo sortu baziren ere (gutxi gorabehera laginaren heren bana), Lehen Hezkuntzako laginean ehunekoak aldatu egin dira; hala ere, balio izan dute hizkuntza ingurunearen eraginkortasun mailari buruzko ondorioak eskuratzeko eta, lehen adierazi den moduan, baita B2ko datuekin erkatzeko. Irizpide horiei eutsi diegu:

- Lehengo taldean, euskaldunen eta ia euskaldunen<sup>11</sup> kopurua gutxienez %63 duten hirietako ikastetxetara doazen ikasleak sartu ditugu (guztietatik %34,1). Hemendik aurrera *“goi mailakoa”* izendatuko dugu.
- Bigarrenean, euskaldunen eta ia euskaldunen proportzioa %50 eta %63 artean duten udalerrietan aurkitzen direnak (guztietatik %20,3). Hemendik aurrera *“erdi mailakoa”*.
- Hirugarren taldean, euskaldunen eta ia euskaldunen ehuneko %50 baino gutxiago diren hirietan eskolatuak dauden ikasleak (guztietatik %45,6). Aurrerantz, *“behe mailakoa”*.

#### 3.2.1. Ikasleen banaketa hizkuntza eremuetan

Hurrengoetan ikus ditzakegu proba gainditu duten ikasleen datuak eremu soziolinguistikoetan banatuta, ikasten duten udalerrietako euskara-mailaren indizearen arabera:

Gainditu duten ikasleak		
	K	%
<b>%50 euskaldun eta ia euskaldun gehienez</b>	222	<b>34,4</b>
<b>%50-%63 euskaldun eta ia euskaldun</b>	127	<b>39,1</b>
<b>%63 euskaldun eta ia euskaldun gutxienez</b>	262	<b>48,1</b>
<b>Guztira</b>	611	<b>38,2</b>

Hiru emaitzen tartea esanguratsua da, %95ean.


Hona hemen datuen grafikoa:

(9) Ikus ISEI-IVEI (2005): Euskararen B2 maila. 59. orr. eta ondokoak.

(10) Hizkuntza eremuak zehazteko Eustatek 2004an gauzatuako informazioaz baliatu gara (<http://www.eustat.es>), bereziki. Informazioan, non Eustatek Euskal Herriko Soziolinguistikazko III. Inkestaren emaitzak (2001. urtekoa) ezagutzera ematen dituen. 2006an IV. Inkesta berrirako datuak bildu dira, baina oraindik ez dira argitaratu. Dena dela, aurreko soziolinguistikako inkesten serie estatistikoek (1991, 1996 eta 2001. urtekoenak) erakusten duten bezala, oro har herrien ezaugarri soziolinguistikoak egonkor mantendu dira, euskaldunen, ia euskaldunen eta erdaldunen proportzioei dagokienez.

(11) Eustat erakundearen arabera: *“Ia euskaldun alfabetatuak: euskara ongi edo nekez ulertzen duten, nekez hitz egiten duten eta ondo edo nekez irakurtzen eta idazten dutenak.”*

### 26. grafikoa. B1 Euskara proba: zonalde soziolinguistikoaren araberako emaitzak




Hiru eremu soziolinguistikoaren emaitzek ondokoa adierazten dute:

- Euskaldunen kopurua goi mailakoa den eremuan, ikasleen emaitzak probaren batez bestekoa portzentajeko 10 puntu hobetzen du. Hortaz, populazio gehiengoa euskalduna denean, inguruneak eragin positiboa duela egiaztatzen da.
- Erdi mailako eremuetako ikastetxeetan eskolatuta dauden ikasleen emaitza batez bestekoarena baino apur bat handiagoa izan da.
- Ingurunean euskaldun kopurua behe mailakoa denean, errendimendua nabarmen jaisten da. Eremu horietako emaitza probaren batez bestekotik 3,8 puntura kokatzen da.

Laburbilduz, Lehen Hezkuntzako 6. mailan Euskara proban nabaria da ingurunearen eragina plus bat dela, euskaldunen kopurua handia bada (%63 gutxienez). Ehuneko hori jaisten den neurrian, eragin positiboa moteldu egiten da, euskaldunen kopurua %50 baino baxuagoa den inguruneetan desagertu arte.

Ebaluazio honetako datuak 2004. urtean egin zen B2 Euskara probarekin erkatzen baditugu, ondoko grafikoa ikus daiteke:

### 27. grafikoa. Euskara proba: zonalde soziolinguistikoaren eragina B1 (B + D hizkuntza ereduak) eta B2 probetan





Datuak interpretatu aurretik, gogoratu behar dugu probak etapa desberdinetan egin direla, B2 DBH etaparen amaieran; B1 Lehen Hezkuntza etaparen amaieran. Hala ere, bi kasuetan B eta D ereduak hartu dira, konparazioa egin ahal izateko (B2 proban eredu horiek soilik ebaluatu baitira).

Hainbat datu ondorioztatu ditugu:

- Ingurune soziolinguistikoak era berean eta proba bietan eragiten du. Dena dela, eragin hori B2 proban handiagoa izan da euskaldunen kopurua %63 baino handiagoa denean. Izan ere, euskaldunen kopurua goi mailakoa den hirietako ikastetxeetara doazen ikasleek B1 proban ez dute lortu B2koek eskuratu duten besteko errendimendu hazkundera.
- Lehen Hezkuntzan egindako proban muturreko puntuazioen arteko diferentzia askoz txikiagoa da (9,7 puntukoa) DBHko proban baino (23,8 puntukoa). Aldakortasun hori beharbada lotu ahal da proba bakoitzak izan duen laginaren ezaugarriekin eta, nola ez, bi probek izan dituzten berezko ezaugarriekin.

### 3.2.2. Zonalde soziolinguistikoa eta geruzen arabera emaitzak

Hizkuntza eremuek emaitzetan izan duten eragina aztertzerakoan, geruzekin lotu dugu. Hala ere, emaitzak geruzaka ikusi baino lehen, ikus dezagun geruza horien sakabanatzea hizkuntza eremuen arabera:

#### Ikasleen banaketa zonalde soziolinguistikoa eta geruzen arabera

Geruzak	%50 euskaldun eta ia euskaldun gehienez		%50-%63 euskaldun eta ia euskaldun		%63 euskaldun eta ia euskaldun gutxienez		Guztira	
	K	%	K	%	K	%	K	%
<b>A publikoa</b>	66	94,2	4	5,8			70	4,4
<b>B publikoa</b>	75	56,5	32	24,4	25	19,1	133	8,3
<b>D publikoa</b>	174	31,7	103	18,8	272	49,5	550	34,4
<b>A itunpekoa</b>	103	64,3	46	28,6	11	7,1	160	10,0
<b>B itunpekoa</b>	180	50,0	121	33,6	59	16,4	360	22,5
<b>D itunpekoa</b>	131	40,3	18	5,5	177	54,2	326	20,4
<b>Guztira</b>	730	<b>45,6</b>	324	<b>20,3</b>	545	<b>34,1</b>	1.599	<b>100,0</b>

Lehen begiradan datuak heterogeneoak direla nabaritzen da:

- A publikoko ikasle gehienak euskaldun gutxiago bizi diren eremuan eskolaratuak daude eta ez dago bat ere euskaldunen kopurua %63 baino handiagoa den herrietan.
- A itunpekoko gehienak ere euskaldunen kopurua %50era heltzen ez den eremuan daude, baina presentzia handiagoa dute erdi mailako eremuan (euskaldunen kopurua %50 eta %63 artean) eta batzuk badaude eremu euskaldunenean ere.
- B ereduko geruza biek, nahiz eta ez duten banaketa bera, euskaldunen kopurua %63 baino handiagoa den herrietan ehuneko antzekoa dute. Gainera, B publiko eta B itunpekoko ikasle gehienak lehenengo eremuko ikastetxetara doaz. Desberdintasun handiagoa igartzen da bigarren eremuan B itunpeko ikasleen alde.
- D ereduko geruza bietan antzekotasuna nabaria da, alde batetik, euskaldunen kopuru ugariena, %63 baino gehiago den eremuan dago (apur bat gehiago D itunpekoan) eta, bestalde, biek presentzia urriena bigarren eremuan dute, batez ere D itunpekoak.


Emaitzei dagokienez, hizkuntza eremuaren arabera geruzetako ikasle gaitutuen datuak honakoak izan dira:

### Proba gaitu duten ikasleak zonalde soziolinguistikoa eta geruzen arabera

Geruzak	%50 euskaldun eta ia euskaldun gehienez		%50-%63 euskaldun eta ia euskaldun		%63 euskaldun eta ia euskaldun gutxienez		Guztira	
	K	%	K	%	K	%	K	%
A publikoa	0	0,0	0	0,0			0	0,0
B publikoa	12	15,9	10	30,2	5	19,9	27	20,1
D publikoa	96	55,3	67	64,4	122	44,7	284	51,7
A itunpekoa	1	1,2	1	2,2	0	0,0	2	1,4
B itunpekoa	49	27,2	37	30,7	34	58,3	121	33,5
D itunpekoa	64	48,5	12	68,4	101	57,2	177	54,3
<b>Guztira</b>	<b>222</b>	<b>30,4</b>	<b>127</b>	<b>39,1</b>	<b>262</b>	<b>48,1</b>	<b>611</b>	<b>38,2</b>

Diferentziak %95eko fidagarritasunez.

### 28. grafikoa. B1 euskara proba: gaitu duten ikasleak zonalde soziolinguistikoa eta geruzaren arabera



Indizeek hazteko duten joera nabarmentzen da. Dena dela, grafikoa agertzen diren sigi-saga guztiek ez dute diferentzia esanguratsurik adierazten, nahiz eta indize batzuen arteko distantzia handia izan. Funtsean arrazoia honakoa da: gaitu duten kopuruak, geruzen eta hizkuntza eremuaren arabera aztertuta, 18 taldetan bereizten dira; beraz, talde gehien ikaslearen kopurua eskasa da eta horiei buruz ezin da ondorioz atera.

Diferentzia esanguratsuak (%95eko fidagarritasunez) bakarrik honakoak dira: alde batetik, D publikoan goi mailako euskaldunen kopurua (%44,7) eta erdi mailakoaren (%64,4) artean eta, beste aldetik, B itunpekoan euskaldunen kopurua goi mailako eremuko (%58,3) taldeko emaitzen eta beste bi taldekoen artean (%30,7 eta %27,2, hurrenez hurren).

Koadroetan aztertzen diren emaitzak, ikastetxeen kopurua ikusita, koherenteak dira. Kasu batzuetan, ikastetxe kopuru oso baxuek eusten dituzte datu horiek.


Beste kasu batzuetan, ordea, arazoa ez da kopuruarena. Ikus dezagun, esaterako, D publikoaren ikaslearen emaitzak: lurralde euskaldunetan emaitzak apalagoak dira (%44,7) lurralde ez hain euskaldunetan baino (%55,3). Nahiz eta datu horiek aldagaiekin alderatu eta sakonki aztertu diren, ez dute esplikazio logikorik.

### 3.2.3. Zonalde soziolinguistikoa eta ikasleen familiaren hizkuntzaren arabera emaitzak

Hurrengo koadroan bi faktoreen eragina aztertzen da: ikasleek zein eremu soziolinguistikotan ikasten duten eta zein den etxean erabiltzen den hizkuntza. Hona hemen proba gainditu duten ikasleen datuak, ingurune eta familia egoerak kontuan hartuta:

Zonalde soziolinguistikoa	Gainditu duten ikasleak			
	Familiaren hizkuntza		Familiaren hizkuntza	
	Euskararik ez	Euskararik ez	Euskara	Euskara
	K	%	K	%
%50 euskaldun eta ia euskaldun gehienez	185	27,4	37	67,9
%50-%63 euskaldun eta ia euskaldun	88	32,3	38	75,0
%63 euskaldun eta ia euskaldun gutxienez	97	36,8	165	58,6
<b>Guztira</b>	<b>370</b>	<b>30,5</b>	<b>241</b>	<b>62,1</b>

29. grafikoa. B1 euskara proba: gainditu duten ikasleak zonalde soziolinguistikoa eta familiaren hizkuntzaren arabera



Datuak aztertzean hurrengo ondorioak atera ditugu:

Lehenengoa: familiaren hizkuntza eraginkorra da. Euskaraz hitz egiten duten familietako ikasleen %62,1ek gainditu du euskara proba, A, B ala D ereduak eskolatua egon arren. Bestalde, familiako hizkuntza euskara ez den kasuan, ikasleen %30,5ek gainditu du proba. Hau da, euskaraz hitz egiten dutenen erdiak baino pixka bat gutxiagok (bien arteko diferentzia 31,6 puntukoa da) gainditu du. 2004ko B2 proban joera nahiko antzekoa igarri zen, bi talde horien arteko aldea 34,0 puntukoa izan baitzen.

Bigarrena: euskaraz mintzatzen ez diren familietako ikasleek, hizkuntza eremu euskaldunean bizi badira, 9,4 puntu gehiago eskuratzen dituzte. Izan ere, biztanle euskaldunen kopurua erdi mailakoa den eremuetako ikastetxetara doazenak talde horren batez bestekotik pixka bat gora kokatzen dira (1,8 puntu gehiago). Halaber, ikasle horien eta euskaldunen kopurua behe mailakoa den eremuan bizi diren ikasleen arteko aldea nabarmena da, 4,9 puntura iritsiz. Beraz, euskaraz hitz egiten ez den familietako ikasleei hizkuntza eremu euskaldun batean bizi eta harremanak izateak balio erantsia ekartzen die. Dena dela, hiru taldeak probaren gaindituen batez besteko orokorraren (%38,2) azpitik geratu dira (hizkuntza eremu euskaldunean bizi direnak 1,4 puntura bakarrik).

Eta hirugarrena: euskara familiaren hizkuntza duten ikasle gaindituen kopurua probaren batez bestekoa baino altuagoa da hiru taldeetan. Hala ere, emaitzak ez dira espero ziren modukoak. Euskaldun kopurua %50-63 mailako baino

baxuagoa diren eremuetan bizi direnek gaintitu kopuru handiagoa lortu dute: hizkuntza eremu euskaldunetan bizi direnei 16,4 puntu atera dizkiete. DBHko B2 euskara proban ere kontraesanezko datuak eman dira<sup>12</sup>. 2004ko proban, 2006koan bezala, gaintituen kopuru handiena euskaldunen kopurua erdi mailakoa den eremuetako ikastetxetara doazenez lortu dute. Hala ere, proba hartan emaitzarik apalenak euskaldunen kopurua urriagoa den eremukoek atera dituzte eta, aldiz, B1 proban euskaldun kopuru handienetakoek lortu dute emaitza eskasena. Beraz, kontrolatu ez diren beste aldagai batzuek hortxe dute eragina.

### 3.2.4. Hizkuntza eremuen eta hizkuntza ereduaren arabera

Hizkuntza eremuen eragina aztertzerakoan, emaitzak hizkuntza ereduarekin erlazionatu ditugu. 2004ko B2 proban B eta D ereduko ikasleek hartu dute parte; aldiz, 2006ko B1 proba hizkuntza sistema egituratzen dituen A, B eta D ereduaren ikastaldeen aplikatu da<sup>13</sup>.

Ikus dezagun geruza horien sakabanatzea hizkuntza eremuen arabera:

#### Ikasleen banaketa hizkuntza eremuetan hizkuntza ereduaren arabera

	A eredia		B eredia		D eredia		Guztira	
	K	%	K	%	K	%	K	%
%50 euskaldun eta ia euskaldun gehienez	169	<b>73,4</b>	255	<b>51,8</b>	305	<b>34,9</b>	730	<b>45,6</b>
%50-%63 euskaldun eta ia euskaldun	50	<b>21,7</b>	153	<b>31,1</b>	121	<b>13,8</b>	324	<b>20,3</b>
%63 euskaldun eta ia euskaldun gutxienez	11	<b>5,0</b>	84	<b>17,1</b>	449	<b>51,3</b>	545	<b>34,1</b>
<b>Guztira</b>	230	100,0	493	100,0	876	100,0	1.599	<b>100,0</b>

Datuek laginari buruz ondokoa utzi dute agerian:

- A ereduko ia lau ikaslerengandik hiru, euskaldun-kopurua %50 baino gutxiago duen eremuko ikastetxe batera doa.
- B ereduko ikasleen erdiak baino apur bat gehiagok euskaldun-kopurua %50 baino gutxiago duen eremuko ikastetxe batean ikasten du eta ia heren batek euskaldunen kopurua %50 eta %63 artean dagoen eremuko ikastetxeetan.
- D ereduan ikasleen erdia baino pixka bat gehiago euskaldun-kopurua %63 baino gehiago duen eremuko ikastetxeetan eskolatuak dira eta baita heren bat baino gehiago euskaldun gutxiago dagoen eremuko ikastetxeetan.

Emaitzei dagokienez, hizkuntza eremuaren arabera ereduaren ikasle gaintituen datuak honako taula eta grafikoan ikus ditzakegu:


#### Gaintitu duten ikasleak

	A eredia		B eredia		D eredia		Guztira	
	K	%	K	%	K	%	K	%
%50 euskaldun eta ia euskaldun gehienez	1	<b>0,7</b>	61	<b>23,9</b>	160	<b>52,4</b>	222	<b>30,4</b>
%50-%63 euskaldun eta ia euskaldun	1	<b>2,0</b>	47	<b>30,6</b>	79	<b>65,0</b>	127	<b>39,1</b>
%63 euskaldun eta ia euskaldun gutxienez	–	–	39	<b>46,8</b>	223	<b>49,6</b>	262	<b>48,1</b>
<b>Guztira</b>	2	<b>1,0</b>	147	<b>29,9</b>	461	<b>52,7</b>	611	<b>38,2</b>

(12) Ikus ISEI-IVEI (2005): Euskararen B2 maila. 62. orrialdea.

(13) Ikus 2.3 atalean (32. orrialdea) adierazten diren hizkuntza ereduaren emaitzak.

30. grafikoa. B1 euskara proba: gainditu duten ikasleak zonalde soziolinguistikoa eta hizkuntza ereduen arabera



Emaitza batzuk harrigarriak irudi arren, bi diferentzia bakarrik izan dira esanguratsuak (%95eko fidagarritasunez), honakoak hain zuzen: alde batetik, B ereduan goi mailako euskaldunen kopurua duen eremuko taldearen (%46,8) eta beste bi taldeen artean dagoen aldea esanguratsua da; beste alde batetik, D ereduan erdi mailako euskaldunen kopurua duen eremuan dauden taldeak (%65,0) diferentzia esanguratsua du beste bi taldeetako emaitzekin (%52,4 eta %49,6, hurrenez hurren).

Desberdintasun horiek ondoko taulan irudikatzen dira<sup>14</sup>; hasieran B ereduaren koadroa:

Alde esanguratsuak B ereduan hizkuntza eremuaren arabera

	B eredia (%50 euskaldun gehienez)	B eredia (%50-%63 euskaldun)	B eredia (%63 euskaldun gutxienez)
B eredia (%50 euskaldun gehienez)		=	↓
B eredia (%50-%63 euskaldun)	=		↓
B eredia (%63 euskaldun gutxienez)	↑	↑	

Diferentziak %95eko fidagarritasunez.

D ereduaren koadroa:

Alde esanguratsuak D ereduan hizkuntza eremuaren arabera

	B eredia (%50 euskaldun gehienez)	B eredia (%50-%63 euskaldun)	B eredia (%63 euskaldun gutxienez)
D eredia (%50 euskaldun gehienez)		↓	=
D eredia (%50-%63 euskaldun)	↑		↑
D eredia (%63 euskaldun gutxienez)	=	↓	

Diferentziak %95eko fidagarritasunez.

Datuen esanguratsutasun maila kontuan izanda, ondokoa antzeman dugu:

Lehenengoa: A ereduko gaitzuen kopurua oso eskasa izan da, bi ikasle baino ez baitira izan.

Bigarrena: B ereduko ikasleentzat eraginkorragoa erakutsi da euskaldunen kopurua %63 baino gehiago den eremuko ikastetxe batean ikastea. Egoera horretan aurkitzen direnak probaren batez bestekoaren gaitetik geratu diren bakarrak dira. Beste bi taldeen emaitzen arteko aldea ez da esanguratsua izan, handia dirudien arren.

(14) Ez da aztertu A ereduari buruzko aldeak esanguratsuak ote diren ikasle gaitzuen kopurua eskasegia izan delako eta, beraz, estatistikoki baliogabekoa.

Hirugarrena: badirudi D ereduko ikasleengan euskaldunen kopurua %50 eta %63 artean dagoen ikastetxeetara joateak bakarrik duela eragin positiboa. Berrito ere, beste bi eremuetako ikasleek lortu duten emaitzen arteko aldea ez da esanguratsua izan.

### 3.3. Familiaren aldagaiak

#### 3.3.1. Familiaren indize sozioekonomiko eta kulturala (ISE1 indizea)

ISE1 indizea aukeratu dugu baloratzeko familien ezaugarriek duten eragina ikasleen emaitzetan. ISE1 indizea honako bi aldagaietatik kalkulatzen da: HISHEST (HISEI gehi familiaren ikasketen maila altuena —HESTUD— batuketaren emaitza) eta POSOIPRL (zenbait ondasunak kultura maila neurtzen dute).

Hauetariko sigla batzuk azaldu egingo ditugu eta, beherago, eskema batetan bilduko ditugu ISE1 indizearen osagarriak.


- HISEI. Euskal Herriak parte hartzen duen nazioarteko ebaluazioek argi azaltzen dute familiaren maila sozioekonomikoak eta lanbideak ikasleen emaitzetan duten eragina (adibidez, PISA proiektuak eta TIMSS ebaluazioak). Horregatik, azken urteetan egin ditugun ebaluazioetan kontu handiz aztertu dugu HISEI indizea. Adibidez, Lehen Hezkuntza 2004 eta B2<sup>15</sup> deitutakoan (Derrigorrezko Hezkuntza amaitzen dutenean euskara maila ezagutzeko egin genuena) emaitzak aldagai honen arabera aztertu ziren. B1 Euskara Ebaluazioaren emaitzak hobeto ulertzeko familiaren indize bat jarri dugu (HISEI<sup>16</sup> deitutakoa) ikasleek emandako zenbait erantzunen ondorioz. Neska-mutilei emandako galde-sortan gurasoen lanbide eta ikasketei buruzko zenbait galdera biltzen ziren. Ikasleen erantzunak kodifikatu egin ziren eta ISCO<sup>17</sup> kodea zehaztu zen. Indize honek nazioarteko sailkapen bat jarraitzen du eta lanbideen estatusak lau taldetan ordenatzen ditu. ISCO kodea ISEI (Internacional Socio-economic Index) indizea bihurtzen da eta, informazio iturrietatik, indize altuena (aitarena ala amarena) aukeratzen da HISEI definitzeko.
- HESTUD. Indize honek neurtzen du familiaren ikasketen maila altuena (aita eta amaren ikasketak ezagututa, altuena aukeratzen da).
- HISHEST. Aldagai hau ikasleek emandako informaziotik sortzen da eta HISEI eta HESTUD indizeen batuketa da.
- POSOIPRL. Aldagai hau lortzeko zenbait indize konbinatu egiten dira: etxean liburuak izatea, ordenagailua (Internet konexioa kontuan izanda) eta prentsa irakurtzea (egunkari eta aldizkariekin batera B1 ebaluazioan garrantzitsua suertatu da kontsulta liburuak etxean izatea). POSOIPRL aldagaia ISE1 indizea kalkulatzeko erabili da HISHEST aldagaiekin batera.

Azaldutako ISE1 indizearen egitura konplexua, honako eskeman bildu dugu:

(15) B2 proba ISEI-IVEIek egin zuen 2004. urtean. Proba honen helburua zen euskara maila neurtzea derrigorrezko hezkuntza amaitzen dutenean (DBH 4. mailan). Emaitzen argitalpena webgunean dago: <http://www.isei-ivei.net/eusk/indexeuskB2.htm> eta <http://www.isei-ivei.net/cast/indexcasB2.htm> (gaztelaniazko bertsioa).

(16) Ingeleseko sigletatik *High International Socio-Economic Index*.


(17) ISCO. International Socio-Economic Index of Occupational Status. Paper, University of California. Los Angeles (AEB), 1990.eko abendua.



Goian aipatu dugun bezala, emaitzak hobeto ulertzeko oso garrantzitsuak dira maila sozioekonomikoa, gurasoen ikasketak eta zenbait ondasun eskura izatea (liburuak, ordenadore, Internet konexioa, egunkaria, aldizkariak gehi kontsulta liburuak).

ISE1 indizearen puntuazioen arabera, lau talde oso antzekoak antolatu ditugu. Hurrengo taulan honela deitu ditugu: behe maila, behe-erdi maila, erdi-go maila eta goi maila.

31. grafikoa. ISE1 indizea



Azpimarragarria da aldagai horretan ikasle kopuru bat galdu egin dela; hortaz, galdera batzuen erantzunen eza dela eta, erantzunak ez daude aldagai guztietan berdin banatuta eta datuek zenbait joera zehatz bat har dezakete.

Sexuen arabera, parekatuta daude nesken eta mutilen multzoak indize sozioekonomiko eta kulturalaren lau mailetan.

Berriz, ereduaren arabera aztertzen badugu, alde esanguratsuak agertzen dira D ereduak gainontzeko biak baino maila sozioekonomiko altuagoa daukalako. A ereduak egoera oso kontrastatuak ematen ditu, multzo handienak goi eta beheko mailetan dituelako. Aurrerago saiaturiko gara egoera hori azaltzen. Estatistikoki, B eta A ereduaren artean ez dago alde esanguratsurik, ISE1 indizearen maila bakoitzean ikasle portzentajearen sakabanaketa begiratuta. B ereduak kopuru handia dauka beheko mailetan eta kopuruak txikitzen doaz ISE1 mailak handitzen diren heinean. Alderantziz, D ereduak kopuru handiagoak ditu goiko mailetan eta txikiagoak behekoetan.


Geruzaren arabera (ereduak gehi sarea) datuak aztertzen baditugu, A ereduaren aipatutako polarizazioak hobeto ulertzen dira. ISE1 indizearen mailetan ikasleen sakabanaketak alde esanguratsuak ditu. Konkretuki, maila sozioekonomiko eta kultural altuenak A itunpekoan, D publikoan eta D itunpekoan ematen dira eta hiruren artean ez dago alderik. A publikoak maila baxuena dauka B publikoan eta B itunpekoaren atzetik, alde esanguratsuekin.

Familiaren hizkuntzaren arabera, ikasleen portzentajea igotzen da ISE1 indizearen maila igotzen den heinean, euskaldunak direnean. Kontrakoa gertatzen da, beraz portzentajea beherantz doa, familiako hizkuntza euskara ez denean.

B1 proban parte hartu duten A publikoko ikastetxe guztiek indize sozioekonomiko negatiboa daukate. B publikoan ikastetxe batean aurkitzen dugu indize positiboa eta B itunpekoan oreka gehiago ikusten da (zenbait ikastetxe goi eta beheko mailetan).

Laburbilduta, familiaren hizkuntza euskara denean, ISE1 indizea altuagoa da. Familiaren hizkuntza aldagaiaren bi taldeen arteko aldea globala da (adibidez, A publikoan ez dago inor Euskara taldekoa) baina ez dago alderik geruzaz geruza aztertzen bada.

**32. grafikoa. B1 euskara proba: ikasle kopurua familia hizkuntza eta ISE1 indizearen arabera**



Goiko grafikoak oso irudi argia ematen du familiaren hizkuntza eta maila sozioekonomiko eta kultura aztertzeko. Familiaren hizkuntza euskara denean, % beherantz doa (%17,9) eta euskara ez denean gorantz (%27,4). Alderantziz gertatzen da erdi-goi eta goi mailetan.

### 3.3.2. Emaitzak ISE1 indizearen mailen arabera

Beheko taulan eta grafikoan ikusten denez, gainditu duten ikasleen kopurua altuagoa da familiaren ISE1 indizea altuagoa denean. Maila desberdinen arteko alde esanguratsuak ikusten dira: gaindituen portzentajea kontuan izanda, goiko mailen artean ez dago alderik; hauek behe-erdi maila baino altuagoak dira eta guztiok behe maila baino altuagoak.




Proba gaitu duten ikasleak

	K	%
Behe maila	347	22,4
Behe-erdi maila	349	39,8
Erdi-goi maila	348	50,5
Goi maila	347	53,1
<b>Guztira</b>		<b>38,2</b>

Hau da grafikoa:

33. grafikoa. B1 Euskara proba: proba gaitu duten ikasleak familiararen indize sozioekonomiko eta kulturalaren arabera (ISE1)




3.3.3. Emaitzak ISE1 indizea eta hizkuntza ereduaren arabera

Atal honetan, ISE1 indizea eta hizkuntza ereduaren arabera aztertuko ditugu datuak. Lehenik, ikasle gaituak ehunekoak aurkeztuko dugu eta, azkenik, ikasleek Euskara proban izandako batez besteko puntuazioak.

Proba gaitu duten ikasleak

ISE1	A erdua		B erdua		D erdua	
	K	%	K	%	K	%
Behe maila	1	1,1	28	22,7	69	30,0
Behe-erdi maila	0	0,0	33	28,8	55	55,1
Erdi-goi maila	1	2,4	48	48,9	126	60,9
Goi maila	0	1,0	29	43,5	155	67,3
<b>Guztira</b>		<b>1,0</b>		<b>29,9</b>		<b>52,7</b>

### 34. grafikoa. B1 Euskara proba: ikasleen emaitzak indize sozioekonomiko eta kulturala eta hizkuntza ereduaren arabera



Proba gainditu duten ikasleen kopurua aztertzerakoan, zenbait alde esanguratsu agertzen dira.


- A eredian ez dago alderik ISE1 mailen arabera.
- B eredian behe eta behe-erdi mailetakoen kopurua berdina da eta horrelaxe gertatzen da erdi-go eta goi mailetan.
- D eredian behe mailan ematen da besteekiko desberdintasun nabariena. Erdiko maila biak berdinak dira, gaindituen kopurua ikusita ez daukate alderik.

Taula eta grafikoen ikustenenez, ikasleen emaitzak altuagoak dira ISE1 indizearen arabera. Beraz, zenbat eta maila altuagoa familian, orduan eta emaitza hobek. Honarako tendentzia hiru ereduetan ematen da eta, haien artean, bakarrik behe mailakoek dituzte batez bestekoa baino emaitza baxuagoak.

#### Ikasleen batez besteko puntuazioak

ISE1	A eredia		B eredia		D eredia	
	K	%	K	%	K	%
Behe maila	61	26,9	122	57,6	164	63,8
Behe-erdi maila	41	33,9	116	62,7	192	70,4
Erdi-go maila	42	38,4	98	67,7	207	71,4
Goi maila	51	40,5	66	68,2	231	73,5
<b>Guztira</b>		<b>33,7</b>		<b>61,0</b>		<b>69,5</b>

### 35. grafikoa. Ikasleen batez besteko puntuazioak hizkuntza ereduaren eta ISE1 indizearen arabera



Estatistikoki aztertuta, alde esanguratsuak daude hiru hizkuntza ereduetan:

- A ereduko ISE1 indizearen behe mailak gainontzekoek baino puntuazio (batez besteko puntuazioen ehunekoa neur-tuta) baxuagoak ditu. Goiko ISE1 mailen artean ez dago desberdintasunik.
- B ereduko behe mailak gainontzekoek baino puntuazio txikiagoak dauzka, behe-erdi mailak goikoak baino punta-zio txikiagoa eta ez dago alderik erdi-goi eta goi mailen artean.
- D ereduan egoera berbera ematen da behe mailan (gainontzeko guztietan baino emaitza baxuagoak daudela), erdi-goi eta goi mailen artean ez dago alderik eta haiek puntuazioen ehunekoa altuagoa daukate behe-erdi eta behe mailek baino.


### 3.3.4. Emaitzak ISE1 indizea eta geruzen arabera

Beheko taulan eta grafikoan ikasle gaindituen portzentajeak ordenatuko ditugu maila sozioekonomikoaren eta kultu-ralaren eta geruzen arabera.

Gainditu duten ikasleak ISE1en arabera

ISE1	A publikoa		B publikoa		D publikoa		A itunpekoa		B itunpekoa		D itunpekoa	
	K	%	K	%	K	%	K	%	K	%	K	%
Behe maila	37	0,0	6	13,7	25	25,0	1	2,9	21	27,9	25	37,4
Behe-erdi maila	13	0,0	8	23,2	69	52,6	0	0,0	26	31,9	37	60,3
Erdi-goi maila	6	0,0	5	26,8	81	63,6	1	2,8	43	54,4	46	56,7
Goi maila	2	0,0	5	52,8	97	67,0	0	1,0	24	42,1	58	67,9
<b>Guztira</b>		<b>0,0</b>		<b>20,2</b>		<b>51,7</b>		<b>1,4</b>		<b>33,5</b>		<b>54,3</b>

36. grafikoa. B1 euskara proba gainditu duten ikaslea: geruza era ISE1 indizearen arabera



Ikasle gaindituen ehunekoa aztertuta, zenbat alde esanguratsuak agertzen dira.


- A publikoan zein itunpekoan eta B publikoan ez dago alderik lagina txikia delako.
- D publikoaren behe mailak ikasle gaindituen kopuru txikiagoa dauka gainontzekoek baino. Gainontzeko ISE1 mailetan ez dago alderik.
- B itunpekoan, behe, erdi-behe eta goi mailen artean ez dago alderik eta erdi-goi mailak gaindituen kopuru altuagoa dauka.

Beheko taulan eta grafikoan lagin berberaren emaitzak ordenatzen dira eta ikasleen batez besteko puntuazioen artean alde esanguratsuak azaltzen dira.

## Ikasleen batez besteko puntuazioak

ISE1	A publikoa		B publikoa		D publikoa		A itunpekoa		B itunpekoa		D itunpekoa	
	K	%	K	%	K	%	K	%	K	%	K	%
Behe maila	37	23,5	45	52,1	99	62,7	23	32,3	77	60,7	66	65,6
Behe-erdi maila	13	29,5	32	57,3	131	70,0	28	36,0	83	64,8	61	71,4
Erdi-go maila	6	30,4	20	62,1	127	71,2	36	39,7	79	69,1	80	71,6
Goi maila	2	17,4	9	66,4	145	72,7	49	41,6	57	68,5	86	74,7
<b>Guztira</b>		<b>25,2</b>		<b>54,4</b>		<b>68,8</b>		<b>37,4</b>		<b>63,4</b>		<b>70,6</b>

37. grafikoa. B1 euskara proba: ikasleen puntuazioa ISE1 eta geruzen arabera



Datuak estatistikoki aztertuta, zenbait alde esanguratsu ikusten dira ikasleen puntuazioetan. Hona hemen aipagarrienak:

- A publikoaren emaitzak baxuagoak dira ISE1 indizearen beheko mailan behe-erdi mailan baino. Goi mailan jaitziera nabarmen egiten du (17,4) baina kontuan eduki behar da ikasleen kopurua oso urria dela (2 ikasle), beraz datua ez da erabat fidagarria.
- B publikoan eta A itunpekoan antzeko egoera ematen da. ISE1 indizearen beheko eta behe-erdi mailak berdinak dira. Ez dago alderik behe-erdi, erdi-go maila eta goi mailen artean, ikasle kopuru eskasaren eraginagatik.
- B itunpekoan behe mailak puntuazio baxuagoak ditu. Erdi-go eta goi mailen artean ez dago alderik.
- D publiko eta D itunpekoan behe mailak puntuazio baxuagoak ditu eta ez dago alderik gainontzeko ISE1 indizearen mailetan.


## 3.3.5. Emaitzak ISE1 indizea eta familiaren hizkuntzaren arabera

Atal honetan, emaitzak aztertuko ditugu bi aldagai elkarrekin jarrita: maila sozioekonomiko eta kulturala familiaren hizkuntzaren arabera. Aipatzekoa da ISE1 lau mailetan alde nabariak daudela familiaren hizkuntza euskara izanda ala ez izanda. Alde esanguratsu hau ikasle gaindituen ehunekoetan agertzen da eta ikasleek lortutako puntuazioetan.

## Proba gaindiu duten ikasleak

ISE1	Euskararik ez		Euskara	
	K	%	K	%
Behe maila	53	18,7	25	38,3
Behe-erdi maila	80	30,9	59	65,6
Erdi-go maila	116	46,2	60	61,6
Goi maila	101	42,2	83	77,4
<b>Guztira</b>		<b>30,5</b>		<b>62,1</b>

**38. grafikoa. B1 euskara proba: gainditu duten ikasleak familia hizkuntzaren eta ISE1 indizearen arabera**



Goiko taula eta grafikoa ikusten denez, familiaren hizkuntza euskara denean agertzen den alde bakarra ISE1 indizearen beheko mailako gaituen kopuru baxua da. Erdi eta goi maila sozioekonomikoen artean ez dago alderik gaituen kopuruan.


Familiaren hizkuntza euskara ez denean, behe mailako gaituen kopurua gainontzeko mailetakoa baino baxuagoa da. Behe-erdi mailako gaituen kopurua erdi-go eta goi mailen kopuruena baino baxuagoa da.

Beheko taula eta grafikoen bidez, datu hauek adierazten dira:

**Ikasleen batez besteko puntuazioak**

ISE1	Euskararik ez		Euskara	
	K	%	K	%
<b>Behe maila</b>	283	52,6	64	66,3
<b>Behe-erdi maila</b>	260	60,0	90	73,7
<b>Erdi-go maila</b>	251	63,8	97	72,8
<b>Goi maila</b>	240	63,3	107	77,3
<b>Guztira</b>		<b>58,1</b>		<b>73,1</b>

**39. grafikoa. B1 euskara proba: ikasleen puntuazioa ISE1 indize eta familia hizkuntzaren arabera**



Grafikoan ikusten denez, familiaren hizkuntza euskara denean emaitza altuagoak lortzen dira eta horrela ematen da ISE1 indizearen arabera egin ditugun lau multzoetan. Familiaren hizkuntza bata zein bestea denean, behe-mailako puntuazioaren batez bestekoa baino emaitza baxuagoak ematen dira. Gainontzeko kasuetan, erdi eta goi mailako ikasleek batez bestekoa baino emaitza altuagoak lortzen dituzte.

Estatistikoki aztertuta, ISE1 indizearen behe mailako puntuazioak gainontzekoak baino baxuagoak dira, familiaren hizkuntza euskara izanda zein ez izanda.

- Familiaren hizkuntza euskara ez denean, erdi-goi mailako emaitzak altuagoak dira behe-erdi mailakoak baino. Erdiko bi mailetan ez dago alderik goi mailako ikasleekin, puntuazioak kontuan izanda.
- Familiaren hizkuntza euskara denean, indizearen erdi eta goi mailen artean ez dago alderik.


### 3.4. Ikasleen aldagaiak

#### 3.4.1. Ikasleen sexuaren arabeko emaitzak

Beheko grafikoan, sexuaren arabeko ikasleen banaketa ikus dezakegu. Neska eta mutilen ehunekoa oso orekatuta dago, %50etara hurbiltzen delako.

Ereduei erreparatuta, B eta D ereduak portzentajea antzekoak lortu dituzte, A ereduaren portzentaian desberdintasunak topatzen ditugu. A publikoan neska baino mutil gehiago daude; A itunpekoan alderantzizko egoera aurkitzen dugu, mutilak neskek baino ugariagoak dira. Geruza horretan diferentzia nabaria da: mutilak %60,8 eta neskek %39,2.

40. grafikoa. Sexua



Indize sozioekonomikoari dagokionez, esan dezakegu behe mailan, behe-erdi mailan eta goi mailan antzekotasun handia dagoela, baina erdi-goi mailan nesken portzentajea mutilena baino altuagoa da.

Bestalde, etxean euskaraz hitz egiten duten nesken portzentajea altuagoa da mutilena baino.


Ikasleen sexuaren arabera, emaitza desberdinak ikusten dira: nesken %41,3k gainditu du eta mutilek %35,1. Aldea esanguratsua da.

Ondoko taulan eta grafikoan garbi azaltzen da desberdintasun hori:

Sexua	Proba gainditu dutenak	
	K	%
<b>Neskak</b>	328	<b>41,3</b>
<b>Mutilak</b>	283	<b>35,1</b>
<b>Batez bestekoa</b>	611	<b>38,2</b>

%95ean badago diferentzia.

**41. grafikoa. B1 Euskara proba: emaitzak ikasleen sexuaren arabera**



Beste proba batzuetan bezala, (B2 Euskara proba, PISA, 2005 Lehen Hezkuntza...) honetan ere neskek emaitza ho-beagoak ateratzen dituzte mutilek baino, %6,2ko aldea dago hain zuzen ere.

### Ikasleen sexu eta familiaren hizkuntzaren arabeko emaitzak

Proba gainditu duten ikasleek, sexua familiako hizkuntzarekin alderatuta, horrelako datuak eskaintzen dituzte:


- Neskak: etxean euskaraz hitz egiten dutenen artean, %66,7k gainditzen dute. Etxean euskaraz hitz egiten ez dutenek %33,7k gainditu dute.
- Mutilak: kasu guztietan emaitza apalagoak izaten dituzte. Euskaraz etxean hitz egiten ez dutenen artean %27,3k gainditu dute. Euskaraz hitz egiten dutenen artean, %58,1ek.

### Gainditu duten ikasleak familiaren hizkuntzaren arabera

Familiaren hizkuntza	Neska		Mutil	
	K	%	K	%
<b>Euskararik ez</b>	206	33,7	164	27,3
<b>Euskara</b>	122	66,7	119	58,1
<b>Batez bestekoa</b>	328	<b>41,3</b>	283	<b>35,1</b>

Euskaldunen artean, neska eta mutilen arteko desberdintasuna ez da esanguratsua; bestalde, etxean euskaraz hitz egiten ez dutenen artean bai, aldea esanguratsua da.

**42. grafikoa. B1 euskara proba: ikasleen sexua eta familia hizkuntzaren arabera emaitzak**




### Ikasleen emaitzak sexu eta hizkuntza ereduaren arabera

Grafikoan ageri den legez, B ereduaren nesken eta mutilen emaitzak oso antzekoak dira: %29,6 eta %30,2, hurrenez hurren. Desberdintasunak ez dira esanguratsuak. A ereduaren ere antzeko egoera nabaritzen da.

D ereduaren ordea, desberdintasunak esanguratsuak dira: nesken %59,6k gainditu dute eta mutilen %46. Datuak hurrengo grafikoan irudikatu ditugu:

**43. grafikoa. B1 euskara proba: gainditu dutenak sexua eta hizkuntza ereduaren arabera**




Hortaz, D ereduaren nesken eta mutilen arteko desberdintasuna esanguratsua da, %13,6 puntukoa da; beste ereduaren ez da desberdintasun esanguratsurik ematen. Euskara ezagupen handiena ematen den ereduaren beraz, neskek dute emaitzarik altuenak.



Hurrengo grafikoan nesken eta mutilen puntuazioak irudikatu ditugu. Datu horiek osagarri moduan uler daitezke.

**44. grafikoa. B1 euskara proba: sexua eta hizkuntza ereduaren arabera puntuazioak**




**Ikasleen emaitzak sexu eta geruzen arabera**

Atal honetan, nesken eta mutilen puntuazioak agertzen dira, geruzak kontuan izanda (hots, hizkuntza ereduak eta ikastetxeetako sareak).

Honako grafikoa dugu:

**45. grafikoa. B1 euskara proba: ikasleen puntuazioak sexu eta geruzen arabera**




Datu horien arabera, A eta B ereduetan, zein publikoetan edo itunpekoetan, nesken eta mutilen artean ez dago desberdintasun esanguratsurik. Aldiz, D publiko eta itunpekoetan alde esanguratsua badago, nesken alde.

Nesken kasuan, eredu bakoitzeko geruzen artean ez dago alde esanguratsurik; aldiz, mutilen kasuan, B ereduaren bada-go diferentzia esanguratsua B itunpeko eta publiko emaitzetan, B itunpekoen alde.

Beste datuak gehitzeko hurrengo grafikoan ikus ditzakegu ikasleen puntuazioak sexua eta geruzak kontuan izanik.

46. grafikoa. B1 Euskara proba: ikasleen puntuazioa sexu eta geruzen arabera




### 3.4.2. Ikasle errepikatzaileak

#### Errepikatu duten ikasleen ezaugarriak

*Errepikatzaileen kopurua.* Euskara probaren lagina 1.599 ikaslek osatzen dute eta errepikapena aztertzeko kontuan izan dugun kopurua 1.597 izan dira, horrek esan nahi du 2 ikaslek ez zutela erantzun. Datu horien arabera %9,4k

47. grafikoa. Ikasturte bat errepikatu dutenak



ikasturte bat errepikatu du.

Sexuaren arabera, errepikatzaileen kopurua hau da: %11,0 mutilak dira eta %7,8 neskak.

Errepikatzaileek, hizkuntza ereduaren arabera, horrelako emaitzak izan dituzte: A ereduaren ikasleen %12k errepikatu du; B ereduaren, %11,2k eta D ereduaren %7,6k. Ikusten denez, A eta B ereduaren errepikatzaileen kopurua altuagoa da D ereduaren baino.

Geruzen arabera, errepikatzaileen portzentaje altuenak A eta B publikoetan topatzen ditugu: %20,6 eta %16,9, hurrenez hurren. Errepikatzaile kopuru baxuena D itunpekoan ematen da: %6,7. Gainontzekoetan, D publikoan eta A eta B itunpekoetan, errepikatzaile kopuruak antzekoak dira: %8,2, %8,3 eta %9,2, hurrenez hurren.


Familiaren indize sozioekonomikoa kontuan izanda, errepikatzaileen portzentaia nagusia behe mailan dago %19,40 kopuruarekin. Beste maila sozioekonomikoekin parekatzean, alde oso nabaria aurkitzen dugu: behe-erdi mailan %4,97, erdi-goian %5,55, eta goian %4,50. Errepikatzaile kopuru altuena, beraz, behe mailan kokatzen da.

Familiaren hizkuntza faktorea aztertzean, zera azaltzen da: errepikatzaileen %10,76k ez du euskara familiaren hizkuntza eta %5,11k, euskaraz hitz egiten du etxean. Errepikatzaileen kopuru altuagoa topatzen dugu euskaraz hitz egiten ez dutenen ikasleengan.

## Errepikatu duten ikasleen emaitzak

Errepikatu ez duten ikasleen artean %41,3k euskara proba gainditu du eta errepikatu duten ikasleen %5,9k besterik

**48. grafikoa. B1 Euskara proba: ikasle errepikatzaileen emaitzak**




ez du gainditu. Honako grafikoa biltzen dira datu orokorrak:

Geroago ikusiko dugunez, errepikatzaileen portzentajea txikiagoa da D ereduaren eta itunpeko sareetan. Proporzio hau maila sozioekonomikoan ere gordetzen da, behe mailan izan ezik eta ikasle euskaldunen artean.

## Errepikatzaileen emaitzak hizkuntza ereduaren eta geruzen arabera

Atal honetan, errepikatzaileen ehunekoa geruzen eta ereduaren arabera aztertzen da. Ondoko grafikoa agertzen dira datuak:


49. grafikoa. B1 euskara proba: errepikatzaileen emaitzak geruzen arabera



Ereduen arabera, honako ondorioak sortzen dira.

- A eredian, esanda dagoen legez, inork ez du proba gainditu.
- B eta D ereduetan, errepikatzaile eta ez errepikatzaileen artean alde esanguratsua dago (32,5 eta 43,3, hurrenez hurren). B eredian, errepikatzen ez duen ikasle gehiagok gainditzen du proba errepikatzen duenak baino. Gauza bera ikusten dugu D eredian.

50. grafikoa. B1 euskara proba: ikasle errepikatzaileen emaitzak geruzen arabera




- Errepikatzaile eta ez errepikatzaileen artean alde esanguratsua dago geruzak bakoitzean A publikoan eta itunpekoan izan ezik. Horrek esan nahi du D publikoan, errepikatzen ez duen ikasle gehiagok gainditzen duela proba errepikatzen duenak baino; halaber, D itunpekoan, B publikoan nahiz itunpekoan.

### Errepikatzaileen emaitzak sexuaren arabera

Errepikatzen ez dutenen artean neskek mutilek baino neurri handiagoan gainditzen dute euskara proba, alde hori esanguratsua da. Errepikatzaileen artean mutilek gainditzen dute gehiago baina desberdintasuna ez da esanguratsua.

51. grafikoa. B1 euskara proba: errepikatzaileen emaitzak sexuaren arabera




- Nesken artean, ez errepikatzaileek errepikatzaileek baino gehiago gainditzen dute proba eta alde hori (40,2) esanguratsua da.
- Mutilen artean gauza bera ikusten da. Beraien arteko aldea, 30,5, esanguratsua da.

### Errepikatzaileen emaitzak familiaren hizkuntzaren arabera

Datuak aztertuta, ematen du errepikatzaileen artean ere, etxeko hizkuntza euskara izateak eragina duela emaitza hobekoak lortzeko. Hona hemen grafikoa:

52. grafikoa. B1 euskara proba: errepikatzaileen emaitzak sexuaren arabera




- Errepikatzaile eta ez errepikatzaileen artean alde esanguratsua dago. Ikasle euskaldunen artean, errepikatzen ez dutenek errepikatzen dutenek baino neurri handiagoan gainditzen dute proba.
- Etxean euskaraz mintzatzen ez direnen artean berdin gertatzen da.
- Datuen arabera, ematen du familiaren hizkuntzak eragina daukala aldagai honetan, baina lagina txikiegia da hori baieztatzeko, errepikatzaile ez diren ikasleengan joera hori argiago nabaritzen bada ere.

## Errepikatzaileen emaitzak indize sozioekonomikoaren (ISEI) arabera

Ondorengo grafikoan gainditzen dutenen portzentajeak ikus ditzakegu, indize sozioekonomikoaren arabera.

**53. grafikoa. B1 euskara proba gaindituta: errepikatzea eta indize sozioekonomikoa**



- Errepikatzaile eta ez errepikatzaileen artean maila sozioekonomiko bakoitzean alde esanguratsua dago.
- Ez errepikatzaileen artean aldea esanguratsua da, maila sozioekonomikoak eragina dauka proba gainditzeko garaian.
- Errepikatzaileen artean ez dago alde esanguratsurik, hau da, ematen du maila sozioekonomikoak ez duela eraginik errepikatzaileen artean proba gainditzeko, baina joera hori ezin da baieztatu, lagina txikiegia da eta.


### 3.4.3. Euskara arloko noten eta B1 probako emaitzen arteko erlazioa

Galdera-sorta baten bidez ikasleei galdetu diegu zein zen joan den ikasturtean (5. mailan) lortutako Euskara arloko nota. Galdera honekin jakin nahi genuen nota horien eta B1 probako puntuazioaren artean erlaziorik zegoen. Lehen Hezkuntzako 5. mailakoa izan zen ikasleen azken ebaluazio osoa.

Argi dago hizkuntza eredu batzuetan erlazio hori baxua izango dela (adibidez A erudian). Izan ere, ezin dugu ahaztu euskara ikasle askorentzat bere bigarren hizkuntza dela. Hala ere, aztertzea oso interesgarria izan daiteke.

Jarraian ikus daiteke aldagai honen taula portzentajea guztiekin. Taulan, aldagai batzuekin erlazioatuta, aurkezten dira zehaztutako sei taldeak, pasa den ikasturtean euskara arloan lortutako noten arabera. Ikasleen %8,3k ez du galdera hori erantzun, beraz datu horiek ez ditugu erabili. Bestalde, portzentajea honek oso egoera ezberdina biltzen ditu.

54. grafikoa. Joan den urtean Euskara arloko nota




Aurreko taularen azterketatik honako datuok azpimarra ditzakegu:

- Zehaztutako taldeetako mutil eta nesken portzentajeak ia berberak dira edo hurbil daude.
- Hizkuntza ereduaren arabera, B eta D ereduak kalifikazio-talde bakoitzean portzentajea hurbilak lortu dituzte. A ereduiko ikasleek, berriz, oso joera diferentea erakusten dute. Beste datu batzuen artean zera aipa daiteke: Bikain nota lortu duten ikasleen portzentajea beste ereduetan baino handiagoa da.
- Geruzen arabera, egoera oso ezberdinak ikus daitezke, D ereduiko geruzetan bakarrik ematen du portzentajea banaketak joera antzekoa darrai.
- Indize sozioekonomikoen arabera joera argia ikus daiteke: maila hau zenbat eta altuagoa den, hainbat eta handiagoak dira arloko notarik altuenetan kokatutako ikasleen portzentajea.
- Bukatzeko, familiaren hizkuntzaren arabera datuen joera ere oso argia da: euskara familiaren hizkuntza bezala duten ikasleen %70 Bikain eta Oso ondo kalifikazio-taldeen kokatzen da; hala ere, euskara ez den beste bat familiaren hizkuntza denean ikasleen %50en baino gutxiagok lortu dituzte nota horiek.

Bestalde, ondoko grafikoak erakusten digu irakasleek nola puntuatzen dituzten beren ikasleak:

55. grafikoa. Euskara arloko notak ereduaren arabera




Nabaria denez, D eta B ereduaren kasuetan kurba ia berbera da; horrek esan nahi du irakasle bakoitzak bere taldeko erreferentzia erabiltzen duela puntuatzeko, horrela, emaitzak taldeko ezaugarrien arabera sortzen dira. Kanpoko erreferente batekiko puntuazioaren falta nabaria da.

B1 proba honetan, hizkuntza ereduaren arteko tartea zabalagoa da, ikasleek B1 mailako erreferentzia baitute.

### Proba gainditu duten ikasleen portzentajeak Euskara arloko noten arabera

Datorren grafikoa zera azaltzen da: B1 proban gainditu dutenen kopurua, aurreko ikasturteko notak erreferentzia hartuta.

56. grafikoa. B1 Euskara proba: gainditu duten Euskara arloko notak



Euskara arloko nota eta gaindituen portzentajeak arteko erlazioa nahiko argia da. Hala ere, datu batzuk harrigarri egiten dira lehen begiratuan *Bikain* nota lortu zuten ikasleen %58,4k bakarrik edo *Oso ondo* nota zuten ikasleen %45,1k gainditu dute proba. Hori ulertzeko kontuan hartu behar dugu grafiko honetan eredu guztiak sartuta daudela eta, ikusi dugun datuen arabera, A ereduko ikasleen %25ek *Bikain* nota zuela eta beste %25ek *Oso ondo* nota atera zuela aurreko ikasturtean.


Noten araberako talde guztien arteko diferentziak esanguratsuak dira, nota baxuenak (*Oso gutxi* eta *Gutxi*) lortu zituzten ikasleen artean salbu.



## Hizkuntza ereduaren arabera emaitzak

Ondoko grafikoan hizkuntza ereduaren arabera, proba gainditu duten ikasleen portzentajea aurkezten da. Ikus daiteke A ereduaren joera, gainontzeko ereduarekin alderatuta, oso ezberdina dela. A ereduaren gaitortutako portzentajea ez da %1era heltzen eta horregatik, lerro zapala erakusten du. B eta D ereduetan, berriz, grafiko koherenteagoa ikus daiteke: zenbat eta arloko nota hobetuz, hainbat eta altuagoa da gaitortutuen portzentajea.

57. grafikoa. B1 euskara proba: gaitortu dutenen Euskara arloko notak eta ereduak




Alde esanguratsuak:

- **A ereduaren**: arloko notaren arabera ez dago diferentzia esanguratsurik tartean artean.
- **B ereduaren**: hiru talde sortzen dira, alde batetik *Bikain* lortu duten ikasleak, beste aldetik, *Oso ondo* edo *Ondo* notak ateratu diren ikasleak eta azkenik, gainontzeko taldeak beheko notekin.
- **D ereduaren** talde guztien artean alde esanguratsuak daude.

## Proban lortutako puntuazioa aurreko ikasturteko noten arabera

Aurreko ikasturtean lortutako notak erreferentzia gisa harturik, B1 proban ateratako puntuazioak ahal dira aztertu:

58. grafikoa. B1 euskara proba: puntuazioa eta joan den urtean Euskara arloko notak



Grafikoan ikusten denez:

- **A ereduan:** badago diferentzia esanguratsuak *Bikain* nota duten eta gainontzeko nota duten ikasleen artean (*Oso ondo* nota salbu) eta *Oso ondo* nota lortu duten ikasleen eta *Nahikoa* eta *Gutxi* dutenen artean.
- **B ereduan:** bi talde bereizten dira, alde batetik, *Bikain* eta *Oso ondo* notarekiko ikasleak.
- **D ereduan:** Talde guztien artean alde esanguratsuak daude, *Gutxi* eta *Nahikoa* taldeak kenduta.

## 3.5. Ikastetxearen aldagaiak

### 3.5.1. Ikastetxeetan jarraitzen diren hizkuntza-irakasbideak

Euskal hezkuntza sistemak ezaugarri gisa zerbait badu, horixe aniztasuna da. Horrexegatik, ikastetxearen aldagaien eraginkortasuna aztertzerakoan, konturatu gara sareek zein hizkuntza ereduak berez ez dituztela emaitzak erabat adierazten. Ezbairik gabe, badira ikasleen errendimenduan eragiten duten beste faktore batzuek ere, batez ere pedagogikoak. Hala ere, eragile horiek identifikatzea eta zelan eragiten duten ezagutzea oso zaila da, ikastetxez ikastetxe aldatzen baitituzte.

Dena den, faktore horietako baten garrantzia ezagutzeko, B1 Euskara proba ezartzean ikastetxeetako zuzendaritza-koei galdetu genien zenbat arlo irakasten ziren euskaraz Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetan, betiere probarako aukeratuak izan ziren ikastaldeak aintzat hartuta erreferentzia bezala. Nolabait, hizkuntza irakasbide desberdinak identifikatzea geneukan helburu.

Arloak honakoak izan dira: Matematika, Ingurunearen Ezaguera, Arte Hezkuntza eta Gorputz Hezkuntza. Hizkuntzak (Euskara, Gaztelania eta Atzerriko hizkuntza) ez ditugu kontuan izan, bakoitzari dagokion hizkuntzaz landuko zirela uste izan genuelako.


Zuzendaritza-koei emandako datuak aztertzerakoan, lehenik arlo bakoitzak duen asteko ordu-kopurua izan dugu kontuan, kalkulu zehatza lortu ahal izateko. Orduan, ikastetxe bakoitzeko ikasleek Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetan euskaraz jaso dituzten arlo-kopurua eta, guztira, ordu-kopurua jakin ditugu. Datuek dispertsio nabarmena dagoela erakutsi digute: A ereduko ikasle gehienek 0 arlo eta 0 orduko egoeratik, 6 arlo eta 19 ordu jasotzen direneraino (D ereduko guztiak eta B ereduko batzuk). Gainera, hainbat ikastetxetan arlo batzuk bi hizkuntzetan lantzen dituztela konprobatu dugu: euskaraz eta gaztelaniaz edo euskaraz eta ingelesez. Egoera horiek guztiak izan ditugu kontuan, ordu kopurua kalkulatzeko orduan.

Beraz, bigarrenik, lau irakasbide hauetan sailkatu ditugu ikastaldeak:

- 1. hizkuntza irakasbidea deitu diegu euskaraz 2 arlo edo gutxiago irakasten duten ikastaldee. Egoera horretan dauden ikasleek euskaraz aste batean 0 eta 5 ordu artean jaso dituzte (gehienek ordu bat ere ez).
- 2. hizkuntza irakasbidea izenekin ezagutzen dugu euskaraz 3-5 arlo irakasten duten ikastaldeak. Horren arabera, euskaraz 5,5 eta 10 ordu artean izan dituzte, dispertsio handia erakutsiz ikastetxez ikastetxe.
- 3. hizkuntza irakasbidean euskaraz 6 arlo irakasten duten ikastaldeak sartu ditugu. Euskaraz 6 arlo emateak 12,5 ordutik 16 ordura zabaltzen da. Hala ere, ikasle gehienek 13 ordu jaso dituzte.
- 4. hizkuntza irakasbidea erabiltzen dugu euskaraz 7-8 arlo irakasten duten ikastaldeak izendatzeko. Egoera horretan daudenean 16-19 ordu bitartean jaso dituzte (gehienek 19 ordu).

Orain, ikus ditzagun lau irakasbideen arabera lagineko ikasleei dagozkien datuak:

59. grafikoa. Ikastetxeen irakasbideak



Taularen datuen azterketatik honako ondorioak atera ditugu:

- Ikasle gehienek 4. irakasbideari jarraitzen diote (7-8 arlo eta 16-19 ordu euskaraz), %62,2 hain zuzen, eta, ondoren, 3. irakasbidekoak ditugu (%19,5 gutxi gorabehera).
- Sexuaren arabera, desoreka txikiak 4. irakasbidean (mutilen alde) eta 2. irakasbidean (neska gehiago daude. Hala ere, ikasle kopurua eskasa dela kontuan izan behar da).
- Hizkuntza ereduaren arabera gertatzen diren egoera desberdinak aztertzea interesgarria da:
  - A ereduko ikasleen %70 lehenengo irakasbidean aurkitzen dira, baina ia %30 bigarrean. Datu horiek A ereduaren dagoen aniztasun maila erakusten digute.
  - B ereduak aniztasun handiena eskaintzen du: gehienak (%63) hirugarren irakasbidean, laurden bat laugarren irakasbidean eta ia %13 bigarrean.
  - D eredia homogeneoa da, ikasle guztiek laugarren irakasbideari ekin diotelako.
- Geruzen arabera datuak aztertzerakoan, hizkuntza ereduaren zenbait datu zehaztu ahal dira. Badirudi A eta B itunpeko ikastetxeetan dibertsitate handiagoa dagoela, publikoetan baino. Hona hemen, ezaugarriak interesgarrienak:
  - A publikoko ikasle guztiek lehenengo irakasbidea jarraitzen dute. Hala ere, A itunpekoak banatzen dira, %57 lehenengoan eta %43 bigarrean daudelako.
  - B publikoko gehienak (%71) hirugarren irakasbidean daude eta ehuneko nabarmen bat (ia %30) laugarrenean. B itunpekoan aniztasun handiagoa dago: %60 —gehiengoa ere— hirugarren irakasbidean egon arren, %22,6 laugarrenean dago eta %17,5 bigarrean.
- ISE1 indizearen arabera, laginaren batez besteko egoeratik hurbilen dagoena behe-erdi mailako indizea duten taldea da. Aldiz, behe maila dutenen artean, laugarren irakasbidea egiten dutenen ehuneko jaisten da eta lehen ira-

kasbidearena igo. Goi-erdi eta goi mailletako ikasleen artean laugarren irakasbidea nagusi da, batez bestekoarena baino 8-10 puntu gehiago dutelako.

- Hizkuntza irakasbideak familiaren hizkuntzaren egoerarekin alderatuta, honakoa nabari da: euskara familiaren hizkuntza denean, %94k laugarren irakasbideari jarraitzen dio eta ia %5ek hirugarrenari. Hala ere, familiaren hizkuntza beste bat denean, laugarren irakasbideak inportanteena izaten jarraitzen du (%52) eta ia laurden batek hirugarren irakasbideari ekiten dio; baina lehenengo eta bigarren irakasbideen ehunekoa 10etik gora daude familiaren hizkuntza euskara ez den kasuetan.

Aurreko datuak laburbilduz, honako aspektuak bereiz ditzakegu:

- B ereduak irakasbide guztiak hartzen ditu, 1. izan ezik. Hortaz, hizkuntza eredu hau oso anitza da.
- A eta D ereduak B baino askoz homogeneoak dira.
- Itunpeko ikastetxeetan irakasbide gehiago agertzen dira publikoetan baino.
- Familia euskaldun gehienak 4. irakasbidean biltzen dira. Halaber, familia horien maila sozio-ekonomikoa altuena da.

Irakasbideetan egindako sailkapen horren arabera, ikasle gaindituen emaitzak honakoak izan dira:


#### Gainditu duten ikasleak hizkuntza irakasbideen arabera

	K	%
<b>1. hizkuntza irakasbidea</b>	1	<b>0,4</b>
<b>2. hizkuntza irakasbidea</b>	18	<b>13,7</b>
<b>3. hizkuntza irakasbidea</b>	79	<b>25,6</b>
<b>4. hizkuntza irakasbidea</b>	513	<b>51,5</b>
<b>Guztira</b>	611	<b>38,2</b>

Lau taldeen arteko diferentziak esanguratsuak dira, %95ean.

Hona hemen datuen grafikoa:

**60. grafikoa. B1 euskara proba: gainditu duten ikasleak hizkuntza irakasbideen arabera**



Aurreko datuen arabera, badirudi erlazio zuzena dagoela euskaraz ikasten-irakasten diren arlo eta ordu kopuruaren eta errendimenduaren artean. Progresio aritmetikoa dagoela ematen du. Bereziki, 2. irakasbidetik 3.era, eta 3.etik 4. irakasbidera. Izan ere, 4. irakasbidea jarraitzen duten ikasleak probaren batez bestekoaren gainera gertatzen diren bakarrak dira.

Beste era batez azalduta, ikas-irakasteko euskararen erabilera sendotzen den neurrian, B1 Euskara proban lortutako emaitzak ere gora doaz. Hala ere, datuek erakutsi dute errendimendu handiena 4. irakasbidean lortzen dela.

### Emaitzak hizkuntza ereduaren arabera irakasbideetan

Lehenik, hizkuntza ereduaren egoera aztertuko dugu. Hasteko, ondorengo taulan jarraitutako hizkuntza irakasbideen arabera eredu bakoitzeko ikasle-kopuruak aurkezten ditugu:

#### Ikasleen banaketa hizkuntza ereduaren, ikastetxearen hizkuntza irakasbidearen arabera

Ereduak	1. irakasbidea (2 arlo edo gutxiago euskaraz)		2. irakasbidea (3-5 arlo euskaraz)		3. irakasbidea (6 arlo euskaraz)		4. irakasbidea (7-8 arlo euskaraz)		Guztira	
	K	%	K	%	K	%	K	%	K	%
A eredia	162	70,2	69	29,8	–	–	–	–	230	100,0
B eredia	–	–	63	12,7	311	62,1	119	24,2	493	100,0
D eredia	–	–	–	–	–	–	876	100,0	876	100,0
<b>Guztira</b>	162	10,1	132	8,2	311	19,4	995	62,2	1.599	100,0


Hiru ereduaren laginak egoera desberdinak islatzen ditu: A ereduaren ikasle gehienek 1. hizkuntza irakasbidean ikasten dute eta, gutxi gorabehera, heren batek 2. ean; B ereduaren aniztasun handiagoa dago, baina ia bi heren 3. irakasbidean biltzen dira, laurden bat baino apur bat gehiago 4. irakasbidean daude eta %12,7 bigarrenean; eta, bukatzeko, D ereduaren ikasle guztiak 4. irakasbideari jarraitzen diote, hau da, jakintzagai guztiak —edo ia guztiak— euskaraz ikas-teari.

Emaitzei dagokienez, ikastetxeek erabakitako hizkuntza irakasbidearen arabera hizkuntza ereduaren gainditu duten ikasleen datuak honako taula eta grafikoan ikus ditzakegu:

#### Gainditu duten ikasleak

Ereduak	1. irakasbidea (2 arlo edo gutxiago euskaraz)		2. irakasbidea (3-5 arlo euskaraz)		3. irakasbidea (6 arlo euskaraz)		4. irakasbidea (7-8 arlo euskaraz)		Guztira	
	K	%	K	%	K	%	K	%	K	%
A eredia	1	0,4	2	2,2	–	–	–	–	2	1,0
B eredia	–	–	16	26,2	79	25,6	51	43,1	147	29,9
D eredia	–	–	–	–	–	–	461	52,7	461	52,7
<b>Guztira</b>	1	0,4	18	13,7	79	25,6	513	51,5	611	38,2

61. grafikoa. B1 euskara proba: Gaindituak hizkuntza irakasbideetan hizkuntza ereduaren arabera (Lehen Hezkuntzako 6. maila)



Itxuraz diferentziak ageri arren, esanguratsuak diren bakarrak B ereduko 2. eta 3. irakasbideena 4. irakasbiderekiko eman dira. Horregatik, hurrengo taulan elkartu dira 2. eta 3. irakasbideak. Gainontzeko kasuetan desberdintasun horiek ez dira azaltzen.


Informazio osagarria lortzeko asmoz, ikasleek eskuratutako emaitzak zehaztasun handiagoz baloratzeko puntuazioak analizatu ditugu. Hona hemen irakasbide bakoitzaren puntuazioa eta beraien arteko desberdintasunak<sup>18</sup>:

#### Ikasleek lortu duten puntuazioa<sup>19</sup>

Ereduak	1. irakasbidea Puntuazioa	2. eta 3. irakasbidea Puntuazioa	4. irakasbidea Puntuazioa	Guztira Puntuazioa
A eredia	31,4	39,0	–	33,7
B eredia	–	59,2	66,5	61,0
D eredia	–	–	69,5	69,5
Guztira	31,4	56,1	69,1	61,7

Konparazioak biribil batean bildutakoen artean egin dira. Datuak hurrengo grafikoan ahal dira ikusi:

**62. grafikoa. B1 euskara proba: ikasleen puntuazioa hizkuntza irakasbide eta hizkuntza ereduaren arabera**



Hiru ereduaren laginak egoera desberdinak islatzen ditu. A ereduko ikasleak 1. eta 2. irakasbideen artean banatzen dira. Emaitza hobea lortzen dute euskararen erabilera indartzen denean (2. irakasbidekoek 7,6 puntu gehiago ateratu dute). Desberdintasun horiek esanguratsuak dira.

B ereduko puntuazioak probaren batez bestekotik inguruan kokatzen dira (61,7 puntu). Grafikoan ikusten denez, 4. irakasbideak (66,5) emaitza altuagoak lortzen ditu 2. eta 3. irakasbideen taldekoak baino (59,2). Bi talde hauen desberdintasuna esanguratsua da.

Finean, D ereduko ikasle guztiek 4. irakasbidea jarraitzen dutenez, lortzen dituzten 69,5 puntuak ereduaren batez besteko puntuazio bera dira.

Puntuazioak aztertzerakoan, honako ondoriook ateratu ditugu:

- Diferentzia esanguratsuak eman dira hiru hizkuntza ereduaren artean. Dena dela, nabarmena A (33,7) eta B-D (61,0 eta 69,5 puntu, hurrenez hurren) ereduaren artekoa da.

(18) Puntuazioak geruzen arabera aztertzea ez da oso fidagarria, ikuspegi estatistikotik, azpitalde askotan banatzen baitira.

(19) Gogoratu behar da B1 proba gainditzeko ikasle batek 70 puntu eskuratu behar zituela. Diferentzien esanguratsutasunari dagokionez, A ereduaren 1. eta 2. irakasbideen artean ematen dira, eta B ereduaren 2. eta 3. irakasbideetan 4. arekin ditu.

- Lau hizkuntza irakasbideen batez besteko puntuazioak ez dira iritsi 70 puntuetara. Hala ere, progresio argi bat gertatzen da, 1. irakasbidearen 31,4 puntuetatik 4. irakasbidearen 69,5 puntuetara. Alde horiek adierazten digute, adibidez, A ereduaren ematen diren diferentziak, 1. edo 2. irakasbidea jarraitzearen arabera direla. Era berean, B ereduaren 2.-3. eta 4. irakasbideen artean.
- Irakasbide-mota, faktore interesgarria izan arren, berez ez da gai ikasleen errendimendua azaltzeko bere osotasunean, hizkuntza ereduak eragin handiagoa baitu.


## Matematika arloaren hizkuntzaren eragina B ereduaren

B ereduaren ematen dira desberdintasun handienak; horregatik eredu horren inguruko datuak aztertuko ditugu, besteak beste, Matematika arloa zein hizkuntzatan ematen den. B ereduko ikastetxeetan Matematika arloa gaztelaniaz edo euskaraz ematen dute eta horrek, nonbait, ondorioak ditu.

Datorren grafikoan ikus ditzakegu B ereduaren Matematika euskaraz edo gaztelaniaz ematea eta proba honetan ateratuzten puntuazioak. Ematen diren datu guztiak ikastetxeetako batez bestekoen batez bestekoa da.

Ikastetxeak	Matematika gaztelaniaz		Matematika euskaraz ikasturte batean		Matematika euskaraz, 5. eta 6. mailetan	
	K	%	K	%	K	%
<b>B eredu</b>	26	55,4	2	58,4	11	65,9

63. grafikoa. B eredu. Matematika euskaraz eta puntuazioak




Ikasleek Matematika euskaraz ikasten dutenenean B1 proban puntuazio altuagoa lortzen dute. Lehen Hezkuntzan 3. zikloan (5. eta 6. mailetan) Matematika euskaraz ikastea edo ez puntuazioan %9,5eko aldea dago. Halaber, alde nabaria da ikasleek 2 ikasturte edo bat (7,5) soilik ikasten dutenean Matematika euskaraz.

B eredu barruan aztertzerakoan, desberdintasunak ikus ditzakegu B publiko eta itunpekoen artean:

Ikastetxeak	Matematika gaztelaniaz		Matematika euskaraz		Matematika euskaraz, 5. eta 6. mailetan		Batez bestekoa	
	K	%	K	%	K	K	K	%
<b>B publiko</b>	14	50,7	2	58,4	5	63,2	21	54,4
<b>B Itunpekoa</b>	12	61,0			6	68,2	18	63,4
<b>Guztira</b>	26	55,4	2	58,4	11	65,9	39	58,7

Hona hemen grafikoa:

**64. grafikoa. B ereduak. Matematika euskaraz eta puntuazioak**




Aurreko grafikoa joera bera erakusten du, Matematika euskaraz lantzen denean puntuazio altuagoak agertzen dira. B itunpekoan ikasturte batean ikasten dutenean 0 agertzen da lagina txikia delako, hau da, ez dago ikastetxerik hori ematen dutenak: edo gaztelaniaz ematen dute edo euskaraz ziklo osoan.

B publikoetan Matematika 3. ziklo osoan euskaraz ematen dutenean puntuazioa 63,2 da, B ereduko batez bestekoa (63,4).

B1 proba gainditu dutenak aztertzean aipatutako joera gordetzen da. Hurrengo grafikoa irakur ditzakegu datuak:

**65. grafikoa. Bereduak. matematika euskaraz eta gaindituen ehunekoa**



Matematika euskaraz ikasten duten ikasleek gaztelaniaz ikasten dutenek baino neurri handiagoan gainditu dute proba, aldea kasu guztietan esanguratsua da. Konparazio egiterakoan agertzen den aldea nabaria da, batez ere 2 ikasturteetan ematen dutenean.




### 3.5.2. Ikastetxearen indize sozioekonomiko eta kulturala (ISE1-c)

3.3.1 azpiatalean azaldu dugu zertan datzan *familiaren indize sozioekonomiko eta kulturala* (ISE1). Hori kalkulatzeko zenbait informazio kontuan hartu ditugu: lehenengoz, familiaren lanbide-maila, ikaslearen aita-amenen altuena; bigarrenez, familiaren gehieneko ikasketa-maila, ikaslearen amak edota aitak ikasitakoa; eta hirugarrenez, kultur ondasun batzuen jabetza edo kontsumoa (liburuak orokorrean, kontsulta-liburuak, egunkariak eta aldizkariak, ordenagailua eta Internet). Ezaugarri horiek, ikusi den moduan, adierazgarriak dira ikasleen errendimendua adierazteko orduan.

Orain aztertuko dugu ikastetxearen ISE1 (hemendik aurrera ISE1-c) indizearen eraginkortasuna. Hori lortzeko proba egin duten ikasle banako indizeen batez besteko aritmetikoa kalkulatu dugu. Segidan ikusiko dugunez, ikastetxeen artean diferentzia nabarmenak daude. ISE1-c indizearen eraginaren garrantzia ikasleen errendimenduan islatzen da Euskal Autonomia Erkidegoan gauzatu diren beste ebaluazioetan eta, oro har, burututako hezkuntza bibliografia orokorrean. ISE1-c izaten da ikastetxeen emaitzetan eragin handienetakoa duen faktorea, sarea eta hizkuntza ereduak batera. Hala ere, txosten honetan azaltzen den legez, Euskara probetako emaitzetan eragin handiena duen eragilea hizkuntza eredia da.

66. grafikoa. Ikastetxeko indize sozioekonomiko eta kulturala (ISE1-c)



Azter ditzagun ISE1-c-rekin lotu ditugun aldagaiak:

- Sexuari dagokionez, ISE1-c mailak nahiko orekatuak daude. Alde nabarmena erdi-goi mailatan dago, horretan neska pixka bat gehiago daudelako.
- Hizkuntza ereduaren artean desberdintasun nabariak daude. Honakoak sumatu ditugu. A ereduko ia heren batek behe maila du, ia %30ek goi maila eta gutxien duena erdi-goi maila da. B ereduaren behe eta behe-erdi mailatan


heren bana dago. Gutxien duena goi maila da. D ereduko ikasle gehienak erdi-goi (%40,6) eta goi mailetan daude (ia hiru ikastetxetik bat); aldiz, ikastetxe gutxien duen maila behekoa da.

- Geruzetan begi-bistako aldeak ere nabaritzen dira. Hauexek dira:
  - A eta B publikoko ikastetxe gehienak, %90 eta %100 artean, behe mailetan daude.
  - B itunpekoak bi heren ditu, gutxi gorabehera, ISE1-c-ko erdiko mailetan.
  - A itunpekoan desoreka bat dago, alde batetik mailarik mardulenak goikoa eta behe-erdikoak direlako eta, bestetik, behe maila nahiko eskasa delako.
  - D publiko eta itunpeko goi mailetan (erdi-goi eta goi mailak) ikastetxeetako %71,2 daude.
- Familiaren indize sozioekonomiko eta kulturean (ISE1), logikoaenez, bakoitzean berezko ISE1-c da nagusia, hau da goi mailako ISE1-c ikasleen erdia baino apur bat gehiago da; beste hiru mailetakoko ikaslerik badago, baina proportzio baxuagoan. Joera hori nabarmena da behe eta goi mailako familiaren ISE1etan eta ez hain nabarmenak erdiko mailetan, horietan oreka eta mailetakoko nahasmen handiagoa baitago.
- Familiaren hizkuntzari dagokionez, bi kategoria egituren arteko desberdin argiak daude. Familiaren hizkuntza euskararik ez dutenek ISE1-c banaketa orekatuena dute, beste edozein aldagairekin konparatuta: gehien agertzen dena erdi-goi maila da (%30,2) eta ikasle gutxien biltzen dituen behe maila (%22,8). Bere aldetik, euskara familiaren hizkuntza dutenen egitura beste era batekoa da: erdi-goi eta goi mailan daude %65.

Ikastetxeko maila sozioekonomikoa neurtzeko beste era bat badago: ikasle bekadunen kopura aztertzea. Informazio horrek indize sozioekonomikoa bermatzen du. Bekak jasotzen dituzten ikasleen datuak Hezkuntza Administrazioetik jaso ditugu.

Aurreko grafikoa ikasleen taldeari badagokio, bigarren grafiko hau ikastetxearena da.

67. grafikoa. Ikastetxeetako ikasle bekadunak



Datuek ikastetxearen bekadunen portzentajea adierazten dute; lau taldetan banatzen dira:

- 1. taldea: %0-%26,0 bitarteko kopuruak jaso du beka.
- 2. taldea: %26,56-%36,7 bitarteko kopuruak jaso du beka.
- 3. taldea: %37,6-%55,88 bitarteko kopuruak jaso du beka.
- 4. taldea: 56,22-%100 bitarteko kopuruak jaso du beka.

Datu horiek direla eta, grafikoak honelako ondorioak adierazten ditu:


- A publikoko bekadunen kopurua deigarria da; izan ere, ikasleen %88,4 4. taldean kokatzen da; hau da, ikasle guztien %56,2 eta %100 artekoak badu bekarik. Beraz, egoera horrek adierazten du A publikoak maila sozio-ekonomikorik apalena duela. Halaber 4. taldean ere, baina A publikoaren atzetik B publikoa dugu, %57,3 portzentaje duela.
  - A zein B itunpeko ikastetxeetako ikasleen %28,6 eta %22,3, hurrenez hurren, ikasle bekadunen portzentaje handieneko taldean daude.
  - D eredia da beka gutxien jaso duena; izan ere, ikastetxe publikoetako ikasleen %18,8 eta itunpekoetako %11,5 baino ez daude 4. taldean. Hizkuntza eredu horretan ez dago desberdintasun handirik sareen artean; hortaz, bi sareetako maila sozioekonomikoa antzekoa izan behar da.
  - A itunpeko ikastalde gehienei 1. taldea dagokie; beraz, talde horietako ikasleen %0 eta %26 artekoak bekarik badu. Oso kontraste handia igartzen da A publikoarekiko, honetan 1. taldea ez baitago ordezkaturik (goian adierazitako bezala, A publikoko gehienak bekadunen kopururik handiena du, hau da, 4. mailan daude).
- Ikasleek duten familien indize sozioekonomiko eta kulturalaren arabera (ISE1), behe mailako ikasleen ehuneko nagusia ikasle bekadunen kopuru handiko ikastetxeetan aurkitu dugu.
  - Familia hizkuntzari dagokionez, etxean euskaraz hitz egiten ez duten ikasleen ehuneko asko metatzen dira bekadunen kopuru handiena duten ikastetxeetan (3. eta 4. mailatan); hau da, ikasle horien artean %36,7 eta %100 artekoak badu bekarik. Bestaldetik, euskaraz mintzatzen direnak aztertzerakoan, %46,8 2. taldean (%26,5-%36,7 arteko bekadunen kopurua duena) dagoela ikusi dugu eta, aldiz, bakarrik %5,5 4. taldean, hau da, bekadunen kopuru eskasena duen taldean hain zuzen.

Ondoko grafikoetan B1 Euskara proban parte hartu duten ikastetxeen ISE1-c eta batez besteko puntuazioaren lotura irudikatzen da. Sakabanatze-grafiko horren bidez, honako bi datu lotzen dira: alde batetik, ardatz horizontalean adierazten den ikastetxearen batez besteko indize sozioekonomiko eta kulturala eta, bestetik, ardatz bertikalean, ikasleen batez besteko puntuazioa.

Horiez gain, diagonal beltzak bi aldagaien (ISE1-c eta puntuazioak) arteko loturaren joera erakusten du, erregresio linealaren zuzen baten bidez. Hau da, ikastetxeen ISE1-c-ak bakarrik kontuan hartuko bagenu, zegozkien puntuazio teorikoak adierazten ditu zuzen horrek. Puntu batekin irudikatu dugun ikastetxe bat erregresio linealaren zuzenetik gertu dagoenean, egoera erreala eta teorikoa antzekoak direla erakusten du. Hala ere, zuzen horren gainetik edo azpitik agertzen bada, ISE1-c-ren arabera izan behar zuen lekutik urruntzen dela adierazten digu. Arrazoia edo arrazoiak beste eragile batzuetan bilatu beharko dira.

Beste alde batetik, honako bi marra mehe agertzen dira grafikoan: bertikalak ISE1-en batez besteko indizea adierazten du, eta horizontalak B1 probaren batez besteko puntuazioa. Gainera,  $R^2$ -k azaltzen du ISE1-c indizeak emaitzak argitzeko duen ahalmena —ehunekoa—. B1 Euskara proban %30ekoa izan da, beraz, beste eragileen artean nahiko altua.

68. grafikoa. ISE1-c eta puntuazioren arteko lotura



Aurreko grafikoaren erregresio linealaren zuzenari dagokionez, bi ezaugarri nabarmentzen dira: lehen, aldakortasun handia dagoela erakusten digu; izan ere, ikastetxeen puntuazioak, duten ISE1-c-ren arabera, 20 puntu baino gutxiagotik 70 baino apur bat goragora zabaldu beharko lirakeelako. Bigarrena, hizkuntza ereduaren arabera oso egoera desberdinak eman direla. Geroago aztertuko dugunez, A ereduko ikastetxeek ISE1-c-ren arabera espero zitekeen baino puntuazio apalagoa lortu dute. B ereduko gehienak goitik geratu dira, baina salbuespenik badago. Eta D ereduko bat izan ezik, gainerakoak ISE1-c-ren arabera dagokien tokian edo gorago agertzen dira.

Nazioarte mailan eta orain arte Euskal Autonomia Erkidegoan egin diren aurreko ikerketa eta ebaluazioetan ISE1-ren eta ISE1-c-ren eragina nabarmena izaten da. Euskara proba honetan, esanda dagoenez, batez beste emaitzen %30 ( $R^2$ ) azaltzen laguntzen du, baina kontuan izan behar dugu faktore bakarra ez dela. Horrexegatik, ISE1-c indize altua izan arren, batzuetan emaitzak ez dira espero bezain onak. Azken finean, euskarazko emaitzetan familiaren hizkuntzak, hizkuntza ereduak eta beste zenbait faktorek eragiten baitute.

Dena den, grafikoaren beste ezaugarri orokor bat azaltzarren, emaitzen sakabanaketa begi-bistakoa da. Puntu bakoitzak ordezkatzen du ikastetxe bat. Orduan, puntuaren kokapenak ikastetxearen joera orokorretik duen desbiderapena erakusten digu. Barriadura edo sakabanaketa positiboa da ikastetxearen batez besteko emaitza zuzenaren gainetik badago eta, aldiz, negatiboa azpitik dagoenean. Zuzenera dagoen tartea erakusten du ikastetxeak lortu duen puntuazioaren eta bere ISE1-c-ren arabera espero litekeenaren arteko diferentzia.

Joan gaitzen ISE1-c-ren eta puntuazioen arteko lotura aztertzeraz hizkuntza ereduetan.

Grafikoan kontuan hartu beharreko bi gertaera antzematen dira: lehen, ISE1-c indizeak ez duela eragin berdina hiru hizkuntza ereduetan; eta, bigarrena, hizkuntza eredu bakoitzaren emaitzak beti ez direla homogeenak izan, besteaz beste, ISE1-c-ren eraginkortasuna eredu bakoitzean desberdina izan delako.


Orokorrean, grafikoaren erregresio linealaren zuzenaren gainetik ikastetxe multzo nabarmen bat ikus daiteke, nahiko elkartuta. Zuzen horren azpitik geratu diren ikastetxeek, aldiz, askoz sakabanatze handiagoa erakusten dute.

Beste alde batetik, ISE1-c-ren batez bestekoa eta B1 probaren batez bestekoa erakusten dituzten zuzenei so egiten badiegu, honako lau koadrante hauek bereiz daitezke:

- Goi-ekerraldekoek probaren batez bestekotik gorako puntuazioa lortu dute, gainera duten ISE1-c indizearen arabera espero baino puntuazio altuagoa eskuratu dute. B eta D ereduko ikastetxeak aurkitzen dira nahastuta.
- Goi-eskuinaldekoak dauden ikastetxeek ere goi-mailako ISE1-c dute eta probaren batez bestekoa edo horren gainetik geratu dira; berriro ere, guztiak B eta, batez ere, D eredukoak dira. Koadrantea zeharkatzen duen erregresio linealaren zuzenaren azpitik ez dago ikastetxerik.
- Behe-ekzerreko koadrantea zabalena da, erregresio linealaren zuzenak erdibitzen duena. Alde batetik, horren gainetik dauden ikastetxeek probaren batez bestekotik behera geratu arren, lortu duten puntuazioa ISE1-c-ren arabera espero zitezkeena baino altuagoa izan da. Egoera horretan dauden ikastetxe guztiak B eredukoak dira. Beste aldetik, erregresio linealaren zuzenaren azpitik daudenek ISE1-c apala dute eta proban puntuazio eskasa ere lortu dute. B ereduko lau ikastetxe izan ezik, gainerakoak A eredukoak dira. Koadrante honetan, gainera, sakabanatze handia antzematen da.
- Behe-eskuinaldeko koadrantean daude goi-mailako ISE1-c duten ikastetxeak eta, aldi berean, probaren batez bestekoa baino kalifikazioa apalagoa eskuratu dutenak. Berriro ere sakabanatuak daude. Hala ere, koadrante honen goialdean dauden B ereduko ikastetxe gutxi batzuk izan ezik —gutxi gorabehera erregresio linealaren zuzenaren bertan daude— gainerako gehienak A eredukoak dira (12 ikastetxe); hala ere, D ereduko ikastetxe bat ere badago. Dena den, erregresio linealaren zuzenaren azpian dauden ikastetxeen arteko diferentziak handiak dira. Neurri batean, ISE1-c-ren nolabaiteko eragina sumatzen da, gehienbat behe-ekzerreko koadrantean dauden A ereduko ikastetxeek baino puntuazio hobetutxoagoa lortu baitute.

Orain, azter dezagun zehazkiago ISE1-c-ren eta puntuazioen arteko lotura hizkuntza eredu bakoitzean.

### 69. grafikoa. ISE1-c eta puntuazioaren arteko lotura ereduaren arabera




A eredukoek sakabanatze handiena erakusten dute. ISE1-c-ri dagokionez, altuena eta txikiena dituzten ikastetxeak ditugu talde horretan. Hala ere, homogeneousitasun ezaugarriak badu, guztiak probaren batez bestekoaren behetik geratzen baitira. Hala ere, ISE1-c-ren eta emaitzen arteko lotura hiru ereduaren handiena da ( $R^2 = 0,58$ ). Dakigunez, horrek esan nahi du ISE1-c-ek emaitzen %58 azaltzeko balio duela. Zuzenak duen inklinazioa ez da oso handia; beraz, ISE1-c-ek emaitzetan duen eragina apalagoa dela erakusten digu.

B ereduko ikastetxeen arteko sakabanatze handia bada ere, gehienak elkartzen dira multzo batean erregresio linealaren zuzenaren inguruan. Multzo horren guneak erdi mailako puntuazioak (probaren batez bestekoan, gutxi gorabehera) eta ISE1-c-ren batez bestekoaren apur bat azpitik dituena. Lau ikastetxe bakarrik nabarmen geratzen dira behean; izan ere, horietako bat probaren puntuazio baxuenak lortzen diren artean dago. Dena dela, B ereduko ikastetxeek nahiko talde homogeneousoa osatzen dute. Erregresio linealaren zuzeneko inklinazioaren makurdura nabariena du, beste hizkuntza ereduarekin alderatuta; horrexegatik, B ereduaren ISE1-en eragina handiena da. Gainera, B ereduaren  $R^2$  handia ere bada (0,47); beraz, eredu honetan ISE1-c-ek proban lortutako emaitzak azaltzeko ahalmen handia duela erakusten digu.

D ereduko grafikoak oso ondo adierazten digu ikastetxeak nahiko kontzentratuak daudela probaren batez bestekoa-ren puntuaziotik gorako gunee batean. Oso salbuespen gutxi dira.  $R^2$  eskasa izateak adierazten du ISE1-c-ren eta emaitzen arteko lotura txikiena dela, beste hizkuntza ereduekin erkatuta; izan ere,  $R^2$  hori 0,24koa izateak esan nahi du ISE1-c-ek emaitzen %24 azaltzeko balio duela. Gainera, ISE1-c-ri dagokionez, horren gainean edo aurrerako kokatzen dira gehienbat (bi ikastetxe salbu). Erregresio linealaren zuzenak nahiko laua izateak, puntuazioetan ISE1-c-ren eragina txikia dela erakusten du. Grafikoki antzeman daiteke ikastetxe gehienak goi-eskuinaldeko koadrantean daudela erdi-goi mailako ISE1-c dutelako. Beraz, talde homogeneotzat har dezakegu.

ISE1-c-en eta emaitzen arteko lotura beste ikuspegi batetik aztertu dugu, ikastetxean dagoen bekadunen kopuruarekin erlazioztatuz hain zuzen. Lortu dugun irudikapen grafikoa ondokoa da<sup>20</sup>:

### 70. grafikoa. ISE1-c eta bekadunen arteko lotura




Ardatz bertikalean proban parte hartu duten ikastaldeek ISE1-c-ak daude eta horizontalean ikastetxe osoko bekadunen ehunekoa. Bekadunen kopurua kontuan izateak erakusten du aldagai hori adierazgarria dela eta bi aldagaien arteko korrelazio handia dagoela. Izan ere, bekadunen kopurua bakarrik erabiliko bagenu, informazio garrantzitsua galduko genuke. Ikus dezagun adibide esanguratsu bat: ezkerreko bertikalean agertzen diren puntu horiek guztiek azaltzen dute %100 bekadun duten ikastetxeak. Hala ere, ez daude elkarturik gunee berean, bata bestearen gainetik, ikastetxe horietako bakoitzak ISE1-c desberdina duelako, grafikoak oso ondo adierazten duen moduan.

Orain aztertuko dugu bi aldagai horien arteko lotura —B1 Euskara proban eskuratutako puntuazioak eta bekadunak— hizkuntza ereduetan. Araketa horren irudikapena ondoko grafikoen dugu:

(20) Grafikoa hobeto interpretatzeko, erregresio linealaren zuzena aurreko beste grafikoeekin konparatu ahal izateko, ardatz horizontaleko eskala bihurtu dugula (100dik 0ra, eta ez alderantziz, normalean egiten den bezala) kontuan izan behar da; horrexegatik, ehunekoen hazkundera eskuinetik ezkerretara irakurri behar da.

## 71. grafikoa. Ikasleen puntuazioa eta ikastetxeko bekadunen arteko lotura



Bekadunen portzentajeak kontuan hartuz, lehen ikusi dugun hizkuntza ereduetan ISE1-c-ek duen eragina ñabartzen da.

A ereduan erregresio linealaren zuzenaren inklinazioa ahuldu da pixka bat bekadunen eraginez. Hori gertatu da A ereduko ikastetxeen artean goi mailako ISE1-c duten ikastetxe kopuru dezente dagoelako. Hala ere, hiru hizkuntza ereduetatik A ereduko en taldeak R<sup>2</sup> handiena mantentzen du (R<sup>2</sup> = 0,50), ikastetxeko bekadunen indizeak emaitzen %50 azaltzera laguntzen duena.


B ereduaren erregresio linealaren zuzenaren inklinazioa moteldu egin da nabarmen, B eredu orokorrak duenarekin erkatzen badugu. R<sup>2</sup> 0,34koa da, bekadunen R<sup>2</sup>-ren batez bestekoa baino baxuagoa<sup>21</sup>.

D ereduak duen ISE1-c altua berresten da. Oso bekadun gutxi daude ikastetxe horietan; eta, ondorioz (R<sup>2</sup> = 0,03, batez bestekotik oso urrun), ia ez du Euskara probaren errendimenduaren ezer adierazten. Grafikoaren erregresio linealaren zuzena nahiko laua da edo, beste era batez adierazita, bekadunen kopuruaren eragina txikia da D ereduan. Hala ere, bi grafikoak —bekadunak kontuan izan gabe edo bekadunekin— alderatzen badira, bekadunen eraginez ikastetxeen sakabanaketa handiagoa dela ikusten da. Hala ere, puntuak erregresio linealaren zuzenetik oso hurbil daude beti.

Azkenik, ISE1-c-ren eta emaitzen arteko lotura geruzen arabera ere aztertu dugu, diferentziarik dagoen ikusteko. Grafikoetan eman diren dispersioak ikusita, ondokoa ondorioztatu dugu:


(21) Probaren batez besteko R<sup>2</sup> 0,30ekoa izan da, baina bekadunak kontuan izanda kalkulatu den batez besteko R<sup>2</sup> berria 0,41ekoa izanda.

72. grafikoa.



Geruza horretako ikastetxe guztien ISE1-c batez bestekotik azpian dago, batena izan ezik; gainera, batzuen oso behe mailan eta, bestaldetik, emaitzak ere oso baxuak izan dira. Horrexegatik, ikastetxe gehienak behe-ezkerreko koadrantean daude, bat izan ezik.  $R^2$ -k (0,75) erakusten digu ISE1-c-ek aldakortasuna adierazteko ahalmena oso handia dela, %75ekoa, geruza guztietatik handiena.

73. grafikoa.




B publikoko geruza lehenengo postuan dago, ISE1-c-ren eraginari dagokionez, bere erregresio linealaren zuzenaren inklinazioa oso makurtuta baitago. Hala ere, ikastetxeen arteko dispersioa agerian geratu da. Ikastetxe talde bat izan ezik, grafikoaren erdian elkartzen direnak, beste batzuek maila sozioekonomiko eta kultural bera izan arren, ez dituzte emai-




tza berberak lortzen. Muturreko kasuetan puntuazioak bikoiztera heltzen dira. Horrexegatik, B publikoan diferentzia handienak eman direla baieztatu dezakegu. Halaber,  $R^2$  0,44koa denez, ISE1-c-ek emaitzak %44an adierazten ditu.

74. grafikoa.




D publikoko eta D itunpeko ikastetxeetan ISE1-c-ren eragina antzekoa izan da: ez oso nabarmena; erregresio linealaren zuzenaren inklinazioa txikia baita. Geruza honetan, ikastetxe bat izan ezik, gainerako ikastetxeak grafikoaren goialdean kokatzen dira, probaren batez besteko puntuazioa gaituz. Gainera, puntuazioen arteko dispersioa txikia da. Talde horren  $R^2$  erdi mailakoa da —0,22koa—, batez bestekoaren azpikoa, ISE1-c-ren eragina ere ertaina dela baieztatzen duena.

75. grafikoa.




A itunpekoaren egoera desberdina da, besteenarekin konparatuz. Ikastetxe guztiak behealdean daude, eskuin eta ezkerreko koadranteetan. Horrek, lortu duten puntuazioen aldetik, dispersio handia adierazten du. Talde horren  $R^2$  guztietatik baxuena izan da: 0,14koa. Datu horrek azaltzen duenez, ISE1-c-ek eta emaitzen arteko lotura eskasa da. Dena den, ISE1-c antzekoa duten ikastetxe batzuen emaitzak oso desberdinak izan dira. Adibidez, ikus ditzagun ISE1-c-ren batez bestekoaren marraren ondoan dauden hiru ikastetxe: emaitzarik altuenaren eta apalenaren artean ia 30 puntu daude.

76. grafikoa.



Agian, B itunpekoko ikastetxeak apur bat erdialderantz daude, baina D ereduko geruzen itxurarekin alderatuta, antzekoa dira, hirurak nahiko homogeneoak direlako. B itunpekoaren  $R^2$  0,30ekoa da (batez bestekoaren ohikoa). Izan ere, B publikoan gertatzen ez den bezala, B itunpekoko ISE1-c bera duten ikastetxeen puntuazioen arteko diferentzia ez da hain handia, baina kasu batzuetan 25 puntukoa izatera iritsi da.

77. grafikoa.



Bukatzeko, D itunpekoa dugu,  $R^2$  0,30ekoa ere duena, batez bestekoa hain juxtu. Kasu horretan D publikoan gertatzen den bezala, puntuazioen dispersioa txikia da, ia ikastetxe guztiak erregresio linealaren zuzenetik oso hurbil baitaude.

Ondorioz, alde batetik, ISE1-c-ek emaitzen aldakortasuna adierazteko orduan, A publikoan (%75) ikusten da batez ere, eta gero B publikoan (%44). Alderantziz, argitzeko ahalmen txikiena A itunpekoan du (%14 bakarrik). Beste alde batetik, emaitzen dispersiorik handienak B publikoko eta A itunpekoiko ikastetxeetan antzematen da eta txikiena, aldiz, A publikoan, B itunpekoan eta D publikoan zein itunpekoan.



HIZKUNTZA TREBETASUNEN  
PUNTUAZIOAK

**4**



## 4. HIZKUNTZA TREBETASUNEN PUNTUAZIOAK


Trebetasunetan ematen diren datuak ikasleek lortu duten batez besteko puntuazioa dira; hau da, ongi erantzundako itemen portzentajea. Gaizki erantzuntzat hartu ditugu ikasleek erantzun ez dituzten itemak. Ezin da ahaztu proba gainditzeko batz besteko %70 puntuazioa lortu behar zela.

Trebetasun guztien puntuazioak (mintzamina salbu) ondoko taula eta grafikoan agertzen dira:

Trebetasunak	K	%
Entzumena	1.599	69,5
Idazmena	1.599	59,0
Irakurmena	1.599	56,7
Batez bestekoa	1.599	61,7

Hona hemen grafikoa:

78. grafikoa. B1 Euskara proba: trebetasunaren puntuazioak



Ikasleek entzumenean lortu dute puntuazioa altuena: %69,5. Puntuazio baxuena irakurmenean %56,7; hori baino altuxeagoa idazmenenarena da: %59.

### 4.1. Trebetasunaren puntuazioak hizkuntza ereduen arabera

Trebetasunaren puntuazioa hizkuntza ereduen arabera ikusita, honako ondorio orokorrak nabaritzen dira: D ereduko ikasleek atera dituzte hiru trebetasunetan puntuazio altuenak eta A eredukoek baxuenak.


Puntuazioak ondoko taulan eta grafikoan ikus daitezke:

Trebetasunaren puntuazioak hizkuntza ereduen arabera

	A eredia	B eredia	D eredia
Entzumena	42,5	69,8	76,3
Idazmena	23,3	57,7	69,1
Irakurmena	35,2	55,5	63,0
Batez bestekoa	33,7	61,0	69,5

Hona hemen datu horien grafikoa:

79. grafikoa. B1 Euskara proba: trebetasunen puntuazioak hizkuntza eredu arabera



Trebetasun bakoitzean hiru hizkuntza eredu arako alde esanguratsua dago; hau da, D eredu ikasleek B eredu-koek eta A eredu-koek baino puntuazio altuagoak lortu dituzte. Baita B eredu-koek A eredu-koek baino altuagoak ere.

## 4.2. Trebetasunen puntuazioak geruzen arabera


Trebetasunen emaitzak aztertzean, geruzak abiapuntua izanda (hots, hizkuntza eredu eta ikastetxe sarea), honako emaitzak sortzen dira:

B1. Trebetasunen puntuazioak geruzen arabera

%	A publikoa	A itunpekoa	B publikoa	B itunpekoa	D publikoa	D itunpekoa
Entzumena	31,20	47,40	63,90	72,0	75,50	77,70
Idazmena	13,80	27,50	50,50	60,30	68,10	70,80
Irakurmena	30,60	37,20	48,90	57,90	62,80	63,30
Batez bestekoa	25,18	37,39	54,42	63,38	68,83	70,60

Geruzak guztietan, entzumenean lortu dira emaitza hoberenak, A eredu-koen emaitzak barne, %31,2ko puntuazioarekin. Puntuazio altuena trebetasun honetan, D eredu-koa da %77,7ko puntuazioarekin.

80. grafikoa. B1 Euskara proba: trebetasunen puntuazioak geruzen arabera






D eredukoek bi sareetan eta baita B eredukoek ere irakurmenean lortzen dute puntuazio baxuena. Halaber, geruza horietan, idazmenaren puntuazioa irakurmenarena baino pixka bat altuagoa da eta entzumenarena baino apalagoa.

Bestalde, A eredukoek puntuazio baxuenak idazmenean dituzte.

Hurrengo grafikoetan, geruzen arabeko trebetasun bakoitza aztertuko dugu. Batez bestekoa marra batez adierazita dago.


**81. grafikoa. B1 Euskara proba: entzumenaren puntuazioak geruzen arabera**



D eredukoek eta B itunpekoek batez besteko emaitzak baino altuagoak lortzen dituzte trebetasun guztietan. Dena dela, D eredukoek arteko aldea ez da esanguratsua.

Idazmena geruzen arabera aztertzean, zera topatzen dugu:

**82. grafikoa. B1 Euskara proba: idazmenaren puntuazioak geruzen arabera**




– Idazmenean D ereduaren arteko aldea ez da esanguratsua. Aldiz, beste eredu guztien artean desberdintasunak daude eta esanguratsuak dira.

– Aurreko trebetasunetan bezala, D ereduko eta B itunpeko puntuazioak batez bestekoa baino altuagoak dira.

Irakurmenak, geruzen arabera, honelako grafikoa sortzen du:

**83. grafikoa. B1 Euskara proba: irakurmenaren puntuazioak geruzen arabera**



– Irakurmenean, aurreko trebetasunetan bezala, D ereduaren arteko aldea ez da esanguratsua; A ereduko geruzen artean, ordea, bai.

– Aurreko trebetasun bezala D ereduko eta B itunpeko puntuazioetan batez bestekoa baino altuagoak dira.

### 4.3. Trebetasunen puntuazioak ikasleen familien hizkuntzaren arabera


Familiaren hizkuntzaren araberrako puntuazioak aztertzean, zera ondorioztatzen da: euskara familiaren hizkuntza denean, puntuazio altuagoak agertzen dira hizkuntza trebetasun guztietan, datorren koadroak adierazten duen legez:

**B1 Euskara proba: trebetasunen puntuazioak familiaren hizkuntzaren arabera**

%	Euskararik ez	Euskara
<b>Entzumena</b>	66,5	78,6
<b>Idazmena</b>	54,1	74,1
<b>Irakurmena</b>	53,5	66,5
<b>Batez bestekoa</b>	58,1	73,1

Euskaldunen puntuazioaren eta euskaldunak ez direnen puntuazioaren arteko aldea estatistikoki esanguratsua da trebetasun guztietan. Horregatik, esan dezakegu, euskara familiaren hizkuntza izateak eragina daukala, emaitza altuagoak lortzen baitira trebetasun guztietan.

**84. grafikoa. Trebetasunen puntuazioak familia hizkuntzaren arabera**



Aldea trebetasun guztietan ikusten da, baina idazmenean ere nabariagoa da, eta familiaren hizkuntza euskara bada, beste taldearekiko desberdintasuna 20 puntura heltzen da. Beste trebetasunetan aldea ez da hain handia.

#### 4.4. Trebetasunen puntuazioak ikasleen sexuaren arabera

Ikasleen sexuaren arabera, trebetasunen emaitzak antzekoak dira. Nahiz eta euskara proban neskek puntuazio altuagoak lortu, entzumenean mutilek lortu dute puntuazio altuagoa.


Datuak ondorengo taula eta grafikoan ikus ditzakegu:

**B1 Euskara proba: trebetasunen puntuazioak sexuaren arabera**

%	Neska	Mutila
<b>Entzumena</b>	69,1	69,8
<b>Idazmena</b>	60,9	57,1
<b>Irakurmena</b>	57,2	56,2
<b>Batez bestekoa</b>	<b>62,4</b>	<b>61,0</b>

Datuen grafikoa:

**85. grafikoa. B1 Euskara proba: trebetasunen puntuazioak sexuaren arabera**



Datuak aztertuta, honelako ondorioak ahal dira atera:

- Entzumenaren eta irakurmenaren arteko aldea ez da esanguratsua, hau da, neskek eta mutilek emaitza oso antzekoak lortu dituzte bi trebetasun horietan.
- Idazmenean, ordea, badago nesken eta mutilen arteko desberdintasun esanguratsua, nesken alde.



EREDUEN AZALPENA

**5**



## 5. EREDUEN AZALPENA

Hirugarren atalean (Aldagaien eragina) azalpen eredu orokorra adierazi da; bertan, aldagaien eragina aztertzen zen era globalean. Atal honetan, ordea, hizkuntza eredu bakoitzaren azterketa zehatza egingo da.


### 5.1. A eredua

A hizkuntza ereduari, aldagaien konbinazioak bariantzaren %34 azaltzen du eta nabarmen gutxitzen du ikastetxeen bariantza (%61).

B1 euskara	A Eredua			
	Hasierakoa	Azkena	% azkena	Azalduta
<b>Bariantza metatuta</b>	178,57	118,22	100,00	33,80
<b>Ikastetxeen bariantza</b>	90,90	35,40	29,95	61,05
<b>Ikasleen bariantza</b>	87,67	82,81	70,05	5,53

Nahiz eta zenbait aldagairen efektua gutxituta izan, ikastetxeen eragina emaitzetan nabaria dela ikusten da. Hau da, zenbait ikastetxek eragin handiagoa daukate emaitzetan gainontzekoek baino.

86. grafikoa. A eredua




Goian ikusten denez, banakako aldagaia aztertuta, familiaren hizkuntza da eragin handien daukan aldagaia (euskaraz, euskaraz ez). Hala ere, oso efektu berezia da zeren eta ikasleen kopuru oso txikian (3 gure laginean) eragina izanda, emaitzak azaltzeko efektu diferentziala esanguratsua gordetzen du.

Eredu honetan ezaugarri berezi bat ematen da: ez da barneratzen datu sozio ekonomikoekin lotutako inongo aldagairik, hain zuzen ere, datu horiek ez dute baliorik emaitzak azaltzeko. Egoera bitxia da; emaitza hain baxuak izanik bariabilitatea oso txikia da, hori dela eta ezberdintasunak eskasegiak dira alde esanguratsuak adierazteko.

Taldeko edo ikastetxeko ikuspuntutik, emaitzak azaltzen dituen aldagai bakarra sozioekonomiko eta lanbide indizea (ISE1-c) da. Ikusten denez sareen aldagaia ez da agertzen, hala ere, aldagai hori barneratuta dago ikastetxearen sozioekonomiko eta lanbide indizean (hots, bariantza berak azaltzen du). Bi aldagai horiek ondo funtzionatzen dute banakako aldagaiekin batera bakoitza bere aldetik sartzen badira, eta ez, ordea, elkarrekin.

Izan ere, ISE1-c aldagaiaren datuek sare aldagaia bezala funtzionatzen dute A ereduan. Bi geruza hauen ISE1-c batez besteko puntuazioak geruzen guztien arteko altuena eta baxuena dira (A publikoa  $-1,05$  eta A itunpekoa  $0,25$ ) baina, grafikoan azaltzen den bezala, alde handia dago ikastetxez ikastetxeko ISE1-c aldagaiari.

**87. grafikoa. Ikastetxearen indize sozioekonomiko eta laneko batez bestekoa**



## 5.2. B eredua


B hizkuntza ereduan, aldagaien konbinazioak bariantzaren %40a azaltzen du, A ereduan baino 6 puntu gehiago sortzen dira. Honela, ikastetxeen arteko bariantza gutxitu egiten da (%81).

B1 euskara	B Eredua			
	Hasierakoa	Azkena	% azkena	Azalduta
<b>Bariantza metatuta</b>	244,66	146,90	100,00	39,96
<b>Ikastetxeen bariantza</b>	90,79	17,52	11,93	80,70
<b>Ikasleen bariantza</b>	153,87	129,38	88,07	15,92

Bariantza txikitu ondoren, ikastetxeen bariantza %11,9 portzentajeraino jaisten dela ikus daiteke. Horrek erakusten du, B ereduko ikastetxeen eragina euskararen emaitzetan oso antzekoa da ikastetxe guztietan (hau da, erabilitako aldagaiek ikastetxeen arteko benetako desberdintasunak %80,7 kopuruan azaltzen dute).



88. grafikoa. B eredia



Datuak aztertu ondoren, honako taldeen (edo ikastetxeen) hiru aldagaiok eragin handia dute:

- Sarea: itunpeko sarearen ikasleek balizko puntuazio altuagoa daukate sare publikoenek baino.
- Taldearen maila sozioekonomiko eta lanbide mailak eragin handia du zeren eta puntuazioa 17,1 puntu handitu edo txikitu egiten baitu.
- Euskaraz ematen den Matematika: B eredukoak izanda ere D ereduaren antolaketa praktikoa duten ikastetxeek 5,7 puntu ahal dituzte gehitu.

Ikuspuntu horretatik aztertuta, aldagaien arteko konbinazioek ikastetxearen emaitzak gutxitu egiten dituzte. Horretaz gain, kontuan hartu behar da aukeratutako hiru aldagai horiek ikastetxeen arteko bariabilitate elementu asko dauzkatela.

Banakako aldagaiei dagokienez, berriro agertzen da errepikatzearen eta familiaren hizkuntzaren eragina emaitzetan.

Banakako aldagaietan ere, bakarka ikusita, aldagai sozioekonomikoa (HISEI) lagungarria zaigu emaitzak azaltzeko.

### 5.3. D eredia

D ereduan aldagaien konbinazioak bariantzaren zati txikiena (%25) azaltzen du. Hala ere, eredu honen hasierako bariantza guztien arteko baxuena zen; aurrekoetan bezala, ikastetxeko bariantza da gehien gutxitzen dena (%68).


B1 euskara	D Eredua			
	Hasierakoa	Azkena	% azkena	Azalduta
<b>Bariantza metatuta</b>	124,88	96,90	100	22,41
<b>Ikastetxeen bariantza</b>	14,80	4,83	4,99	67,34
<b>Ikasleen bariantza</b>	110,07	92,90	95,01	16,36

Eredu honetan izandako emaitzak azaltzen dituzten aldagai indibidualak A eta B ereduetan erabili ditugun ia berberak dira. Horrez gain, ikasleen sexua kontuan izan behar dugu, mutilei 3,3 ahal izango zizkien kendu balizko puntuazioan.


Gainontzeko banakako aldagaiek B ereduan bezala jokatzen dute.

Ikastetxeen (edo taldeen) aldagaiei dagokionez, ISE1-c indizea funtzionatzen duen aldagai bakarra da eta bere ekarpen diferentziala 6,5 puntuetara hel daiteke.

### 89. grafikoa. D eredua







**ISEI•IVEI**

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU  
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN  
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

**ISEI•IVEI (Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea)**

Asturias 9, 3º - 48015 Bilbao / Tel.: 94 476 06 04 / Fax: 94 476 37 84 / [info@isei-ivei.net](mailto:info@isei-ivei.net) / [www.isei-ivei.net](http://www.isei-ivei.net)